

EUSKERAREN

ERRI AKADEMIA

XIV Zenbakia

1991
Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

Orr.

Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran.— B. Latiegi.	1
Euskeraren bearra.— A. Urrestarazu.	11
Izkera eta eziketa.— A. Arrinda.	14
Aetzen uskaraz.— Josu Cabodevilla.	25
De re poética.— S. Onaindia.	34
Euskera batuaren billa.— L. Akesolo.	36
Abandoko Neologo aundia.— Jemein-Otarri.	45
Eginbide nagusia.— Umandi.	48
Idazte arauak.— A. Zatarain.	50
Naiko ala nai izango.— L. Akesolo.	52
Aita Goiria karmeldarra.— S. Onaindia.	55
Sabin Muniategi.— L. Arostegi.	57
Iñoiz, iñor, iñon, ezer.— J. Gaztañaga	64
Euskeraren aberastasuna zertarako.— Tx. Garmendia (Barruko azalean).	
Esaldi jatorrak.— M. Oñatibia (Barruko azalean).	
Akatsak eta erderakadak.— J. Gaztañaga. (Kanpoko azlean).	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

EUSKERAREN ABERASTASUNA ZERTARAKO?

Gure izkuntza aberatsa dala entzunda gaude amaika aldiz; ez etxekoengandik bakarrik, baita kanpokoengandik ere. Arriturik noski, Euskerak dun itz ugaltasunez da esaeraz.

Ez da orrelako itxurik, irрати, telebista ta gaiñontzekotatik entzuten degun Euskera entzunda.

Guk ikasi gendun Euskerak ere bazitun bai, erderatik artutako itz pranko. Arretatik da zintzallerik izan etzulako noski, iritxi zan ainbeste auzotarrekin parte artzera. Bestetik, esaiengandik eraso bildurgarriak ere jasan bear izan ditu, ta etzan arritzekoa gertatutakoa.

Orain, txukuntzeko ta edertzeko aukera etorri zaigunean, Euskera gaixoa ia erdera utsa biurtu degu alajaiña. Euskerak beste inkuntzetatik berezia dala....? Aurki ezin esango degu orrelakorik.

Bukaerarik ez dun zerrenda jarri liteke, baiña, ara bakar batzuk Euskeraren biotzeraiño sartuta dauden itz lotsagarritatik: reunioa, urgentea, tenperatura, okultoa, desagertu, progresoa, repetizioa, trasladatu, efetibamente, positibo, negatibo, atratibo, inkopalibitatea, protagonista, sorpresa, diskusioa, terminazioa, konsumoa, bersioa, posizioa, afetatu ta abar.

Gezurra dirudi, itz oiek eta gaiñerakoak Euskera goxoan esan leizkela. Euskeraz ikasten ari dan batek orrela itzegitea ez da arritzeko, baiña jaunak, irрати, telebistatik da abar, ikasbide eman bear ligutekenak ari zaizkigu orrela itzegiten. Gure pekatuak ez dute barkamenik da kito.

Urrilla-Gabonillako "Euskerazaintza" errebistan Gaztañaga'tar Jesus'ek, erderakadatik zerrenda ederra osatzen zun. Geienak Telebistatik entzundakoak. Ez da izango zailla, ez, Euskeraz ikasten.

Egunkari ontan, Tolosa'ko orrialdetan, joan zan agorraren 9'an; Aita Garate adiskideak ederki salatzen zun Tolosa'ko Udalak iriki dun tabernari jarri zioten izena: "Zentru sozio kulturala" alajaiña. Tolosa'ko Euskera ederra dala? Itsusitu ere laister egingo degu oraingo itxuraz.

"Benardo Atxaga", astiasuar idazle pamatuaren aitormenak dira ondoren dijoazten auek: "Si perdiéramos el castellano también perderíamos parte de nosotros mismos". Arrazoi ori, Euskerari buruz esango nuke nik.

Erderazko itzeri buruz ari naiz orain artean; da euskal joskera nola darabilkigu? "Onek ez dauka presa", "Ez du egiten otza" da antzekoak entzungo ditugu itzetik-ortzera, "onek presik ez du" ta "otzik ez dago" esan bearrean.

Aurrez aitatu dedan idazlearena da au ere: "No se puede convertir en amezketarras a los alumnos de la Ribera". Erriberan amezketarrik ez izateak ez nau arduratzen, Gipuzkoa'n da Amezketa'n bertan ere, aurki ez dala izango amezketarrik da nere kezkarik aundiena, oraingo abiada onek jarraitzen badu.

Diktaduraren loturetatik askatu giñanean, izotz ori lurmenduko zala uste gendun. Leku ederrean... Ez dago nozki geiago esan bearrik.

Txomin Garmendia
(El Diario Vasco 26-1-1991)



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN 869'GARREN URTEKO LARRUKI BAT

(1)

Badu IX mendeko larruki onek subtitulo edo izenburupeko bat: "De baccarizas de Sancti Felicis": "Felice Donearen beitaldeei-buruz".

Felice Donea, izenburupeko ontan, Oka mendietan Done orri opal dutako lekaidetxe edo monasterio baten izena dugu. "Felize" edo Felizes" esaten ba'diot nik, Errioxa'ko jende guztiak Done orri orrela deitzen diolako da. Bearbada, ez bait dugu Done au, Erroma'ko donetegiko Felix Donea, Euskalerra bertako gizon done bakartasun-zale bat baizik; Saturio, Prudentzi, Bitor eta Millan Doneen antzekoa.

Oka berriz, Burgos uritik ez urruti, egoalderuntz Duero ibaiera doazen urak, iparreruntz Ibero edo Ebro ibaiera datoztenetatik bereizten dituan mendikatearen izena da. Esana dugula uste dut, Bruxula'ko mendatea dala, alde batera Sortaldeko Oka Mendiak eta beste aldera Sarkaldeko Oka Mendiak utziz, mendikate ori bi zati egiten duana.

BRUXULA, izen orrek ere, naiz gaur espainiarren ezpaineñek "Puerto de la Brújula" erderara aldaturik egon, badu euskal-usai galanta; "O" "U" errez biurtzen dalako seguruaski bere izena BRUXOLA, eta, Bruxola ori, URXOLA'ren aldakuntza izatea bai bait daiteke.

Ez zaitez arritu "Bruxula" jatorriz izen euskalduna izan daitekeala entzutez, naiz Burgos uritik ain bertan egon; bai egora bai iparrera, Oka Mendien bi maldak, oraindik dirauten toki-izen euskaldunez ederki jantzirik bai daude.

"Oka" itza, erdiaroan "O" adierazteko "AU" erabilli oi zutelako, AUKA idatzi zigun beti larruki onen lumalariak.

Larrukiaren idatzierazle, Didako kontea azaltzen zaigu berriro: "In nomine Jhesu Christi, Ego comite. Didaao, spontanea voluntate, pro remedio anime mee...", euskeraz, "Josu Kristo gure Jaunaren izenean Nik Didako konteak, nere-neronen eragiñez, eta nere gogoaren osasunerako", diosku egin zuala larrukiaren mamia dan emaitza Oka mendiko lekaidetxeari.

Emaitza, Oka mendietako lurralde baten zituak jaso aal izatea da, baiñan oso era pitxian emana: "egunero gurdi batek, asto batek, eta bizkarrez lekaidetxe artako lekaideek eraman dezaketena": "Quantum potest portare cotidie cum uno carro eta uno asino et cunctis fratres qui ibidem sunt in humeris suis". Abereentzako "larre eta iturrien erabilketarako eskubidea" ere ematen die, baiñan "Oka uriko biztanleekin erdizka": "divisione pan cum illa civitate Aukense".

"K"z idazten du beti lumalari zar arek, un eta mendi aien izena, "Aukensi" bein, "Aukense berriz gero bi aldiz. Ez da arrigarri azkeneko izkia batean "I", Aukensi, eta besteetan "E", Aukense, idatzi izatea, "E" ori "I" aboskatzen bait zuten antziñako lateradun aiek.

Onatx orain larruki onek damaizkigun bederatziz toki-izenen zerrenda:

AUKA	AVUELO	RIPAOTA
ZAR RATONE ARBOR		LARCHEDERRA
MANTELE MUSCHELI		GALLAFAZA
	FORNERO	

Izen oiek danak euskal-izenak ote diran? Bai noski naiz itxuraz aski aldaturik egon, Oka mendietan bederatzigarren mendean euskeraz besterik ez bait zan itzegiten. Ez didazu noski Zarraton'ek eta Larchederra'k euskal usai nabarmena dutenik ukatuko!

Oka-mendietako lurralde ari, Araba esaten diote garai artako edestilari arabitarrek, eta urtero urtero, udaz, an, Araba'ko "guaskuyin"ekin borrokan ibiltzen zira-la dioskute.

"Guaskuy-in" itzaren "in" atzizki ori, euskarazko "k" atzizkia bezala, ugaritasun-adierazlea da, eta, itz guztia, "guaskuyin", euskerara "guaskuyak" eta laterara "guaskones" aldatu genezake.

Arabitarren "guaskuyin" ori, "w" izkia "gu" bihurtuz, frankiarren "waskones" arabieraz emateko era bat besterik ez da.

Izan ere bisigotarren eta frankiarren artean, "waskones" ori, "guaskones" eta, geroago, "gaskones" aboskatzen zan.

Ortik dator Gaskuña, D'Artañan eta bere iru "mosketalari" lagunuen errialdearen izena. Ona, nola:

"Waskonia", waskoien lurraldeari esaten zioten. Waskonia orren aurreneko izkia, ordea, "W", esan dugun bezala, "G" agoskatzen zan orduan, eta Waskonia orren azkeneko, "NIA", "ÑA" esaten zuten. Orrela, Waskonia, GASKOÑA biurtu zuten, eta "O" oso errez, izkuntza guztietan "U" agoskatzen dalako, Gaskoña azkenean GASKUÑA izatera igaro zan.

Azter ditzagun orain, banan-banan, eskuetan dugun larruki onen toki-izenak:

OKA—. Len ere mintzatuak gera izen ontaz: Araba'n baditugu gaur izen ori daramaten mendate bat, arrupe bat eta ibaitxo bat. Baita lurralde bat ere. Lurralde ortan daude Oka'ko Nanklares eta Oka'ko Izarra, erromateko Veleia, "oppidum" edo "arresiz-inguratutako-gudaritegi" ongi ezaguna.

Oka deritzan lurralde ori Badaia mendiaren azpian dago. Antziñako dokumentu zarretan BADAYAOZ esaten zitzaion; gero, BADAYOZ; eta, azkenean, BADAJOZ. Orra or nola aldatzen duten itxuraz gure toki-izen euskaldunek.

Eta, orra or, baita-re, aneika izenen itsatsa dugun "OZ" edo "OTZ" atzizki ori, —"Oroz, Oronoz, Oroz-ko, Oskoz"—, "be" edo "pe"ren kidea, ("debajo de"), esan nai duan atzizkia nola izan daitekean.

Oka izenak badira Araba'z landa Euskalerriko beste tokietan ere: Oka, adibidez Bizkai'n errekatxo baten izena Gernika-aldean eta antziña itzal aundiko Aide Nagusien dorre bat.

Oka aurrizki duten izenak ere aski ugari ditugu Euskalerrian: Okariz, Okai, Okabo, Okain, Okara, Okalar, Okasar, Okaraz, Okaranka, Okarango..r

Alare, ez da erreza Oka orrek zer esan dezakean jakitea. Lopez Mendizabal'dar Isaka'k Oka ori Osa'ren aldakuntza dala dio eta Osa'k berriz "larre" esan nai duala; "pastizal", gazteleraz. Ez dakit nondik atera duan ori. Nik nere aburuz, Oka, Osa ori bera, eta Oro, Oña, eta beste izen ulerkaitz asko, apalki eta kezkarik gabe, euskeraren arkaik'itzak, ots, beren zentzua galdu dugun "antziña-antziñako itzak" dirala esango nuke.

Ez dezagun aztu, millaka urte asko dituala Euskerak. Millaka urte oietan ur asko joan dala mendiak-beera gure ibaitxoetan, eta une berean ur berriak etorri zaizkiela gure errekatxo oiei beren ituburuetatik. Eta orrela, bizirik jarraitu duala gure errekatxo bakoitzak.

Era berdiñean, itzik asko ere joan zaigu, nai-ta-naiez, orrenbete millaka urteen epean Euskeraren iztegitik eguneroko mintzaketaen itz-jarioan. Eta itz berriak sortu. Eta orrela, gure errekatxoak bezala bizirik dirau oraindik gure euskerak.

Baiña joan zaizkigun itz oiek, toki-izendi edo toponimian utzi digute beren aztarna. Orregaitik du toki-izen-bilketak artaraiño'ko garrantzia: arkaik'itz oien zentzua lortzeko bide bakarra dugulako. Gaurko Euskalerriko toki-izenak bildu bear ditu gure agureen ezpaiñetatik. Azkar gaiñera, bestela beroiekin ilko bait zaizkigu. Eriotza ez da ba gu asi zai egongo.

Gaurko eta atzoko Euskalerraren toki-izenak ditugu, aal dugun era guztiz jaso-bearrak. Antziñako gure Euskalerrria, Asturietatik, Auña-Mendiak-zear, Menditerranean-ltxasoraiño iristen bait zan; eta Ibero-Mendien egoaldetik, Dordoña-Aranaren iparrerañño. Lurralde oietako toki izenen bilketa gero egin bear'ko dan lana da.

Eta, ez zaigu naikoa, gaur-egungo toki-izenen bilketa. Izen oiek, mendeak zear, aldaketarik aski jasan bait dute. Ortarako, liburu, idazti, larruki eta dokumentu-mota guztietara sartu bear dugu.

Ez da, eztare, aztutzeko gauza, toki-izen oiek **zer lekutan** aurkitzen diran adierazi bearra dala. Orrela bakarrik jakin dezakegu ba, itz bakoitzak toki-izen bereizi bakoitzean zer esan nai dezakean. Adibidez, OLA itzak berez zerbait egiteko edo zerbait gordetzeko egin dan estalpea esan nai du. "Cobertizo" gaztele-raz.

Eta orrelako etxola oiek Euskalerrian, edo ardi-bilketarako edo burnilanketarako izan bait dira batez ere egiñak, OLA bere-baitan daraman etxe-izen bat mendigaiñetan ba'dago, naiz orain nekazari-etxea izan, len atzain-etxea izan zala adierazten digu. Eta toki izen ori erreka baten alboan ba'dago, ziur esan dezakezu toki ori burni-ola bat dagoan edo egon zan lekua dala.

Ezagutzen dut nik Larraola izeneko leku bat. Goian dago; larre zabalaren alboan. An ez da sekulan burnirik landu. Ardi-lekua da ura. Naikoa dugu ori jakitea, an noizbait "art-ola" edo "ardi-ola" bat izan zala esateko: ardi-entzati eta artzaiarentzat egindako borda bat. Gaztelerazko itzez, "cabaña".

Ezagutzen dut baitare Goikola bat. Erreka baten alboan dago, Araxes ibaitxoaren alboan ain zuzen. Eta orrela dagola badakigulako, eta soilki ori dakigulako esan dezakegu Goikola ori burniola izan zalar

OLA, izan daiteke atzizki edo sufijo ugaritasun-adierazle bat ere. "Pagolak" k "leku pagotsua" adierazi nai digu. "Ote ugari dun tokia", "Otaola" k. Eta "leku urkitsua" berriz "Urkiola" k. OLA itza, zugaitz eta landare izenetan ba'tator, geienetan, ia beti, atzizki ugaritasun-adierazlea dugu.

Baita, "arri" itza bezala, berez ugaritasun-zentzua errez eskatu dezaketen itzei alkarturik agertzen zaigunean ere: adibidez "Arriola" "toki arriksua" eta "Loiola"

"toki loitsua" ditugu seguruaski. Eta orrela oien antzeko beste toki-izenetan, beste zerbaitek, dokumentuek adibidez, beste era batera pentsatzera bultzatzen ez ba'gaitu.

Zailla dala etimologintza!!!

A nolako lan ederra egin lezaketen gure unibersitateko ikasleek opor-aroetan, eta kultura pixka bat baduten gure zar-sarituak, dokumentuetako topinimi edo toki-izen-sortak jasoz! Millaka itz daude lotan gure eliz, udal, aldundi eta, bereiziki, baratari eta notarioen artxibo edo agiritegietan.

Orrela bakarrik jakin genezake gure etxe, mendi, iturri, landa, baso eta gaiñerako zokoek mendeak-zear nolako aldakuntzak jasan dituzten.

Lan ederra, gure mendigoizaleena, mendi dira bakoitzean baserritarrei gald egiñez, gaur egungo toki-izenak jasotzen ba'dituzte.

A! Ta jaso bearrak dira, len-bait-len gaiñera, Euskalerriko, zugaitz, belar eta landareen izenak ere. Gure iztegiak, danak, izugarri txiroak dira landarizti (fitologia) eta aberiztiari (zoologiari) dagozkien gaietan. Ori bai, laister egin bear dan lana!!! Gai oietako izenak ia danak galduak bait ditugu. Eta oraindik galdu ez diranak, gure agureekin gure belaunaldi ontan galduko bait zaizkigu.

Euskalerria ordea, kulturarako zaletasunik gabeko erria da. Afrika'n, —eta au estadistikek erakusten diguten gauza da—, euskaldunok baiño zaletasun geiago diote irakurtekari. Aski dugu ortaz ez arritzeko, eta naikoa dugu ortaz lotsatzeko, gure erri ontan zeinhen liburu gutxi saltzen dan, eta gure aldizkariak karitate utsez bizi dirala gogora erakartzea. Bazuan arraizoirik aski gure Orixe aundiak "Euskalerria munduko erririk mixeableena" dala esaten zuanean.

ZARRATONE— Bada Errioxa'n, Aro uritik bertan, Zarraton izeneko erri bat. Eta izen ori euskal-abizena dala diosku Kerexeta'k. Zarraton'en aldakuntza dala.

Lopez Mendizabal'en ustez, euskeraz "zara" gaztelerazko "jara" ornen da. Guk, "txaraka" esaten diogu, eta beste toki batzuetan "xara" ere esaten zaio. "ON" atzizkia, toki-adierazle bat dala badakigu. Eta maiz agertzen zaigula ere badakigu: Armiñon, Pipaon, Oion, eta Okon, Araba'n; Andion, Mrañon, Larraon, Naparroa'n. Korpion ondarrutar baten abizena da.

Maizago agertzen zaigu berriz, —ia zenbatu ezin aiña—, ONA bezala, osorik, bere "A" nominatibu-atzizki ta guzti, Aramaiona'tik asita Baiona'raiño.

ONA ere, ON bezala toki eta ugaritasun adierazle bat dala esan bearrik ez da. Orrela, Azkona, "aitz ugariko" tokia da. Eta Arrona, "arri ugarikoa".

Ortaz, Zaratone, "zara" eta "xara" gauza berdiña ba'dira, gaztelerazko "Jara" izango litzake. "E"z amaitua agertzeak, "Zarratone" ez du garrantzirik, ablatibueran bait dago lateraz larrukian: "In valle Zarratone una bacariza". "Beitalde bat Zarratone'n". Ori egia izatekotan, itzaren erdiko "T" izkia, —"Zara-t— one" —izki eufoniko edo doiñu-goxagarri bat dugu.

MANTELLE— Euskalerrian bai ornen da Mantelli abizena, eta abizen ori Araba'ko Manteli'ren aldakuntza ornen da. Sinistekoa da, "L" eta "LL" maiz alkar trukutzen bait dira euskeraz, eta gainera, gure larrukiar legokionez, lateraz "LL" idatzi eta "L" irakurri egiten bait zuten.

Lopez Mendizabal'ek onela zatitzen digu abizen ori. "M" protetiko edo edergaillua + "larre" esan nai duan "anda"ren aldakuntza dan "ante" + ugaritasuna adierazten duan "Ii" atzizkia.

Eta naiz, orrela izan bear duanik esatera ausartzen.

Gure larrukiko Mantella, ablatibo-eran dator: "In Mantelle una bacariza": "Beitalde bat Mantelle'n". "Manta" ote zan itz orren nominatibo-era? "Mant" agian?

Ez dakit ori. Baiña badakit "MAN"ez eta baita "MANT"ez ere asten dan izenik asko badugula: Manterola, Manteola, Manteo, Mantesola. Gazteleraz Santo Domingo de la Calzada esaten zaion eta bere euskerazko izen zaar jatorrez Ozkabarte deritzan urikoa da Manso edo Mantso abizena. Araba'n ere bada abizen ori. Eta baita Bizkai'ko Berriz'en izen ortako dorre bat ere.

Mansoa bada Aramaiona'n. Bazan Mansoa bat, 1774'ean Gipuzkoa'ko Segura'n, eta baita beste bat 1489'an Oñate'n. Abizen zarra bait da abizen ori Euskalerrian. Eta gaztelerazko "manso"rekin zer-ikusirik ez duana.

Gure larrukiko izen ori, nominatibuz "Mantelle" —bardulitarren euskeraz "Mantalla", ots, "Mantella" ba'zan berriz, "LLA atzizkia duten izen asko aurkituko ditugu: Erzilla, Unzilla, Marzilla, Andosilla, Ubilla, Orella..., eta baita "LA" daramakite-nak ere: Irala, Estala, Aiala...

Alperrik joango zera, izen oientzat argi-billa, Mitxelena'ren "Apellidos Vascos" deritzan liburura. Ez duzu argi askorik aurkituko. Mitxelena'k zaitasunetik, katuak ur otzetik bezala, "miau"rik ere esan gabe, iges egiten bait du.

AVUELO— Ona eman izen bitxia. Oka-mendietako aran edo ibar baten izena da larrukian: "In montes Aukensi, id est de Val de Avuelo quantum potest portare uno die": "Oka mendietan, ots, Avuelo-Aran'etik egun batean eraman daitekean guzia".

Ez da "Aitonaren Arana"; lateraz dagoan "Val de Avuelo" orrek ez bai du gaztelerazko "abuelo"rekin zer ikusirik. Larruki au IX mendekoa da, eta orduan ez zan oraindik gaztelerarik sortu. Abuelo itza latera zarrean "avus" da, eta erdiaroko lateraz "aviolus". Ortik omen dator gaztelerazko "abuelo" eta ez omen zan XIII mendera arte gaztelerara sartu, izkuntzalari espainiarrek diotenez.

Beste bide batetik jo bearke dugu beraz gure larruki onek damaigun "Val de Avuelo" ori zer izan daitekean jakiteko.

Latera ez dala badakigu. Eta gaztelera izan ez daitekeala ere bai. Euskera ote da? Bai, naitanaiez, euskera beste izkuntzarik ez bait zaigu geratzen lurralde artako toki-izen baten esan-naia azaltzeko. Are geiago IX mende artan Oka-Mendietan euskera besterik egiten ez zala!

Aurreneko lumalariak IX mendean, edo, ziurkiago, ondorengo mendeetako birridazle edo kopiaztailleak itxuraz aldatutako euskal-izen bat dugu "avuelo" ori.

Saia gaitezen "Val de Avuelo" orri nondik eldua billatzen. "Val de Avuelo" ori "Val de Agüelo" ote zan?

Euskalerrian, Agumendi abizena bada. Bada Agurola, eta baita Agureolaeta ere. Mitxelena'rentzat, "agure" oi "gizakume zarra" da; eta izen oiek, "La Ferrería del Anciano" eta "El Lugar de las Ferrerías del Anciano" esan gura dutela, aditzera eman nai digu. Etimologi errezegia, xingleegia eta inoxenteegia iduritzen zait ori.

Goazen beste bide batetik. "Agur", "egur", "egu", gazteleraz "salicaria" esaten zaion senda-belarra omen da. Eta "agu" berriz gaztelarrek "panizo" esaten diotena. Ain zuzen Amerika ezagutu-aurretik euskaldunek "a ro" esaten zioten basa-belarra. Gaurko arto au Ameriketatik ekarria bait da. Eta gaztelarrek, gaur "panizo" Ameriketatik artoari esaten dioten bezala, era berean esaten diote euskaldunek gaur arto, Ameriketatik ekarritako landare orri.

Oka-mendietako "Avuelo" edo "Agüelo" ori, euskeraz ARTALARRE ote zan? Seguruaski, IX'ko lumalariak Agelo idatzi zuan Agüelo'ren ordez, eta, gero, Agelo ark ezer esaten ez ziolako, —edo kontuan erortzeke, bearbada—, XII'go bir-idazleak Avuelo idatzi ote zuan?

Toki eta ugaritasunaren ezaugarri diran "LO", "LU", "LLO" eta "LLU" atzizkiak (oroi izki oiek errez alkar-trukatzen dirala) ugari bait ditugu gure abizen eta toki

izenetan: Arbulo eta Azilu Araba'n; Zabalo eta Areizabalo Gipuzkoa'n; Astarlo Bizkaï'n; Betelu eta Oroz-Betelu Nafarroa'n; Mendelu, Urkulu eta Urkullu, Gipuzkoa'n; Mallo, Malloa, Atallo, Ullo eta Ulloa Nafarroa'n; Zamallo Bizkaï'n...

LARCHEDERRA— Irakurri duzun bezain laister, izen ori "La Etxe Ederra" biurtzeko zirika sumatua izango zera bearbada, irakurle. Gaizki egingo zenuke, ori egingo ba'zenu. Lendabizi, laterak "la" artikulorik ez zualako, eta, bigarren "CH" izkia, lateraz, "TX" ez baiña "K" agoskatzen dalako. Larkederra, irakurtzen zuten Larchederra idatzitako izen ori. "LAR" aurrizkiari eldu bear diogu beraz, izen orren etimologia argitzen saiatzeko.

Izenaren azken-erdia, "ederra", euskalduna dala ezbaiean jartzetik ez dago. Zer ote da, ordea, izenaren aurreneko erdian "lark" ulerkaitz ori?

Zailtasun guztia, bere amaierako "K" orlan dago. "Larre" zer dan bai bait dakigu: "pastizal", gazteleraz. Badakigu baita're, "Larre" k izen alkartuetan bere azkeneko "E" ori errez galtzen duala, batez ere bigarren itza izki "lagunbeardun" edo konsonantez asten ba'da. "Larburu" adibidez.

Mitxelena'k abizen onen "lar" aurrizkia "larre" ez baiña "lar", gaztelerazko "zarza" dala dio. Oker dabil. Larburu'z gaiñera Larraburu: ere bai bait dugu Euskalerrian. Eta Larbide ta Larrabide; Larrategi, Larretegi (Laburdin) eta Lartegi... Orrela, "LAR" ez eta "LARRE" z bikoiztutako abizenak nai aiña aurkitu daitezke. Larra, sasia, garrantzi gutxiko gauza da Euskalerrian "aitorren semeen sortetxe" edo "casas solariegas" izateko eraikiak izan diran gure baserriei izan eman aal izateko. Ez ala "larrea" itza, larrea garrantzirik aundieneko gauza bait zan nekazari baiño leenago artzai izan ziran euskaldunentzat!

Orregaitik, LAR aurrizkiz asten diran abizenak, ez danak baiña bai geienak, "lar" ez baiña "larre" dute oiñarri-izen. Batez ere, aipatu ditugunak bezala "lar" ez asten diranen alboan "larre" z asten dan, beste aien kidekorik baldin ba'da.

Zer ote dugu ba Oka mendietan IX mendeko LARTXEDERRA ura? Betizuentzako larre-tokia zala, ezbairik gabeko gauza da. Larrukiak berak adierazten bait digu ori, larre artako belarraren erabilketa ere Felize Deunaren lekaidetxeko beiei ematen zitzaie la esanez.

"Larraki" abizena badugu gaur-egun gure artean. "KI", atzizki toki-adierazlea dala dio Kerexeta'k. Ez dut uste gure toki-izen otan ori danik. Ona zergaitik:

Antziñako lumalari aiek "I" izkia "e" idazten zuten. "KI", ordea, gauza bat zertaz egiña dagoan adierazten duan atzizkia ere bai bait da.

Gure larrukiko "Larkederra" edo "Larkiderra" ura, basa-beiak azitzen ziran tokia zan, eta beiek, ongi azitzeko, larki ederra bear dute: belar goxo ugari.

—Oroi antziñate artan "TX" izki-bikotea "K" agoskatzen zutela, eta, esan dugun bezala, "I" adierazteko, oso maiz, "E" idazten zutela; eta, orregaitik segu-ruaski, LARKI EDERRA izeneko basabei-toki aren izena LARCHEDERRA idatzi zigula idazle zaar arek.

"Science fiction"? Baleike. Ea zuk azalpen obeago bat ematen diguzun.

MUSCHELLI— Oroi, berriro, "CH" ori "K" dala, "L" berriz "LL" ori, eta ortaz, toki-izen ori, MUSKELI agoskatu bear dugula.

Euskaldun itza? Naitanaiez! Ez bait da latera. Ez bait zitekean IX mendean gaztelera izan. Eta ez bait zan gaiñera orduan Oka Mendietan euskera besterik itzegiten.

Muskaria gaurko Tudela naparraren izena zan. Muskogorri bat bada gaur Laburdi'n. Baita Muskor, Muskar, Muskes eta Muskiz ere Nafarroa'n. Eta Donibane Muskiz'ko bat Bizkaï'n.

"Musk" aurrizkia orrenbeste aldiz agertzen zaigun ezker, ezin esango dugu noski 869'garren urteko Muskeli ura toki-izen euskalduna ez zanik. "Musk" orrek zer esan dezakean?

Berriro alperrik joango gera erantzun-billa Mitxelena'rengana. Mitxelena'k zailla dan gauzarik ez bait du aipatu ere egiten.

Lopez Mendizabal'dar Isaka langille jakintsu tolosar maitagarria bai, saiatu zan beintzat erantzun orí billatzen.

"Musk"en aurreko "M" ori protetikoa dala dio, edergaillu utsa. "Uska" edo "uske" eta "usa", "goi-mendietako larre" dirala. "Li" atzizkia berriz, toki-adierazle bat.

Ortaz, Oka mendietako Muscheli ura, —"m+uske+li"—, LARREGARITZ, izango litzauguke.

Egia ote? Baleike. "Li", "RI" bezala, "DI"ren aldakuntza izan bait daiteke: ("piñudi"-piñeri").

Aro zaar artan "1" esan eta "e" idatzi egiten zutelako, ez litzake arauz-kanpoko gauza izango, "Muschelli" ori guk Muskili irakurri bear izatea. Era ortara, MUSKILI ura, eta gure gaurko MUSKITZ, itz bat berbera izango lirake.

"Uski", "Uzki" erderaz "grama" eta euskeraz "aski" ere esaten zaion belarra dugu, Lopez Mendizabal'dar Isaka'ren ustez. MUSKILI eta MUSKIZ beraz, erderaz "gramal" eta euskeraz "askibelar edo uskibelartokia", ots, "ASKITZA" edo "Uskitza".

RIPAOTA—. "Ripa" erreka-ertza dala badakigu. Euskeraz, "ibarra". Baita zer dan "ota" ere; gazteleraz, "argoma", Araba'ko erderan izan ezik. Arabarrek, erderaz ari diranean, beti-beti "otaka" esaten bai diote gure mendietan ain ugari dan lar orri.

"O"z eta "E"z amaitzen diran itzak, izen alkartuetara sartzean, "o" eta "e" aiek, maiz, "a" biurtzen dituzte: "astaburu", "garagorri", "artasoro", "otalore", "urdelar", "lorategi", "erlauntz", eta abar.

"Ota" duten abizenak eta toki-izenak aneika ditugu gure lurralde ontan: Otamendi, Otazu, Otago, Otaitz, Otatxe, Otagorrieta...

Zerbait esan nai nuke azken-aipatutako bi izen oietaz:

"Otatxe" ez da "ota-etxe", "otaitze" baizik. "TX" ori "TZ" goxatua besterik ez bait da. Jakiña da ba, euskeraz, izki gogorrak goxatzea naikoa dala, itz gogor oiek daramazkiten itzak "diminutivo" edo "era ttipigarrian" ipintzeko: adibidez, otza, otxa; zakurra, txakurra; katua, kattua; musua, muxua; tantoa, tanttoa, otsoa, otxoa, aia, umetxoei ematen zaien aia, aya; makila, makilla; ninfa, ñiñia; dilinda, ddilindda.

Barkatu eidazu, irakurle, azkeneko "ddilindda" orrek burura dakardan gertakizun bat emen gogoratzea.

Ondo jakiña da "batustanoek" "Y" izkiari dioten gorroto eroa. Euskalerrri guztiak ordea, "yayoa" esaten bait du "y" ori argi agoskatuz, "y" gaixo ori ere amorruez eriotzera galdu naiez, Mitxelena'k, Bergara'n Euskaltzaindiak egindako Bartzar zaratatsu artan, ikasgelako olbetz batean, zutituta "yayoa" "ddaddo" esan bear dala esanez, izki aundiz "DDADDOA" idatzi zigun; eta itza bikoiztatuz, "DDADDODDADDOA". Ez al da parregarria?

Gaiñera, ez noski Mitxelena bezala euskaldun berria dan batentzat, baiñan bai betidandik euskalduna izan geranontzat, zearo ez-berdiñak dira "Y"ren eta "DD"ren doñuak.

Itzuli gaitezen ordea mozturik utzi dugun gure arira:

Aipatutako "Otagorri" ez da "margo-gorridun-ote-tokia", "otea-besterik ezduan-tokia" baizik. Era berean, goraxeagoko "Garagorri" ura ere, ez da gorriz-margoztutako-garo-tokia", "arras-toki-garatsua" baizik.

Toki-izenetan, "gorri" itza, ez da fa beiñere margo baten izena. Oituraz kanpo-ko ugaritasunaren adierazlea da (Arrigorri, Arrigorriaga). Baita bakartasunarena ere. "Arrigorri", "lugar de solo piederas" edo "lugar de pura piedra", biurtu daiteke gaztelera.

"Larre gorrian eperra" esanaz asten da Benaparroa'ko maitasun-abesti bat. Ez du esan nai "eperra gorritz margoztutako larrean" zebilenik. Eperra ebillen larrea, larre besterik ez zala adierazi nai du. Ez zuala zugaitzik, ez zuala aitzik eta arri geiegirik; larrean azitzen dan belar txiki zailla besterik ez zuala.

Eguneroko izketan ere badu "gorri" itzak orrelako zentzu berezia: "negu gorrian gaude"; "aste gorrian ere jai egiten du orrek". "Ez-bear gorrian aurkitzen da". "Neke gorriak jasan bear izan ditu"...

Bir-itzul gaitzen ordea, berriro mozturik utzi dugun arira. Larrukiko RIPAOTA zer ote zan? OTIBAR, nere ustez. Edo, atsegiñago ba'zaizu OTARIBAR, "R" eufoniko edo doiñu-goxagarriarekin.

Larrukiak "ibar", "ote"ren aurretik ipinzen duala? Bai noski. Lateraz idatzia bait dago. Zergaitik lumalari zaar ark itz alkartuaren erdia bakarrik..., ots, zergaitik "ibar" bakarrik, lateratu zuan? Eta zergaitik utzi zuan itzaren beste erdia dan "ota" lateratu gabe?

Itz ori lateraz nola esaten zan ez zekialako, bearbada. Gure lumalaria, eskierki, Okamendi'ko lekaidetxe artako lekaide bat zan. Erdiari "garaieko" lekaide aiek ordea, ez ziran geien-geienak kulturazko gizonak izaten; ez ziran apaizak izaten; kristau arruntak izaten ziran: nekazariak, artzaiak, esku-langilleak. Beren jakintza guztia, otoitzerako buruz ikasten zituzten salmoek osotzen zuten. Lateraz, "garoa", "filix" esaten da; baiñan baleike ori Okamendi'ko lekaide ark jakin ez izatea.

ARBORE—. "Zugaitza" da. Ez ordea nolanaiko zugaitza. Muga-adierazle bateko bereiziki koskatutako zugaitza baizik. "Arbor comparato" esaten bait du gure larrukiak. "Comparato" orrek "prestatuta" esan nai du. Mugagaillu izateko era egokian aukeratua eta gertutua.

Badirau oraindik gure artean mugarren ordez, mugazugaitzak erabiltzeko oitura. Mendietan batez ere. Eta geienetan zugaitz oiek urkiak izaten dira. Euskalerrian muga-zugaitzik aipatuena, gaur Araba'koa dan Luiando'n zegoan malato izeneko zugaitza da: "Arbola Mallatua": "Arbor Mallatus" lateraz. Gudatekoan, zugaitz artaraiño bakarrik zeuden Bizkai'ko gudariak joatera bearturik. Andik aurrera, nai zuana bakarrik joaten zan, eta diru-truke.

Orregaitik, Gernika'ko Aritzaren ondorean, Luiando'ko Zugaitz Mallatua izango da eusko-zugaitzetan ospetsuena.

GALLAFAZA—. Badantzut, irakurle, zure abots asarrea, itz ori ezin daitekela euskalduna izan, deadarka. Euskalduna ez bada, zer izan daitekeala uste dezuba, apalki galde egingo dizut nik.

Ez da latera. Ez da gaztelera. Izan ere, orduan iñork gaztelera bat iñoiz sortu zitekeanik pentsatu ere egiten ez zualako, ezin izan zitekean gaztelera. Ez da arabiera. Izan zitekean arabiera, euskotar-arabitarren auzotasunaren aldetik; ez ordea bi errialde aien arteko giza-giroaren aldetik. Eta, ez da arabiera.

Egoaldera, arabitarrek ez zeuden orduan, ez orixe, Oka mendietatik urruti. Euskalerrriaren muga-muga bait ziran Oka mendiak. Mugaz bestalde, Arabitarrek. Euskaldunek ordea, an gure egoaldearen sarkaldean, ez zuten arabitarrekin arremanik, borroka odoltsuetan alkar-jotzeko ez ba'zan.

Denbora aietako edestilari arabitarrek esaten digutenez, urtero-urtero sartzen ziran udaz arabitarrek Bruxula'ko mendatea-zear Euskalerrira; baiña, dirudianez, ez ziran eskubira ta ezkerrera geigi zabaltzera, bildurrez ausartzen. Laisterka egindako sartu-atera azkarrak izaten ziran aiek.

Bureba'ko zelaiean izaten zituzten arabitarrek, alde artan Euskalerraren zaindari ziran arabarrek borroka latzak; Geienetan Pankorbo ("Ponte Corvo", "Zubioker"?) zeritzan arrarteraño iristen ziran, baita noizbeinka Ibero ibaiaren ertzeteraño ere, eta bein Gazteiz'tik amabost kilometrora dagoan Arganzoin'go arrartera ere iritxi ziran. Baiña, beti, ederki jipoiturik atzerantz ostera Bruxula'ko mendatea bir-igarotzera beartuak izaten ziran. Ez bide ziran nolaniakoak jasotzen zituzten jipoiak. Ikus:

Argantzoin'go artan, Kordoba'ko Emir Nagusiaren anaia bera zuten buruzagi. Gaur Miranda esaten zaion urian gelditu zan. Eta Argantzoin'en bere gudaroztearen ondamenaz jabetu zanean, samintasunez II zan gizagaixoa.

Danadala, egoaldeko euskaldun aiek ez zieten bildur aundirik arabitarrei. Ori adierazten digu beintzat, an, muga-muga-mugan, Okamendi'ko lekaide aiek euren lekaidetxean lasai-lasai bizi zirala, larruki zaar auen bidez jakian aal iza-teak.

Euskalduna dugu beraz Oka mendietako Gallafaza ura, naiz larrukian oso era baldarrean idatzia agertu. Asi gaitezen, bere zentzua ulertzeko azterketatxo apur bat egiten:

Bere "ZA" atzizkia, euskarazko "TZA" atzizkia bera dala dirudi. "Gallafatza" dugu beraz izen ori. Zer ote da "galla"?

Orrela asten diran izenak ugari ditugu. Bizkai'n batez ere: Gallastegi, Gallaga, Gallargakogorta (Sodupe'n), Gallarta... Baiña baita Gipuzkoa'n ere: Gallarri Berri (Azpeiti'n); eta Naparroa'n, Ganarte (Abaigar'en). Eta Laburdi'n; Gallaret: (abizena eta baserri baten izena).

Bearbada, laterazko "LL" ori "L" irakurri bear dala oroitaraziko didazu. Bai noski. Bañan badira "galar"ez asten diran izenak ere; eta ugariagoak gañera: Galar, (Naparroa'n erri bat), Galarza, Galarraga, Galarte, Gatada...

Izen guzti oien aurre-izki dan "gallar" edo "galar" orrek bi gauza esan nai ditu: 1.^a: Landatua dagoan tokian bertan zutirik dagoan zugaitzari igartuko adarra; 2.a: lur-zuluetan egindako gaztain-egur-ikatza.

Larrukiko "Gallafatza"k erdian daramakian "F" ori nere ustez "rr" idatzi nai izan zuan lumalari zarraren utsegite bat dugu, edo, seguruaski, geroago mendean larruki au birridaztean beste lumalari batek lenagoko ark idatziko "rr" gaizki irakurrita "f" biurtuz oartzeke egindako okerkeri bat.

Ortaz, larrukiko Gallafatza "GALLARRATZA" dala esango nuke, aboskeraz "Galarratza"; gure aldi auetako "Gallarreta"ren edo "Galarreta"ren edo "Galarraga"ren kideko toki-izena. Ean-naiez, IKAZTEGIETA.

Mitxelena'k, Mendieta'ri jarraituz, toki-izen eta abizen auetako "galarra" aurre-izkia, "landatua dagoan tokian bertan zugaitzari igartutako adarra" dala dio. Orrela ba'litz, izen guzti oien zentzua, "landaturik dagoan tokian bertan zugaitzari igartutako adarra dagoan lekua" izango litzake. Oker dabillega derizkiot. "Orrela igartutako adar" ori, gauza ezerezegia bait da orrenbeste izen eta toki-izenen oiñarri izateko.

Orregaitik, nere usteari eldurik diraut: "Galafatza", "Galarraga" dala esanaz alegia. Zentzuz, "Ikaztegieta".

Alare badut nere-baitan kezka bat: "Galar" itza, bere bi zentzuekin, Goi eta Bee Naparroa'ko euskeraren itza dala, alegia: "baskoien" itza. Oka mendietako euskaldun aiek ordea, ez zirala baskoiak, autrigoiak baizik. Gaur-egun euskalki bakar baten altxoan bizi zaizkigun itz asko, euskera guztira aldurik ote zeuden antziña artan?


Danadala, azturik utzi bear ez dugun gauza da, Lopez Mendizabal'ek dionez, "allar" (eta euskaldunen ezpaiñetan ain erreza dan aldakuntzaren ondorioz) "alar", guk "txillar" esaten diogun basa-landarea dala. Eta, orrela, "Galafaza", "G" apaingarri bat aurrizki duala, "Allarratza" izango litzakela; eta bi izen orren zentzuz, TXILLARDEGI.

FORNERO—, -"In fornero una bacariza"-, autrigoi aien ezpaiñetan "Fornero" "LABETEGI" zala esango nizueke nik; "labe", lateraz "fornus" bait da. "Fornero", naiz latera zarrean "labelari" izan, erdiaroko lateraz "fornero" esaten zitzaion labetokiari , gaur bertan gazteleraz, Basauri'n antziña Kareaga deiten zitzaion auzoari gaur Kalero esaten dioten bezala. Ain zuzen, Kareaga zan seguruaski Oka mendietako "Fornero" ura ere, guk karobi eta napparrek, laterazko "calcium" euskal-itxuraz jantziz, "galtziñobi" esaten dioten kare-ogea.

Larruki zarretan agertzen da, "Fornero" orren antzeko izen bat "Kareaga"ren itzulpena eskierki, al zuten guztian jotzen bait zuten lumalari aiek, izen euskaldunak lateraz itzultzera. Izen ori, gaur Hornillos esaten zaion erri arabar ezabatua-ren izena da, Fornello ta Forniello agertzen zaigu Kukulla'ko Burni-Barren Larrukian, 1025'garren urtean, eta Forniellu Leire'ko XI eta XII mendeko bi dokumentuetan.

Baiña gaurkoz aski izango dugu-ta, datorren zenbakian jarraituko dugu.

Latiegi'tar Bixente





EUZKERAREN BEAÑA

Enurarik gabe gure Efi'ak eztu, bizi al-izateko, euzkera baño beaf aundiagorik; ezinbestekoa zayo euzkera, bizidunak aldea bezela. Euzkeraren betean bizi da Euzkal-Efia, barnetik eta lekoretik euzkeraz inguraturik, euzkeran bertan bizi dala esango genuke, zentzundunak eguratsean bizi diran lez.

Oro da euzkera gure E i'arentzat; berak eman dio izena: Euzkal-Efia, ots, Euzkeraren Efia; berdin Efi'aren semeari: Euzkalduna, euzkera mintzatzen, euzkera duen gizona; ta euzkera erabili beaf Efi'ari dagokion guztia adierazteko: euzkal-bizia, euzkal-gogoa, euzkal-oitura, euzkal-asmaoa, euzkal-edestia, ta abaf eta abaf, euzkeraren bidez beti, eztago ortarako beste biderik. Ezpaitakoa dugu, beraz, euzkera, bizi al-izateko, Efia bereziki bizi al-izateko.

Edonork argi ikus dezaken beafa da euzkera gure Efi'aren bizirako. Eztakigu nundik eta noiz etofi ziran euzkaldunak gure lu ontara, nunbaitetik eldu baziran; ala noiz eta nola asi zan Euzkal-Efia bizi-izaten emen, gure alderdi ontan. Baña oneraño eldu ala emen sortu, euzkeraz ari-izan ziran gure lenengo asabak bizi zirala adierazten, euzkeraz oldozten, euzkeraz mintzatzen, euzkeraz alkafi deiegiten eta alkafi itzegiten; beren burua ta inguruan zegoen guztia euzkeraz izendatzen, oro zer eta nolakoa zan azaltzen.

Ofela, sendiko guztiek alkafi buruz nortzuk ziran erakusten, jateko aurkitu zuten guztia deitzeko, ezagutu zituzten abere, egazti, afain eta mamutzak zeintzuk eta nolakoak ziran jakin-erazteko; orobat landare eta belaf-mota guztiak, berebat mendiak, aranak, ibayak, aitzak, bideak, bizi-lekuak eta lufaren azpegi guztiak ere. Eta gure egunetan be gure Efi'ko toki goyenen izenak euzkeraz eza-gutzen ditugularik, ofela ikusten dugu argi euzkaldunak izan zirala lu ontan bizi-izan ziran lenengo gizonak.

Eta esandako guztia egi-egia dala oarturik, nola eztugu aitortu beaf euzkaldunak Efi bat osotzen dutela?; ofa ukatu zein diteken egi borobifa; ta Efia geranezkerero, ara Euzkal-Efia lufaren gañean dagoen biziduna, bizi dalako, berez Efi biziduna dala; ta, noski, berez bizi dalako, bera dan bezela bizi-izateko berarena dan eskubide osoa. Edestian barna beste izenakaz ere oaferazi nai-izan da mende-mende: karistioak, autrignonak, beronesak, kantabroak, englandafak, parantziafak, españafak, azken iru auek indafez jafita; baña guztiak euzkaldunak izan ez diranen aldetik ipiñita; eta bitartean euzkaldunak, euzkerarenak izan da beti iraun al-izan duena, ta beafa zanez, orixe euzkaldunak berak emanda izan dalako.

Ortxe dugu euzkeraren inda a, guzien ganetik bizi al-izan dalako, ta gure egun auetan ere ofela bizi dalako. Alakotz, ortxe ikus dezakegu gure izkuntzaren indafa ta, bide batez, bera dan gure beafa, ezinbestekoa zaiguna. Nola ez dugun maite beaf gure mintzoera, gure Efi'aren bizian barna ta bizi ofentzat duen gafantzia, of ere aundia dala ikustean. Besterik begiratu gabe, ofezaz oldoztea naikoa ta geyago be izan beaf-izango litzake gure izkuntza begien ninfak bezela

geron aldetik zaintzeko, gure euzkal-bizia euzkeraz bereziki egiña dala oartzean. A tzekoa da, benetan, arazo au euzkaldun guztien aldetik o ela ez ikustea, ta euzkeraren alde bipilki ez yarduteko. Zoritxa ez askoren aldetik guzti o i buruz ajolik ez dagoela ikusi beat dugu, ta guretzat ori guztiz ulerkaizta bezela begiratu bea .

Gaur arte ta gure aldi auetan ere, esandakoan ikus dezakegu gure izkuntza ta gure E i oni buruz izan dan eta orain dagoen egi utsa. Baña gerorako, zer?, guzia berdin ja aituko al da?, gure egunetako ororena dan bizi be iak ez al du, neu i aundiagoz ala txikiagoz, gure-gurea dana aldatuko?; noski, beste jakerak sortzen ari zaizkigu ta besteak ere sortuko dirala sumatu dezakegu. Nola eragingo dute gure E i'aren bizian eta gure izkuntzan?; kezkatu ari gera geron aldetik o i buruz oldozten, eta ba-gera bildu bien kalterako izan ditezkeela ustean. Ofela dala ta, geron aldetik ezin geldirik geratu ta beti ari bea -izango dugu gure E i'aren biziari ta gure euzkerari eusteko gerturik; ori guretzat eginbidea izan bea , iñola ere ufuñatzekoa ez dan eginbidea, ta bera betetzeko geron indaf guzietaz yarduteko eten gabe lanegitez naimena guregan indartzeko.

Asmo ortaz bidezkoa dala deritzaigu geroko E i'aren eta izkuntzaren bizia nola izan ditekera atemateko begiratzeta. Auzi aundia dugu, ziñez, o ezaz daukagun ebazkizuna ta ben-benetako kinkan ja ita dagoela aitortu bea ; orlan izan edo ez izan gertatzeko dagoelako; orixe da ongi ta argi ikusi bea duguna, eztago ebazkizun aundiagorik guregan eta euzkaldun guzieren aldetik o ela dala oa bea dugu bere osotasunean eta zeatzez be. Egitan gure E ia ta gure izkuntza maite baditugu, ezinbestekoa izan bea euzkaldun bat ere ebazkizuna ondo ikusi gabe izatea, ta ondorioz o en alde bere almen guzia lanean ja i barik uztea.

Ontan guziok bat izan gaitez, ongi aztertu bea dugu oraingo ta gerorako geron ebazkizuna, ororena, gure E i'arena dana. Era batean edo bestean, gure E i'aren bizia guziok biotz-biotzetik begiratzen dugu, bizi o i eusteko ta guztiz indarturik ikusteko nayaz. Ori gure artean ororen guraria, guztion yorana. Oso ona izango litzake auzia guztiok berdin ikustea, bai ta guztiontzako bidea berbera artzea. Eziña edo da o elako batasuna gure artean lortzea, baña alegiñak egin bea ditugu guztien asmoak alkartzeko eraz erabiltzeko. Elburu ori ontzat arturik, goazen gure aldetik ebazkizuna nola begiratzen dugun azaltzera; apika, ebazkizunerako nolabait onuratsua izango da, ta o ela izan dedifa barne-barnetik nai dugu benetan.

Geroari buruz begiratu bea dugu, batez ere gure E i'aren eta izkuntzarentzat burutuko dana edo egin nai dana.

Gure E i'aren gerokoa ta gure izkuntzarena guztiz alkaturik dagoz eta o ela begiratu bea ditugu. Nola ikus ditzakegu geroko oyeke? Onela nire ustez: Asko mintzatzen da E i'aren azkatasunaz eta bere buru-jabetasunaz; nola ulertu bea ditugu bi elburu oyeke? E iketari dagokion azkatasuna nai dugu, noski, ta ez nai baka ik, bea -bea a zaigu E i'aren gogo-azkatasuna lortzeko, ortarako ezinbesteko bidea izango zaigulako; baña eziña da guretzat e ikerari buruzko azkatasuna naikotzat artzea, ori beti guretzat bidea izan beaf bereziki. Alakotz, egiatzko gure buru-jabetasuna gogo-azkatasunean izango dugu baka ik, eta o ela begiratu bea dugu gure ebazkizuna, baitezpadako zaigu o ela ikusi ta begiratzeta.

Eta noiz eta nola ukan dezake gure E i'ak bere gogo-azkatasuna?; ona emen erantzuna: Gure E i'aren bazte guztietan bertan bizi-izango diran euzkaldun guziek, guzitarako beren oldozpenak, berez, euzkeraz egingo dituztenean; o ela ikusi bea dugu gure elburu nagusia, nal ta nai ez, orduan baka ik esan al-izango du gure E i'ak azke dala. Jakiña, ori lortzeko, e iketa-azkatasuna zaigu bea -bea a, orixe izango baitzaigu gogoarena burutu al-izateko.

Len ere esan dudanez, gaurko ontan guziok erderaz oldozten dugu, ori bea a zaigularik, ta ona emen zergatik zaigun bea a: Geuk ikasi dugun guztia erderaz ikasteko bea a izan zaigu, irakaskintza guzia erderaz eratu ta erabilia izan dala-

ko; irakaskintza ori o ela egitean erdal-gogoa geron baitan nagusi ja i zaigu, gure gogoa beraren pean ipintzeko, bere jopu izateko. Ta orixe da gaurko gure egokera, erderaren jopu izatea.

Ta zer egin bea dugu joputasun ortatik ateratzeko?, zer gure gogo-azkatasuna lortzeko?; eztago bide baka a baño, gurean irakaskintza guzia euzkeraz antolatu ta euzkeraz egin, eta ori e iketa-azkatasunaz baka ik burutu al-izango dugu. Argi dago, beraz, zer egin bea dugun: e iketa-azkatasuna lortu ta gero ori beste guzizako bide egokia bezela erabili.

Ezta esan bea guzi ori nolako zafa dan guretzat orain eta nolako u utian zai-gula. Baña elburua argi ikusi ta ja i ezker, bertaruntz zuzendu bea ditugu gure ufats guztiak, eta ortarako euzkera gure izkuntza erabiltzea ezinbestea zaigulako, ortxe agertzen da, besterik esan gabe, guretzat eta E i'aren bizirako, euzkeraren beafa.

Argi ta garbi da ori guzizantz; o engatik gaur bertan asi ta ekin bea dugu guziok euzkera ondo jakiteko ta zabal erabiltzeko lanean; euzkaldunontzat gure bizi guzizako lana izango da ta orlan ikusiko da guzian eta bakoitzaren euzko-abertzaletasuna; ona emen guzizantzako eragile ta igikofa, eztago besterik, Arana-Goiti'ta Sabin'ek ain egokiro erakutsi zigunez.

U estarazu'ta Andoni

ROSA MIREN PAGOLA EUSKALTZAIN URGAZLE

Euskaltzaindiko azken batzarrean urgazle barriak aukeratu ziran. Euren artean ROSA MIREN PAGOLA, naparra.

Eta Rosa Miren Pagola, naparra, bizkaieraren ardura eta kezkatu agertu da. Bere itzak dira:

"Bizkaian bertako izkelgiaren atzeratasun nabarmena igarten da, nortasun geien eta euskaldunik geienak itz egiten duten izkelgia ain zuzen.

Eta atzerapen onen errua, zuberotar eta bizkaitarra baztertuaz, erdialdeko izkelgiak baturako eratzean dago".

Txaloak eta zorionak. Eta pentsabide orrek burutu daizala zure alegiñak.



IZKERA ETA EZIKETA (Julene Azpeitia'ren omenez)

INTXAURRONDO'KO PEDROTXO

Erdiko kalean umetxo baseritar bat negarrez, blusatxo bat soñean eta trapuzko sakelatxo batean ogi zati bat docenerdi intraurrekin. Uraxe izango zan bere eguerdiko bazkaria. Bere aurrean gizon bizardun bat orruka:

Qué te pasa?

Mal agiñean.

Bere maixuaren aurpegia eremuetako leoia iruditu zitzaion. Gorputz osoa dardar. Urreratu nintzan bikote aiengana:

Soy el médico nuevo. Me llamo Ales Zurikaldai. Este niño está enfermo...?

Este niño es un problema. Soy su maestro y me llamo Pantaleón Cebollos.

Tanto gusto. Esan nion eskua emanaz.

Es imposible hacer carrera con estos aldeanos. Razón tenía mi difunto padre (que en gloria esté) cuando decía: Al aldeano y al gorrión, perdigón.

Ago zabal ura iriki zuanean parre egiteko, nikotinaz betetako ortzak erakuzten zizkidan. Errepublikak sortu berria zan eta aldaketa arekin maixu erdaldun errepublikano zenbait kokatu zan euskaldunen artean.

Umearengana urbildu nintzan:

Zer dexu, umetxo?

Agiñeko miña.

Begiratu nion ago-zapaira eta, agin eta ortz, zortzi ale falta zitun.

Don Pantaleón, permita que me haga cargo del niño. Parece en estado febril.

—Sí, sí. Ya se lo puede llevar. Uno menos.

Artu umea eta nerekin eraman nuen etxeruntz:

Zer dezu izena?

Pedrotxo esaten didate; baiña ni Pedro naiz.

Urrutian bizi al zera?

Bai, jauna, ordubeteko bidean, Intxaurren baserrian.

Alkarrekin joango gera.

Zalgurdia prestatu nuen eta, muiñorik muiño, ekin genion Intxaurren aldera. Aldapatxoa zegoen eta belardi oparoak. Muiño baten atzetik artalde eder bat agertu zitzaigun begien aurrean.

Ardi oiek gureak dira. Amamak jeisten ditu gaztaiak egiteko.

—Aberatsak zerazte, Pedro...?

Bai jauna. Basoa ere badegu eta belardiak. Larrabeiak ere bai eta asto bat. Gauza asko dira oiek...

—Sei bei ere bai ikuilluan, biantxa bat eta bi zekor.

Beiak, larrabeiak, astoa...

Baita txerri-emea ere zazpi txerrikumekin.

Besterik...?

Mandoa ere bai eta idiak goldan egiteko.

Gaiñera eldu giñanean, itsasoa agertu zan gure oiñetan: amiltegi baten muturrean geuden. Gurdi bidea beruntz eta zearka asi zan eta, sakonean, ondo zaindutako baserri zaar bat agertzen zan:

Orixe da gure etxea.

Izena?

Intxaurrondo, intxaur andi bat aldamenean duelako. Intxaur ederrak ematen ditu udazkenean; eskolara ere eramaten ditut...

Nere zaldiaren irrintzira, Pedroren aita agertu zan etxe-atarian:

Zer du oraingoan...?

Zakar agertu zan. Gizon gordiña eta indartsua; bizarra eta tximia beltzak; bere jazkeran zarpail-antzeko, kirruzko alkora eta prakak eraman arren:

Iges egin al du eskolatik berriro ume ziztril onek...?

—Barkatu, jauna. Erriko mediku berria naiz eta negarrez ikusi det erriko kalean...

Berak nai duanean errez egiten du orrek negar... Zer dek? Zeken aitak semeari. Semeak:

Agiñeko miña...

Ator barrura eta nik aterako diat agin ori, etorri aizen bidetik itzultzeko...

Ume au gaixo dago... Sukarra ere badu...

Aitzakiak onek ugari, eskolatik alde egiteko.

—Izan ezazu kontu: aur au euskalduna izanik eta erderaz jakin ez, erdaldun maixu batek nundik eta nola erakutsiko dio ezer oneri...

Orixe esaten det ba nik: euskerak ez duela ezertako ere balio eta ilko balitz obe danontzat. Erderaz ikasi bear du eta lan orretarako maixu erdalduna onena.

Baiña, jakingaiak erderaz ematen badiote, nola ikasiko du, ezer entenditzen ez badu... Ardoa belarritik ematea bezela dezu...

—Abilidadea duenak ardoa belarritik agora pasako du. Une artan amama eta bere alaba agertu ziran barrutik eta gure eztabaida bertan bera amaitu zan:

Zer dezu, umetxo?

Agiñeko miña, amatxo.

—Orrela eziko dezute zuek umea, kale-señorito ergel baten antzera...

Zeorrek ere geure seme euskalduna erderadun señorito bat biurtu nai dezu.

Eta ondoren neri:

—Eskerrak, jauna, etxera ekartzeagatik. Gaztaitxo bat emango diot.

Ez dezu ezer ekarri bearrik.

—Bai, jauna, bai. Ez legoke ondo ezer gabe etxetik bialtzea...

Ori esanarekin batera etxera sartu eta ardi-gaztai batekin agertu zitzaidan. Eskerrak eman nizkion eta orrenbestez alde egin nien. Etorritako bidetik itzuli nintzan. Pentsakizunak zetorzkidan bata bestearen ondoren, etengabeko errenkada luzean... SUEITE doakabea gure ume euskaldunena: kultura, ezagutzen ez duten mintzaira baten bidetik, ematen dizkie; ez bait da iñun maixu euskaldunik...

Etixeratu nintzanean, etxekoandreari baserri aren berri ote zekien galdetu nion... Baietz, ezagutzen zitula. Oitura zaarrekoak zirala; atzeratu xamarrak, baiña jende zintzoa. Berrikuntzarik ez zutela onartzen... Orretzek arritu nindun geien: bat-batean aurrerakoi biurtu ote ziran, ba...? Ala, gizaldietan zear, mintzairari buruz, daramagun diskriminazioak eragite ote zien beuren semeak erdalduntuta

ikusteko gogo bizi artara...? Ainbeste eragozpen, ainbeste irri eta parre euren bizkarretik, euskaldun utsak zirelako...!

Dana dala eta dena den, Intxaurrondo baserria eta Pedrotxo bere kimuak burutik alde egin zidaten.

Errira etorri-berria nintzen, etxebizitza jantzi gabe neukan, bezeroak oraindik ezagutzeko, agintariek arremanetan jarri bear... Orrelako ainbat arazoekin burua neukan zearo beteta.

Andik illebate batzuetara, arbi-loratan, topo egin nuen berriro mutikoarekin. Negar edo negar-itxurak egiten orain ere. Bere inguruan beste baserritar eskolagunak. Gerturatu nintzaien:

Zer dezu, Pedro?

Tripetako miña.

Bekokia bero zeukan eta biotz-taupadak arin. Mutiko aien bitartez mezua bialdu nion Don Pantaleoneri, nerekin neramala Pedrotxo bere etxera, sukarrakin zengoelako. Aita basoan eta ama agertu zitzaigun atarira:

—Berriro badator berori...?

Kalean arkitu det negarrez.

Zenbat endredo...

—Gaixo daukazute.

Bai, jauna, elgorriak arrapatu zuen.

Eta, zergaitik ez didazute otsik egin?

Badaki ba, jauna, endredorik ez ematearren... Kaletik urrun bizi gera-ta...

—Sendagilleak orretarako dira.

Mendian bildutako sendagaiak izaten ditugu etxean...

Ori ondo dago; baiña sendagillearen laguntza ere eskatu kezkarik gabe. Orretarakoxe gaude. Zer gertatu da?

Sendatu gabe bialdu degu eskolara; bai ba, aitak nai du onek erderaz ikastea gauza guztien gaiñetik.

Erderaz ikastea ondo dago; ez ordea gauza guztien gaiñetik... Lenago da osasuna.

Ba, osasunez naastuta dabilkigu. Don Pantaleoneri badio deabruari baiño bildur geiago. Nik uste, ortik sortzen zaizkiola beste oker guztiak.

Baliteke. Ume euskaldunek, maixu erdaldun baten aurrean, jaso bear duten presioa eta zama izugarria da.

—Kontuak atera, jauna: Pedrotxo goizero eskolara kafe utsakin joaten da, beste ezertxorik artzeke.

Oso gutxi da. Ez da ezer kafe utsa, nerbioak astintzeko besterik.

Ba, zintzurretik ez ornen zaio besterik pasatzen...

Eta, bazkaria?

—Garaiko frutaren bat eta, besterik ezean, intxaur batzuek ogi zati batekin.

Ogi zati bat eta intxaurrak?

Ogi zatia, jauna; gaiñeko gozoa kale-umeentzako izan oi da geienetan...

Zeredozer egin bearko degu ume onekin...

—Arratsaldean, neguan gauez, eskolatik etxeratzen da eta orduantxe etortzen zaigu umetxoa bere onera, astun ori amaitzean... Orduantxe jaten ditu arrautzak eta aragi-xerra.

Erdal-eskola orrek ondatuko dio osasuna betirako.

Asto baten pare jartzen zaigu alta, arazoa aitatzean: berak soldaduzkan jasotako sufrimentuak eta nekeak ez ornen dizkio opa bere semeari eta orretzek betetzen dio biotza gogorkeriz bere semearekiko.

Orren besteraiño...!

Bai, jauna; kosta ala nai du bere semeak erderaz ikastea, naiz-eta euskera galduko balu ere. Orretarako maixu erdalduna, ohea.

—Gauzak ez dira orrela; baiña zure senarrarekin alperrik da eztabaidan astea. Ez du besterik ikusten. Alaz ere konprenitu bearko luke erdera bera ere umeak errezaigo ikasiko lukela, berak aditzen duen izkera baten bidez.

Beretzat ordea euskerak ez du ezertako balio eta euskera galtzerik ez dio bate penarik ematen.

Bitartean aita basotik etorria zan eta gure alkar-izketako azken berbak entzun ditu. Onela dio:

—Iko balitz, obe.

Euskaldunek bere kultura zaarra euskeraz gorde dute eta euskera da Europako izkuntzarik zaarrena... Eta, ezertarako balioko ez balu ere, geurea da eta geurea dalako maite degu, amatxo zaarra maite degun bezala, elbarri geldituta ere... Etorriko da garaia edozertarako balioko diguna eta orduan, euskaldun iza-teak, balio berri bat emango digu...

Baiña, erdera ohea da.

Erdera ere bear degu; nik ez dizut ori ukatzen; ikasteko biderik onena, ordea, ez da erdal-eskolara bialtzea, euskal-ikastolara baizik.

Gure mutillak ez du ezer ikasten.

Ikasiko du, euskeraren bitartez erakutsiko diotenean; orduan, bai. Nik zuri, semea nola zaindu bear dezun, erderaz edo latinez esaten badizut, ez didazu tutik entendituko.

Bai, ori ere ala da.

Zurekin euskeraz ari naiz eta zuretzako, nik esandakoak, argi eta garbi dau-de begi-bistan eta zer nai dedan ulertzen didazu...

Bai, bai.

Erderaz ariko banitz, latin eta griegoz berbak naasturik tartean, alperrik izan-go litzake zeuretzat...

Orren beste entenditzen det.

Orixe da zure semeari gertatzen zaiona Don Pantaleonekin: ez diola tutik entenditzen. Bide orretatik nola ikasiko du ezer? Aizkenerako lelotzat utziko dute baztar batean beste guztien parregarri.

—Orixe ez nuke nai. Naiko parregarri gera bestela ere.

Biderik aldatzen ez badezu, azken orretara eramango dezu zeure semea.

—Zer egin?

—Galdera zuurra. Eskola berri bat sortu dute errian Foru Aldundiaren babesean eta zeastasun geiagorekin etorriko nazaizu berriro. Ikastola deritza eskola berri ori eta bertan sartzeko semea, alegindu bear degu...

Intxaurrondo'ko semearen osasunak eskatzen zidan Pedrotxoren alde jokatzeko eta artarako Julene andereñoa nuen biderik onena. Banekien bera zala ikastolaren buru eta ez nolanaikoa: Bizkaiko Foru Aldundien ikastoletan berak lortu bait zuan lenengo mailla.

Jo nuen beregana.

Egun on, andereño.

Baita zuri ere. Nor zaitugu?

—Sendagille berria nauzu.

Urte askotan izan dedilla. Benetan poztutzen naiz zu ezagutzearekin. Julene dut izena eta Azpeitia abizena.

Nereak, berriz, Ales eta Zurikaldai dira.

Eta, zer ekarri zaitu neregana, sendagille jauna?

Ara, Julene, Intxaurrondo baserriko mutikoa erderazko eskolan dabil eta ez du bururik jasutzen.

Orixe berbera gertatzen zaie beste mutiko baserriar askoeri ere. Eskutukiren bat badegu bien bitartean; baiña, zergaitik guraso baserriarrek, geienak beintzat, naiago dute maixu erdalduna bere aurrentzako, euskalduna baiño?

Mutilla galduko da, andik ateratzen ez badegu.

Goxoa jarriko da Don Pantaleon, bere eskola artatik iñor kentzen badiogu... Saiatu bearco degu.

Gurasoek naiko dute bere semea nere ikastolara ekartzea...? Maiteago dute erderazko eskola, euskerazko ikastola baiño. Zenbaiteri euskera galtze berberak ere ez dio buruko miñik ematen, ez biotzeko kezkarik sortzen...

Zu bezelako andereñoak sortuko dira garaian, gauzak bere onera etorriko dira. Gaurko egunez oraindik ori eziñezkoa degu. Orain arte zer izan dute? Eskola-maixuak, udaletxetako sekretarioak, juezak, notarioak, abogatuak... Guztiak dituzu erdaldunak. Iñork ez daki euskeraz. Baserriarra gelditzen da motz oien aurrean. Parregarri.

—Oiek orrela izanik, ez da arritzeko euskerari gorroto izatea eta euren aurrak erdera ikastea naf izatea. Izan ere, orain baserritik kanpora egin bear dituzten arazoetarako, erdera bear dute. Tamalez. Noiz arte?

—Zure ikastola dezu, Julene, garai oberen egunsentia.

—Orixe espero dut.

Bitartean salbatu dezagun baserriko semetxo bat bion artean. Nik alegiñak egingo ditut, etxean bezala, Don Pantaleonen eskolan ere. Arazo oiek konponzen eta korapilloak askatzen saiatuko naiz.

Nik ikastolan artuko dut eta pozik artu ere, naiz eta ikastaroa aurreratuta egon. Berdin zait.

Zoragarri, Julene.

Beste bide zabalago eta errezagoa utzi dut aldamenara, bidetxigor estu onetatik ibiltzeko. Etorrizuna zalantzan; politika aldetik aldaketa bat balego, dana joango litzake ankaz-gora...

—Arrisku ori ere badago.

Alaz ere, nik euskera maíte dut eta euskeraren alde jokatu nai dut zuzenezuzenean nere bizitza osoan, etorriko diran eragozpeneri so egiñik gabe.

Zorionak zuri, Julene, eta eskerrak milla bidar.

Bigaramon goizean Ales Zurikaldai Don Pantaleon Cebolleroserekin alkantzen da eskola "nacional"ean.

Egun on, jauna. Ales naiz, erriko sendagille berria eta orain illebeta batzuek egin nuen zure ezaupidea...

Bai, zeredozer gogoratzen naiz; baiña, burutik alde eginda daukat.

—Umetxo baten arazoak nakar zuregana.

Zer du ba ume orrek? Erantzun zidan zakar erderaz.

Pedro da, Intxaurrondo baserriko semea...

Bo... Itxaropen gabeko mutilla. Kaikua galanta. Sekulan ezer ikasiko ez du.

—Iñuzu aurpegia jartzen du emen kalean...

—Kalean bezala, etxean ere, tonto-aurpegia izango du orrek.

—Orren arrazoa eskolan ote dago?

Nere eskolan? Ez, iñundik ere. Nik argi eta garbi erakusten ditut erakutsi bear diranak. Ederki legoke orrelako ume iñuzu baten neurrian nere eskola ipintzea...! Ori, jauna, injustizi andienetakoa da.

Ez det uste justizi edo zuzentasunaren arazoa danik. Bear bada, ori ere bai. Zuk oso ondo erakutsiko dituzu jakintza-gaiak; baiña, umeak nola jasotzen ditu zure esanak...?

—Orixe esaten det ba nik ere: nik ondo erakusten badet eta eurok ikasi ez,

norena da errua, nerea ala eurna? Buru gutxiko aurra bada, Pedrotxo dan bezala, nik garbi erakustea alperrikako lana da.

—Argi gutxiko mutilla bada, nik ori jakin ez, zuk arrazoi izango dezu...

Zer argi dituen nik esango dizut: ez du bat ere.

Itz auekin zalantzan gelditu naiz, ez bait dakit noraiñoko argiak dituen Intxaurondoko Pedrok. Dana dala, asmo sendo bat artu det: mutillarekin itz-aspertu bat izatea. Don Pantaleoneri onela erantzun diot:

Zure ikuspegitik ez da beste korapillorik ikusten; egon lezake, ordea, beste arazoren bat.

—Zer arazo?

—Umeak ezagutzen ez duen izkuntza batean ematen diozula gaiak eta ori izan liteke mutillaren illuntasuna sortzen duen arazo bat.

—Erderaz jakintza emateak onurak besterik ez ditu: gerorako jakintza-gaien oiñarriak ipintzea, erderaz ikastea beste bat eta korta-usaiña darion linguajea burutik kentzea, irugarren onura. Zertarako du euskera...?

—Baiña, zuk esandako itzak ezagutzen ez baditu aurrak, nundik eta nola ikasiko ditu itz oien bitartez erakusten diozun gaia...? Zu maixu ona eta Pedro mutil argiduna izan da ere, bion artean egon lezake kakra: ez dezutela alkarren artean berba berdiñak erabiltzen eta orduan gertatzen da erderazko esaera ura: diálogo de sordos.

—Nere erakuste-moldetik asko dira erderaz ikasita pasa diranak. Tonto-lapiko orrek ez du sekulan ikasiko.

—Ori ere ala izango da eta Jainkoak daki zer neke dagoen bien bitarte orretan.

—Erderaz ikasten badute, nekea prezio ona da.

—Eta ondoren, euskera gorrotatu.

—Neri orrek ez dit kezkarik ematen, ez bait du euskerak ezertarako bailo eta orixe sartu nai diet buruan lenengo egunetik asita...

Alkarrizketa gaiztotzen zijoan eta zezen-plazatan "cambio de suerte" esaten dana egin diot:

—Don Pantaleon, nik ez det arazo oietan sartu nai. Sendagillea naiz eta sendagille bezala natorkizu Pedroren osasunari buruz mintzatzea.

—Zer gaixotasun du...?

—Kirioetatik dabil gaizki eta giroz aldatzea ona izaten da olakoetan; beste aldetik, berriz, zure eskolatik tonto-lapiko bat kentzea, zuretzat obe...

—Ori ala da. Baiña, problema, arazoa eta korapilloa ez dator erderatik. Bera da ori alakoa, anormala, tonto-utsa, berekoia, gaizki-ezia, ezertarako ez dena... Bera da ori kezka-iturri.

—Eta gurasoak?

—Areago oraindik, ez bait diote umeari jaramonik ere egiten. Laguntzerik, gutxiago oraindik; pentsatu ere ez. Arduragabeak. Aurrak ezitzen dituzte txerrikumeak balira bezala... Ikusiko dezu bai, ikusi: aur orrekin ez dezu burutuko iñundik ere.

Arraiñak amuari eldu dio eta une onetan arrantzaleak egiten dutena egin bear: txikota larga:

—Zuk zedorrek obeto ezagutzen dezu Pedrotxo eta nik ere, sendagille naizen aldetik, baditut nere kezkatxoak eta lagundu nai diot zuretzako eragozpenik ez badakar.

—Nik ez dizut aurra sendatzeko eragozpenik ipiñiko. Ez neuke nai erriaren agoan ibilli, gaixo dagoen aurrari sendabidea ukatu diodalako. Artu eta eraman, iñork artu nai badu, beintzat.

—Sendakuntza erreztoko lkastola berrira eramango det; an euskera erabiltzen dutenez, aurrarentzat errezago izango da...

—Eraman, eraman... A zer irabazia izango duen Pedrorekin eskola kaskar

orrek...! Baimena ematen ez badizut, emendik izango ditut "maestro maketo"ka. Eta bide batez, esango al zenidake zer esan nai duen "maketo" itz orrek?

Maketo Andaluziako izkera izango da; ez bait ditue Srik aoskatzen. Tú pueblo es bueno? Galdetu ziotenean, bere erantzuna auxe izan zan: má que eto más que esto esan bearrean. Má que eto = maketo. Errezago ezin...

Besterik ez da?

Ez det uste.

—Ori besterik ez bada...

Don Pantaleon gelditu zan lasai eta Ales pozik baimena eskuratu zuelako. Maixuak ez zuan gogo onez baimenik eman; baiña seguru zegoen aur orrekin frakaso itzala izango zutela eskola berri artan. Gogo txarrez eta irripar gaiztoz, ezin bait zitaion mutiko arreri probetxurik atera.

Nere lenengo lana Julenerengana joan eta berarekin itz-aspertu bat egin. Don Pantaleonerekin izandako zertzelada guztiak azaldu nizkion:

Poztutzen naiz benetan, Ales, berri auekin. Biotz-biotzetik lagunduko diot baserritar mutiko oneri bere gaitzak menperatzen.

Nere bigarren lana mutilla billatzea izan da. Eskola amaitu danean berarekin topo egin det:

—Kaixo, Pedro. Pedrotxo esaterik ez zazu gustatzen...

Ez, jauna.

Etxera eramango zaitut.

Gurdian?

Bai, zaldi-gurdian.

Gurdi polita da zurea eta ariña; baiña, gure idien gurdia sendoagoa da zurea baiño.

Goazen zalgurdia prestatzera.

Bidean zaldia lasai utzi nuen bere kasa joan zedin. Ez nuen presarik bat ere. Eguna luze, mutilla trankil, itz-aspertu baterako une egokia:

Zure maixuarekin itz egin det.

Don Pantaleonek leoi baten antza du; aren begi beltzak nere musuaren aurrean ikusten ditudanean, nun nagoen ere ez det jakiten.

Bildur ematen al dizu?

Izuak artzen nau eta belaunak dar-dar jartzen zaizkit alkar joka.

Leoiaren antza ematen al du?

—Bizarrakin eta tximiakin leoia, atzapparrekin berriz artza.

—Arengandik libre zera.

—Au poza! Betirako?

—Bai, betirako.

Zorabioak artuta bezala gelditu zait Pedrotxo bere zoriona siñistu eziñik:

—Beti-betirako?

—Beti-betirako.

Eta, ez det geiago arengana joan bearrik...?

Ez dezu joan bearrik.

Oraintxen tripa lasaitu zait.

Mingaiña askatu zaio zearo gure mutikoari:

Baserri ura ikusten dezu?

—Bai.

Ura Paskualene da. Eta, beste ura ikusten?

Bai, ikusten det.

Ura Atxubitetxe da. Beiak, larrabeiak, moxalak eta ardiak dituzte.

—Asko dira.

Bai, baiña guk geien.

Itzulan ibiltzen zera?

Guk bi idi-pare dauzkagu. Txuri eta Pintto nereak dira eta aiekin neu ibiltzen naiz itzulan eta ezagutzen naute. Ibiltzea asko gustatzen zait; beiak zaintzen gel-dirik egotea baiño geiago. Baiña, badakizu zer gustatzen zaiten geien-geiena...?

—Nola jakingo det esaten ez badidazu?

Arrantzan ibiltzea.

—Zer esan nai du arrantzan ibiltzea?

—Ba orixe: arrantzan ibiltzea eta ez geldi egotea.

Txalopa batekin ibiltzen zera kasan?

Nik ez dakit zer dan kasan. Aita eta ni gau-arrantzan ibiltzen gara.

Mutiko, mutiko, gau-arrantza zer da?

—Zuk ez dakizu ezer. Gau-arrantza da gauez arrantzan ibiltzea batetik bestera.

Ni mendi-gizona izanik ez diot ume oneri zertan dabillen antzik ematen. Zeñek esan du Pedrotxo tonto-lapiko bat dala? Bere inguruan gabiltzanok gera lelo eta tonto-xamarrek. Ekin diot berriro:

Baiña, zuek baserritarrak zerazte eta nolatan egiten dezute arrantza misterioso ori?

—Ori ez da arrantza misteriosoa. Aitzeetan egiten da gauez, marea bizietan, illargi berritan batez ere.

—Baiña, zuek baserritarrak zerazte...

Bai orixe; badituugu milla gauza: belardiak eta belardietan belar-metak, mendietan basoak eta larrabeiak, ikuilluan beiak eta idiak, baita biantxa bat, bi txekor eta txerri-eme bat, astoa eta mandoa. Baita konejuak eta oilloak arrautza egin eta jateko...

Eta, gaiñera arrantzan ere egiten dezute?

Bai, jauna. Guk bakarrik ez; inguruko baserri guztiak ere bai.

Pedro, esplikatu egidazu ori ondo.

Ara, jauna: ikuillu-sarreran dauzkagu baserriko aizkora estearekin, aizkora txikia, atxurra, laiak, galbaiak, uztarriak... Eta oien ondoan arrankasixak, kakoak eta karburozko krisaillua. Guztiak errenkadan eta ondo txukun ipiñiak eta gordeak.

Beraz, zuek baserritarrak eta arrantzaleak, dana batera zerazte...?

Baita eiztariak ere pase-garaian: usotan, biregarrotan, oillagorretan, istingorretan... Pasean edo kontrapasean datorrenari ematen diogu pasadea...

Arrituta naukazu, Pedro.

—Baserrietako ume guztiak dakite ori eta kostaldekoek arrantzan ere bai. Goienetako baserriak ez dira arrantzara etortzen; baiña, itsasoaren ertzean daudenak oiek danak dira arrantzale.

Ilberritan dala arrantza esan didazu. Zergaitik?

Ori edozein tontok daki: illargi berritan itsasoa joaten da urrutira marea-beran eta orduan putzuak gelditzen dira eta putzuetan arraiñak preso. Illargiberritan ez dago illargirik eta dana dago illun eta arraiñek ez gaituzte ikusten; guk eurak bai karburozko krisailluakin eta orduan bost ortzeko arrankasixakin, zas! lepotik sartzen diogu bost ortzak eta preso gelditzen da arraiña. Leloenak itxaskabrak dira; oiek ez dira mogitu ere egiten. Errez-errezak dira arrapatzen. Lupiñak eta sarboak, eta bestelako arrain zurixak, oiek ez dira ain errezak.

Zergaitik?

—Zuk golpea botatzean iges egiten dutelako. Baiña, neri aitak nola arrapatu erakutsi dit.

Nola?

Golpea arra bat aurretik bota eta iges egitean zuregana dator zuzen-zunean. Eta zas! preso. Sakura.

Eta, kakoak zertarako dira?

Bi kako-klase dauzkagu: aundienak olagarroak arrapatzeko eta txikienak aitzetako karramarroak zuloetatik ateratzeko.

Olagarroak ez dizu bildurrik ematen?

—Zergaitik? Ez du ezer egiten eta burua bueltatzen badiozu barrutik kanpora, indargabe gelditzen da. Nik indarririk ez det oraindik, baiña nere aitak ainka egiten die bi begien tartean eta seko gelditzen dira ilda.

Nola arrapatzen dira olagarroak?

Ori ere ez dakizu? Olagarroa beti egoten da bere zuloan sartuta: etxetxo bat bezela daukate bakoitzak eta bat arrapatzen dezunean, gero beste bat etortzen da aren etxetxora. Etxetxoan kakoa sartu, eta kanpora, motel. Bat geiago.

—Olagoroen etxetxoa nun dan jakiteko seiñalaren bat izango da?

Izango ezta ba? Zu nongo kristaua zera ori ez jakiteko? Gizonen etxe-bizitzak nundik ezagutzen dira? Etxe-atarian dauden zaborretatik. Jendea bizi dan tokietan zikinkeria dago. Berdin olagarroen etxeetan ere: lapak, karakolak, mejilloiak, karramarroak, nekorak... jaten ditu eta oien guztien azalak an egoten dira bistan etxe-aurrean... Gaiña arnas-egiten duenean ura mogitzen da eta ondarra badago, ondarra ere bai... Baiña, seguruenen beste seiñale bat da.

—Zer seiñale?

—Aitak esan zidan iñori ez esateko.

—Ni ez naiz arrantzara joango...

Baiña, bai beste baten esan. Orrelako gauzak ez dira esan bear etxetik kanpora. Etxekoentzako bakarrik dira. Beste seiñale oiek edozeiñek dakizki...

Gorde bai ondo zuen sekreto-izkutu ori. Olagarroa oso gogorra izaten da jateko. Nere lagun batek arrapatu zuan bein bat eta ezin jan izan genduen, oso gogorra zegoelako...

Kalean ez dakizute ezer. Olagarroa arrapatu ondoren iru egunez lurpean eduki bear da zulo batean, ondu arte; bereala jateko bada, orduan egurrezko maillu batekin ondo jo. Gordetzeko bada, esegi eguzkitan txotxa batzuekin ondo zabalduta.

Eta, olagarro siku orrekin zer egiten da?

Lerro bat naikoa da sopa gozo-gozoa egiteko gure amamak egiten duen bezelakoa. Baita patatakin ere gozoa gelditzen da.

—Eta, beste kako txikia?

Orrekin illedun karramarroak arrapatzen ditugu.

Nola?

—Baiña, gizona, zuk zer dakizu? Karramarro oiek dira fiñenak eta aitzak dituzten zirrituetan gorderik egoten dira. Kakoa sartu eta kakoan sartuta zulotik atera. Itsasoko urakin egosi eta oso gozoak dira...

Etxeratu giñan bien bitartean eta guraso eta amamarekin itz egin ondoren, astelenean Ikastolara eramango nuela neronek esan nien.

Pedrotxok bere etxea izan du benetako eskola nagusia. Zenbat gauza ikasi dituen ezaguerara eldu ordurako...

Erriruntz netorrela ez zitzaidan zertan pentsaturik faltatu. Au al da mutiko tonto-lapikoa? Gu bai gerala, bere terrenoan, tonto-lapiko utsak...! Ikusi nai neuke Don Pantaleon beronekin eztabaidan gau-arrantzari buruz... Arek ez daki ori zer dan ere... Arraiñeri buruz, eizeari buruz, perretxikueri buruz, belardiei buruz edo kortako ganaduei buruz... Oiek ez al dira kultura-gaiak...? Oiek eta beste milla gauza geiago, etxetik irten gabe, ikasi ditu Intxaurrendoko Pedro Garaikoak... Baserria izan da ba beti euskaldunen kultura-gordailua, baserrietako umetxoekin nolatan egiten dira ainbeste astakeri eziketa arloan...?! Baserrietik kanporako bes-

te kultura, aurrak ez dakien izkera batean, eman...?! Orrelako okerrrik nabarmenak onartu, egin eta eragiteko diruz ordaindu...?! Norbere seme-alabak egoera orretan sartu...?!

Euskaldun jatorrek, euskera beste mintzairarik ez zekitenek, sufrimentu ikaragarriak jasota izango dira, orrelako jokabidea bere aurrentzat eskatzeko...

Pedrotxo kirioetatik irtenda zebillen gizarajoa. Goizean goiz jeiki, jateko gogorik ez, kafe utsa artu eta eskolara, aitzaren atzaparrak zituen leoi baten aurrera, aren garraxiak entzun eta zaplastakoak artzera:

—Burro, animal, idiota, retrasado mental...! Contra la pared con dos tomos de El Quijote en cada mano...! Con la regla te voy a espabilar primero las manos, a ver si se te abre esa cabezota...!

Oiek jakinda gero Campion'en Blancos y Negros eleberria etorri zitzaidan burura: Urdiango ume elbarriak jasotako tratoa, alegia... Eskerrak Pedrok ez ziola tutik ere entenditzen; baiña, begi beltz aundi aien txinpartak ikusita, biotza jartzzen zitzaion saltoka eta belauak dar-dar... Zer inpernuetara ekarri naute, pentsatzen zuan errukigarriak...!

Egun osoan ez jan eta ez edan, gauez etxeratu arte. Amabi ordu etxetik kanpo abelera txar batean. Zer neke ikaragarria umetxo euskaldunen lepoetan...! Julenek au izan zuan begien aurrean bere bidea aukeratu zuanean: kondematuta zeuden umetxo euskaldunak salbatzea, gaizkatzea, gaitzetik askatzea... Lan orretarako, merezi zuen-da, bere bizia eskeiñi zuen...

Julenerengana eldu naizenean, a zer poza biona Intxaurrendoko kimua salbamenean bidean ipiñi degulako...

Larunbat arratsalde, eskolatik irten da gero, Alesek Pedrotxo Juleneri eraman zion. Pedrotxoren poza jakin zuanean Julene andratxo liraiña izango zala "maestra" Don Pantaleonen ordezu...

Zeruetatik jetxitako Mari sorgin ederra ote zan Julene ura...! Nundik egin ote zien orrelako aldaketa zoragarria...?! Gaiñera, euskeraz zekiena...!

Gau osoa igaro zuen amesetan; zorioneko ames goxoetan... Ireltzoek etorri zitzaizkion oge ingurura dantzari eta berritsu:

—Pedro, gu txiki-txikiak gera; baiña indar eta aalmen aundiak dizkitugu: guk biurtu dizugu Don Pantaleon leoi-artza andereño eder batean... Sutondoan amamak gure indarren berri ematen dizu eta guregan sinisten dezu...

Esnatzean, eguzkiaren erraiñoa sartzen zan lo-gelan leiatillen zirriztuetatik. Eguzkia oso goian zegoen eta Meza Nagusirako prestatu bear... A zer lo gozo ederra egin duen bait! Orrelako ederrik ez da gogoratzen besterik. Goiz onetan mendiak argi bizi-bizia dute, berri-berria... Gaiñera atzo illargi berria eta marea biziak, gau-arrantzara laguntzen joateko eskabidea egingo dio aitari.

Andereñoari itxaskabra batzuek eramatea ondo baiño obeto egongo litzake. Bai orixe.

—Aitak baimena emango dit nere poza bete-betea izan dedin eta Don Pantaleonen leoi-aurpegia beteriko galduko det nere burutik...

Pedrotxok asmatu zuen, aita bera ere irrika bait zegoen gau-arrantzara joateko. Arrantzu ederra egin zuten. Lupiñarik ederrena eta bi itxaskabra maistrarentzako eta beste orrenbeste medikuarentzako: medikuari ondo portatzen zalako eta maistrari ondo porta dedin aurrerantz.

Pedrotxoren aitak ez zuen errez amor eman; baiña, sendagille jakintsu baten aurrean, ausardirik ez ezetzean jarraitzeko. Orrelako gizon prestuari errespetoa

bear zaio eta eurok, baserritarrak izan arren, edukazioa bazuten eta oiñarrizko kultura aberatsa ere bai. Axalekoa falta: erderak berekin zekarren paper-kultura ura. Bai, ba; gauza guztietarako papera bear. Edozertarako papera bear. Erderazko papera. Paper-kultura orrekin nazka-nazka egon arren, uraxe bear kale-gizarterako. Eurentzako, paper gutxi bear zuten: testamenturako papera eta uraixe naikoa; beste guztiak sobre zeuden.

Kanpotik etorritako paper-kultura nazkagarri orren mende egon bearko zuten betirako eta, erderarik gabe, zer egin? Beti, mundu osoaren aurrean, zoro-iñuzu batzuen antzera ibilli bear. Medikuak agertu zion garbi asko, euskeraren bitartez, errezago ikasiko zuela gauza jakingarri asko, baita erdera bera ere...

Ala bada, jauna, egin beza bedorreri obeto iruditzen zaiona.

Bai, gizona, lasai egon Intxaurrendoko jaun ori, Pedrotxok osasuna eta jakinduria, biak, obeto lortuko ditu Ikastola berrian.

—Alan izan bedi.

Arazoa erabakita utzi zuten bien artean: Ales berbera joango zan Don Pantaleonen eskolara, andik aurra Juleneren ikastolara eramateko.

Astelena eldu da. Alesek Pedrotxo artu eta Ikastolara eraman du. Umearen poza ango umeak eta "maistrak" euskeraz egiten zutela ikustean... Biotza zabaldu zaio illargibetea baiño aundiago.

Pedrotxok lupiña eta bi itxaskabrak arro eskeiñi dizkio:

Nik arrapatu ditut bart.

Eskertzen dizut egin duzuna, lupiña eta itxaskabrak gozoak direlako, zedorek arrapatu eta ekarri dituzulako; baiña, au ondo buruan sartu asiera-asieratik: nik ez zaitut ondo artzen itxaskabrak ekarri dizkidazulako, maite zaitudalako, bai-zik.

Emendik aurrera pozago ekarriko ditut. Ni gustora joaten naiz gaueko arrantzara eta neuk arrapatutakoak neuretzako dira. Amak saltzen ditu eta oien diruak neuretzako izaten dira. Neureak dira eta neuk gustora ekarriko dizkizut.

—Zuk ori nai badezu, egin nai duzuna; baiña gutxitan.

Gau-arrantzak gutxitan izaten dira: geienaz ere illean bein. Onak izateko marrea biziak bear diranez, iru illebetz bein. Orregaitik gau-arrantzara joaten zan bakoitzeko ekartzen zion bere andereñoari arraitxo ederren bat. Zer pozik, ala ere!


Pedro zeruan bizi zan. Goizetik ondo gozalduz eta ikastolako lasaitasunakin kirioak ere lasaitu. Eta, agiñik atera bearrik ez. Zoragarri.

Beste bost urte pozgarri igaro zitun Ikastolan bere ikastaroak bete arte. Gizondu zan bitartean. Amalau urte bazitun, beintzat eta...

Pedrok Ikastolatik atertzeakin batera, sortu zan gerra negargarri bat eta ikastola guztiak ankaz-gora botan zitun. Aur euskaldunek berriro Don Pantaleonengana jo bear...

Eun urte iraungo duen gaitzik ez ornen da eta gaitz onen azkena ere ezagutu degu. Ikastolak galdu ziran eta Juleneren garaiko andereño geienak ere bai. Aien orduko lana, orde, ez da alperrikoa izan: orduko Ikastolen azitik sortu dira gaurkoak.

Anes Arrinda



AETZEN USKARAS

(Jarraipena)

Fenomenos Fonéticos

Adición

de g en	goatze por oatze goartu por oartu gau por au gari por ari gura por	goaie por oaie goarteman por oarteman ura y en toda su declin
geltze por eltze		gola, gala por ola, ala

de e en	eke por ke ekendu por kendu	ekeztatu por keztatu
---------	-----------------------------	----------------------

de a en	zeida por zeit	
---------	----------------	--

deben	burtxintxa por urtxintxa	buztarri por uztarri buztartu por uztartu
-------	--------------------------	--

Elisión

de a en	zitu por zaitu nu por nau gitu por gaitu eman por eraman gontreino por gontareino	zite por zaite artse por arratse gontra por gontara
---------	--	---

de e en	abre por abere gontan por gonetan gortan por gorretan	andre por andere atra por atera gontako por gonetako eskindu por eskeindu
---------	---	---

de g en	artei por artegi ein por egin	niarrez por nigarrez
---------	-------------------------------	----------------------

de b en	daila por dabil dailtza por dabilta zailtza por zabilta zailtate por zabilzate	zailtza por zabilta gailtza por gabiltza
---------	--	---

de r en	zeleik por zelarik deleik por delarik direzleik por direlarik zueleik por zuelarik golakoik por golakarik el por ari	zuteleik por zutelarik galakoik por galakorik
---------	--	--

de l en	etsabur por eltsabur	itze por iltze
de d en	balin por baldin	

Permutación

de z en s	gerostik por geroztik sartus por sartuz nigarres por nigarrez soinus por soinuz eines por einez	bates por batez obekitus por obekituz loas por loaz txistus por txistuz -as geras por-az geroz
de au en ou	douzut por dauzut zouke por zauke douzkizu por dauzkizu ezoutu por ezautu	douka por dauka dougu por daugu mouka por mauka
de au en o	erontsi por erauntsi eztokezu por eztaukezu	erontzi por erauntzi
de yoa en fa	fare por oare	fan por joan
de d en r	eran por edan	iruzki por idu ki
de r en d	ideki por ireki	
de e en i	iduki [sor eduki	
de al en el	el por al norbeit por norbait zerbeit por zerbait zeigu por zaigu	zeida por zaida nonbeit por nonbait zeio por zaio
de eu en au	naurri por neurri auri por euri daus por deus gaure por geure	naurtu por neurtu auli por euli zaure por zeure naure por neure
de a en i	etzin por etzan	
de m por b	mare por bare	
de e por a	igari por igeri	
de u en b	gebek por gauek	gabaz por gauaz
de k en ta	nitzaita por nitzaik nakota por nakok	ninduta por ninduk nauta por nauk
de j, y en x	xo por jo xosta por josta xarreiki por jarraiki xein por jaun	xakin por jakin xasi por jasi xei por jai

Metatesis

nabala por labana
llano por laino
erkal por elkar

Aditza

N z bukatzen direnak.

edan	edaten	edein
fan	faten	fein
xan	xaten	xein
izan	izaten	izein
igan	igaten	igein
eman	ematen	emein
erman	ermaten	ermein
erran	erraten	errein
egon	egoten	egoin
erran	erraten	errein
xakin	xakiten	xakinen
iraun	irauten	iraunen
ein	eiten	einen
entzun	entzuten	entzunen

Uz

sartu	sartzen	sartuko
galdu	galtzen	galduko
ukitu	ukitzen	ukituko
irakitu	irakitzen	irakituko
atzendu	atzentzen	atzenduko
eskindu	eskintzen	eskinduko
eskatu	eskatzen	eskatuko
elekatu	elekatzen	elekatuko
ekendu	ekentzen	ekenduko
bildu	biltzen	bilduko
ezautu	ezautzen	ezautuko
ezondu	ezontzen	ezonduko
zapatu	zapatzen	zapatuko
idartu	idartzen	iartuko
eiartu	eiartzen	eiartuko
urtu	urtzen	urtuko
urdiru	urdintzen	urdiruko
tzispurtu	tzispurtzen	tzispurtuko
tzimeldu	tzimeltzen	tzimelduko
tzimurtu	tzimurtzen	tzimurtuko
goartu	goartzen	goartuko
txakartu	txakartzen	txakartuko
lotsatu	lotsatzen	lotsatuko
alketu	alketzen	alketuko
bilatu	bilatzen	bilatuko
arpatu	arpatzen	arpatuko
inboraztu	inborazten	inboraztuko
inbuluzkatu	inbuluzkatzen	inbuluzkatuko
arrankuratu	arrankuratzen	arrankuratuko
iguitu	iguitzen	iguituko
istatu	istatzen	istatuko
igatu	igatzen	iatuko
ubenduztatu	ubenduztatzen	ubendustatuko

samurtu	samurtzen	samurtuko	
xutitu	xutitzen	xutituko	
zilipiztatu	zilipiztatzen	zilipiztatuko	
tzustotu	tzustotzen	tzustatuko	

| z

egotzi	egotzen	egotziko	
ideki	idekitzen	idekiko	
ertsi	ersten	ertsiko	
irabazi	irabazten	irabaziko	
estali	estaltzen	estaliko	
nasi	nasten	nasiko	
asi	asten	asiko	
ibili	ibiltzen	ibiliko	
erori	erortzen	eroriko	
etorri	etortzen	etorriko	etorko
ezarri	ezartzen	ezarriko	ezarko
imini	imintzen	iminiko	
xarri	xartzen	xarriko	
iratzarri	iratzartzen	iratzarriko	
iduki	idukitzen	idukiko	
ekarri	ekartzen	ekarriko	ekarko
ikuzi	ikuzten	ikuziko	ikuzko
ikusi	ikusten	ikusiko	ikusko
autsi	austen	autsiko	
ixuri	ixurtzen	ixuriko	
igorri	igortzen	igorriko	
erosi	erosten	erosiko	
xarreiki	xarreikitzen	xarreikiko	
egosi	egosten	egosiko	
erasi	erasten	erasiko	
xarduki	xardukitzen	xardukiko	
ilarrosi	illarrosten	illarrosiko	
erdietsi	erdiesten	erdietsiko	
xaurtiki	xaurtikitzen	xaurtikiko	
marmarosi	marmarosten	marmarosiko	
opetsi	opesten	opetsiko	
erre	erretzen	erreko	
bota	botatzen	botako	
il	iltzen	ilko, ilen	
jaio	jaiotzen	jaioko	
atra	atratzen	atrako	
xo	xoten	xoko	
eitu	ei	eituko	

Nor Indikatiboa

Oreia

Iragana

neutro

alokutiboa

neutro

alokutiboa

Izan

niz	nuk, nun	nintze	ninduta, ninduna
yiz		yintze	
da	duk, dun	ze	zuta (zua), zuna
gira	gituk, gitun	gine	ginduzta, ginduzana
zira		zine	
zirate		zinete	
dira	dituk, ditun	zire	zitua, zituna

neila	neilak, neilan	nindeile	nindeileta, nindeilena
yeila		yindeile	
deila	xeilak, xeilan	zeile	xeileta, xeilena
geiltza	geiltxak, geiltxan	gindeiltze	gindeiltxeta, gindeiltxer
zeiltza		zindeiltza	
zeiltzate		zindeiltzate	
deiltza	xailtxak, xailtxan	zeiltze	xeiltxeta, xeiltxena

Fan

nae	ñaeak, ñaen	nindae	ñindaeta, ñindaena
yae		yindae	
dae	xaeak, xaen	ziae zae	xaeta, xaena
gaza	gaxak, gaxan	gindaze	gindaxeta, gindaxena
zaza		zindaze	
zazte		zindazte	
daza	xaxak, xaxan	ziaze zaze	xaxeta, xaxena

Egon

nago	ñagok, ñagon	nindego (nengo)	nindegota, nindegona
yayo		yindego (yengo)	
dago	xagok, xagon	zego	xegota, xegona
gaude	gaudek, gauden	gindaude	gindaudeta, gindaudena
zaude		zindaude	
zuzte (zaute)		zindauzte	
daude	xaudek, xauden	zeude	xeusdeta, xeudena

Etorri

eldu niz	eldu nuk, nun	eldu nintze	eldu ninduta, -na
eldu yiz		eldu yintze	
eldu da	eldu duk, dun	eldu ze	eldu zuta, zuna
eldu gira	eldu gituk, gitun	eldu gine	eldu ginduzta, ginduzana
eldu zira		eldu zine	
eldu zirate	eldu zinete		
eldu dira	eldu dituk, ditun	eldu zire	eldu zitua, zituna

Nor Nori Trinkoa

orei	leen		
Erion			
darit	zarida		

darik, -n	zarika, zarina
dario	zario
darigu	zarigu
darizu	zarizu
darizie	zarizie
dariete	zariete

Nor Nori Indikatibo Izan

Oreia

ni yiri	nitzaik, nitzain	
ni gari	nitzaio	nitxaiok, -n
ni zuri	nitzaizu	
ni zeí	nitzaizie	
ni gaei	nitzaie	nitxaiek, -n
yí niri	yakida	
yi gari	yakio	
yi guri	yakigu	
yi gaei	yakie	
gura niri	zaida	xaidak, -n
gura yíri	zaik, -n	
gura gari	zaio	xaiok, -n, xeok, -n
gura guri	zaigu	xaiguk, -n
gura zuri	zaizu	
gura zeí	zaizie	
gura gaei	zaie	xaiek, -n, xeeek, -n
gu yiri	gitzaizkik, -n	
gu gari	gitzaizkio	gitxaizkiok, -n
gu zuri	gitzaizkizu	
gu zeí	gitzaizkizie	
gu gaei	gitzaizkie	gitxaiek, -n
zu niri	zitzaizkida	
zu gari	zitzaizkio	
zu gurí	zitzaizkigu	
zu gaei	zitzaizkie	
zek niri	zitzaizkidate	
zek gari	zitzaizkiote	
zek guri	zitzaizkigute	
zek gaei	zitzaizkiete	
gaek niri	zaizkida	naixkidak, -n
gaek yiri	zaizkik, -n	
gaek gari	zaizkio	xaixkiok, -n
gaek guri	zaizkigu	xaixkiguk, -n
gaek zuri	zaizkizu	
gaek zeí	zaizkizie	
gaek gaei	zaizkie	xaixkiek, -n, xeixtek, -n

Erraten da ere: akida, akio, akigu, akie,
 zeida, zeik, zein, zeio, zeigu, zeizu, zeizie, zeie
 zeizkida, zeizkio, zeizkigu, zeizkizu, zeizkizie, zeizkie

Nor Nori Indikatibo Izan

Iragana

ni yiri	nintzaita, -na	
ni gari	nintzaio (nintzego)	nintxaiota, -na
ni zuri	nintzaizu	
ni zei	nintzaizie	
ni gaei	nintzaie	nintxaieta, -na
yi niri	yintzaida	
yi gari	yintzaio	
yi guri	yintzaigu	
yi gaei	yintzaie	
gura niri	zitzaida	zitzaidata, -na
gura yiri	zitzaita, -na	
gura gari	zitzaiota	zitzaiota, -na
gura guri	zitzaiigu	zitzaiiguta, -na
gura zuri	zitzaiizu	
gura zei	zitzaiizie	
gura gaeie	zitzaiie	zitzaieta, -na
gu yiri	gintzaita, -na	
gu gari	gintzaizkio	gintxaizkiota, -na
gu zuri	gintzaizkigu	
gu zei	gintzaizkizie	
gu gaei	gintzaizkie	gintxaizkieta, -na
zu niri	zintzaizkida	
zu gari	zintzaizkio	
zu guri	zintzaizkigu	
zu gaei	zintzaizkie	
zek niri	zintzaizkide	
zek gari	zintzaizkiote	
zek guri	zintzaizkigute	
zek gaei	zintzaizkiete	
gaek niri	zitzazkida	zitzazkidata, -na
gaek yiri	zitzazkita, -na	
gaek gari	zitzazkio	zitzazkiota, -na
gaek guri	zitzazkigu	zitzazkiguta, -na
gaek zuri	zitzazkizu	
gaek zei	zitzazkizie	
gaek gaei	zitzazkie	zitzazkieta, -na

Erraten da ere: zitzeida, zitzeigu, zitzeizu, zitzeizkio...

Nor Nork Indikatibo Trinkoa

Xakin

Orela

dakit	xakitat, -nat	dakizkit	xakizkitat, -nat
dakit, -n		dakizkik, -n	
daki	xakik, -n	dakizki	xakizkik, -n
dakigu	xakitagu, -nagu	dakizkigu	xakizkitagu, -nagu
dakizu		dakizkizu	
dakizie		dakizkizie	
dakite	xakitek, -ne	dakizkite	xakizkitek, -ne

Iragana

nakie	ñakitat, -nat	nazkie	ñaxkitat, -nat
yakie		yazkie	
zakie	xakita, -na	zazkie	xaxkita, -na
gindakie	ginyakita, -na	gindazkie	ginyaxkita, -na
zindakie		zindazkie	
zindakite		zindazkite	
zakite	xakitea, -na	zazkite	xaxkitea, -na

Erman

dramat	xamatat, -nat	dramazkit	xamazkitat, -nat
dramak, -n		dramazkik, -n	
drama	xamak, -n	dramazki	xamazkik, -n
dramagu	xamatagu, -nagu	dramazkigu	xamazkitagu, -nagu
dramazu		dramazkizu	
dramazie		dramazkizie	
dramate	xamatek, -ne	dramazkite	xamazkitek, -ne

Ekarri

dakarrat	xakarratat, -nat	dakarrazkit	xakarrazkitat, -nat
dakarrak, -n		dakarrizkit, -n	
dakarra	xakarrak, -n	dakarrazki	xakarrazkik, -n
dakarragu	xakarratagu, -nagu	dakarrazkigu	xakarrazkitagu, -nagu
dakarrazu		dakarrazkizu	
dakarrazie		dakarrazkizie	
dakarrate	xakarratek, -n	dakarrazkite	xakarrazkitek, -n

lon

diot	xiotat, -nat
diok, -n	
dio	xiok, -n
diogu	xiotagu, -nagu
diozu	
diozie	
diote	xiotek, -n

Iduki

daukat	xaukatat, -nat	dauzkít	xauxkitat, -nat
daukak, -n	dauzkik, -n		
dauka	xaukak, -n	dauzki	xauxkik, -n
daukagu	xaukatagu, -nagu	dauzkigu	xauxkitagu, -nagu
daukazu		dauzkizu	
daukazie		dauzkizie	
daukate	xaukatek, -n	dauzkite	xauxkitek, -n

Ginetsi

Ezarri

Erakutsi

ginestatzaut	ezartzaut	erakutsaut
ginestatzauk, -n	ezartzauk, -n	erakutsauk, -n
ginestatzau	ezartzau	erakutsau
ginestatzaugu	ezartzaugu	erakutsaugu
ginestatzauzu	ezartzauzu	erakutsauzu
ginestatzauzie	ezartzauzie	erakutsauzie
ginestatzaute	ezartzaute	erakutsaute

Ein

Eskatu

Eman

eitaut	eskatzaut	emataut
eitauk, -n	eskatzauk, -n	ematauk, -n
eitau	eskatzau	ematau
eitaugu	eskatzaugu	emataugu
eitauzu	eskatzauzu	ematauzu
eitauzie	eskatzauzie	ematauzie
eitaute	eskatzaute	emataute

Bear

Erran


beaut	errataut
baeuk, -n	erratauk, -n
beau	erratau
beaugu	errataugu
beauzu	erratauzu
beauzie	erratauzie
beaute	errataute

Edun

Nai

baut	badiat, badinat	naut	nai diat, nainat
baik, -n		nauk, -n	
bau		nai du	
baugu	badiau, bainau	naugu	nai diau, nainau
bauzu		nauzu	
bauzie		nauzie	
baute	baidie, baine	naute	nai die, naine

(Jarraitzeko)
Josu Cabodevilla



DE RE POETICA

Agindua zorra dala, askotan darabilgu aotan. Eta nik, igaz Durango'ko liburu azkokan, poesiari buruzko mai-inguru baten ostean, an egondako adiskide aldra batek eskaturik olerkiaz lan bat osotuko nebala agindu neutsen. Agindu ori bete nai neuke lan onegaz.

Ederto dagie antolatzaileak olako mai inguruak jarririk, errian zaletasuna sor dedin. Nik, egia esan, ez nekian noz zanik. Baiña, ikusmiran an zear nenbillelarik, atea edegi zan eta orra aínbat jente areto barrenean: ara gintzazan gu be, mai ingurukoan urre samar jarlekua arturik.

Aretoa kuin-kuin jentez, olerki-zale ziranakaz ain zuzen. Aurreko alan, goitxoan, argi ta lorez dotore, mai ingurua osotzen ebenak; gazte ta adintsu entzule ugari leen eta orain, betikoa dogu euskaldunon bertso egarría.

Maia osotzen ebenai aurrez-aurre egokitu giñan nire laguna ta ni. Entzumin giñan, itxuraz, beste asko lez. Eta antxe egon gintzazan iru bat ordu laurenean, orduko beste ordu-erdi bat ekiñean joana zana gaitik. Gu lez besteak be, gosegose gintzazan eta pozik mai-ingurukoen esanak entzuteko; nik ez neban ikusi beintzat iñor be, gogait egiñik kanpora urteten, danok ixil-ixiliketa begi-zorrotz, ez eztulik ez buru-biurtzerik.

Mundakar gazte bat zan billera aren zuzendari. Ez eban gaizki arazotu bere papera. Ezker-eskumako batzuk, orraitíño, bi edo ezik —gu sartu gaiñanetik beintzat— lotsaz urri ta poesi-jakitez urriago agertu ziran; an ziranak, urtekeran, ori iñoen ao batez. Noizik bein esan ebezan zer interesgarriak, baiña itxas-orratza beti iparrerantza doan lez, areik beti zer bardiñera ikotia, kuntzearen lezara, kaparra antzera lepo-gain itsatsitako ori ezin ba astindu gaiñetik. Eta olakoak uste dabe lapurak lez oin dirala danak. Ez, ba, gaur be ba-dira eta ez gitxi lapa orrez aske dagozanak; aretoan gengozanetatik, gero erakutsi ebenez, geienak. Eta zuek jorra ta jorra zeuen lurpe loian. Nazkaturik itxi genduan aretoa, txalorik ere jo bage. Jenteak urteten: "Au lakra!".

Olan da, izan be, eta ez da ori gizarte itxuraskoari dagokion jokabide duiña. Euskal gizartea, nobera orrela dala-ta, urdandegi egin gura? Ba-daukaguz ingurumari euskal lurra olakoz pozoiu gurarik alegintzen diranak. Ni ez nozue ez politikan ez moralean estuegi; oraintsu, ain zuzen, argitara emon dodan "Bizkai-ko Olerkariak" liburua aipatuz, oso zabala nintzala esaten eusten, gorri ta zuri, ezkerreko eta eskoiko, danak adeitsu artzen nebazalako.

Eder-zale areik, esan be, gordinkeri politik esan ebezan aitururiko maiinguruan. Zer esan eben, ba? Olerkiaren sorpena, bein eta barríro esan ebenez, soín-sugar bat ei da. Ez, txotxo!; griegotik datorren itz orrek olako zerbait adierazo nai ba'dau be, ori baiño geiago dozu. Arimearen sugarra, irudimenaren sugarra, edo olako zerbait aitatu ba'lebe, tira!, gorotzari sua damotsana adimena dalako, baiña soín-sugarra soil-soil esnaz, motz geratzen jatzu gauzea. Sinbolu batekin jokatu nai eban antza danez, griegotik datorren erderazko *orgasmo* itzaz, eta entzule guztiak zukurrutzurik geratu ziran, lendik olerkiaz gitxi ba-ekien, gitxiagoturik, nastuago egiñik.

Olerkia ori baiño askoz goragoko zerbait dogu, ez Jainko-maillan bakarrik (aitatu be ez eben egin Jainkozko olerkirik, eta berau da geien erabillia literatura

guztietan), baita beste arloetan ere. Jo mistikara, adibidez. Or Juan Gurutzekoa, mistiku onek bizi-bizi aitatzen ditu olerkariak izan oi dabezan, poesigintzan diñot, momentu kritikuak. Santu onek maiz aitatzen ditu "bld", "bultz-aldi". "zentsun-galtze" ta olakoak, iñoiz bere ez "soin-sugarrik".

Poetaren lana, noizen baten ezik, askoz arunt eta lauagoa dozu. Batza batek, itxura arrigarri batek, itxasoa, mendia naiz beste antzeko zerbait izan ikustez, ibiltez, irakurteaz, arrotu oi dautzu irudimena, eta biotza sutsu. Jarri zaitez eta luma naiz boligrafoa eskuratuz, Idatzi jatortzuzan irudikizunak, bertsoz, lerroka; lerro txikia naiz aundika, luzeetan naiz laburretan, era askotako neurriak daukazuz; emon gero idatzi dozun orri sua, edo-ta idatziaz batera, biotzari eragiñaz, eta or dozu olerki bat. Gaur laburrak obeto, ez daukagu luzeak irakurteko astirik. Ezta antxiñekoak be: Horazio'ren *odak eta epodoak* dan-danak dituzu motzak.

Gaztetatik olerki artean eta olerkigintzan ibillia naz; ordu zoragarriak euki izan ditut, euskal poeten artean batez be, batzen, idazten, orraztuten, argitaltzen... Goi-garra ta esku-trebetasuna eskatu izan dot beti olerkigintzan, edozein arlorako lez deia eta ikasiz lortutako ganora eta errimetasuna, egiazki olerkari danak, buruz ta naimenez sortua jantzi ederrez apaintzen jakin bear dau, eta orduan Lizardik diñoan erdi-egitea, benetan dozu ederra, ezta zer biren arteko lizunerioa, amaren erditzen sotilla baiño. Poesi sortzea era duin eta tankera askotara adierazo daikegu. Era eder askoz, baiña Durango'n etzan olakorik aiatu, olerkia ez dator lizun-zaborretik. Ori iñosten niri, itaunka.

Poeslaren sorpenari buruz, gauza interesgarriak idatzi zituan beste askoren artean Goethe'k; pentsalari zorrotza nunbait, Juan Gurutzekoa esan daikegu, mistika arloan edo lez, izan jakun doixtarra. Olerkaria iñoiz eldu daiteke, mistikoaren antzera zorabio aldiak izatera. Artelariak gizaseme apartak dozuz; itxasoa, mendiko ikuspegi zabalak, musika entzunik, ba-dira zorabiatzen diranak, edo euren lanez jentea zorabiatzen eltzen diranak. Eta oneitan maillak diran arren, sustatzen gaituanari deitzen dautsagu, egi-egiaz, "olerkari". Idazleak, olerkariak ori billatu bear bere sorpenetan, iralurlea zelanbait "sustatu", entzulea naiz irakurlea birloratu, dardar eragin, oizko bizi-moldetik atera ta goragoko lau-une batera aldatu.

Lan-arlo onetan ba-dira geiago, gitxiago ta ezin geiagoko maillak. Leendik be esana dodanarren, erakustea beti be eder dala-ta; sarri galdetu dauste arek eta onek, olerkari batek, jakiña, bera zein maillatako poeta dan jakin nairik, urlia beste ete dan, bizkaitarren artean Erkiaga, Aurraiz, Muniategi aiña, eta nire erantzuna ezta sekula be kezkarria izan, ezagutzen dot giza-sena, giza-barrena, eta iñori ez dautsot penarik emon gura izaten. Orixe'k beiñola izan oi da nire erantzuna, ots, "Jainkoen artean be ba-dirala aundiak eta txikiak". Eta askotan, noberrak uste izanik be, oba nobere eritxia lar goi jarri barik, iñorena, senezkoa ba da beintzat, onartzea; apaltasuna bai dala bikain zer guztietan.

Gaurkoz, iñoizkorik geien, askatasun itza darabilgu aotan, kendu eragozpenak, zabal egoak, begiak, irudimenak... Zer ez? Jainkoak gizonari, sortzean, ipiñitako jotea da, bota eziña. Bioaz urrun gure kezkek, gue ezak eta bearrak. Azken-itzez esateko, saltad dozu olerkaria, amesaz beiñik-bein mundu ontatik bestera, ederaizeak eraginda, jauzi egin nai eta orrek, konturatzeak, mundu ontatik beste zoragarriago batera. Goratze orrek, mundu aldatze orrek dakartson poztasuna adierazo eziña jatzu.

Egia da askorentzat, Durango'ko liburu azokan gogora ekarri zan atseña, besterik dagoala; gizona materi-atsegiñetan lar sarturik bizi dalako. Gorbei gaiñeko bedar bigun-goza txastatu ez dauan ardiak, ez dau amesten ain ederra dana. Beeko gozotasunetan murgildua dabil, eta goikoak askoz eder-atsegingarriagoak diranak, ez ditu kezkatzen goikoak. Besterik ez dala uste dabe, ez ulertu ez izan daikenik be. Errukia emoten!

Aita Onaindia



EUSKERA BATUAREN BILLA *

(Ernani'n emandako itzaldia)

Ernani'ko euskaldun eta euskalzale jatorrak: agur, agur t'ardi.

Aspaldiko euskal-agur jakin onekin azaltzen naiz zuzen aurrera nere gaurko jardun oni asiera ematerakoan. Eta gaiari ekin baiño leen, aitorpen garbia egin bear dizuet: alegia, zeuok, Ernaniko semeok, zeuon senari zintzo ta leial eusten diozutela. Zeuon senari eta leenari. Garbi esateko, zeuon euskalduntasunari. Erririk gutxi du Euskalerriak zuen erriak aña langille erakutsi ditzakenik euskal-literaturaren alorrean. Nolako langilleak, gero! Kardaberaz, Iturriaga eta Gregorio Arrue bezelako idazlerik ez da noiznai ez non-nai azaldu Euskalerrian joandako gizaldietan. Aien senari eutsi nai diozute zeuok, noski; aien enborreko ezpal izan nai dezute. Egunotan antolatu dituzuten itzaldi aukerak salatzen dute. Zuen jatorria ez dezute ukatu izan nai. Zeuok zeuon buruaz, zeuon euskalduntasunaz lotsa ez zaretan bezela, zuen arbasoak, eta aipatutako iru Ernanitar aiek, Kardaberaz, Iturriaga eta Arrue ere, ez dira gaur zuokin lotsa. Ez al dituzute maixu aundi aiek bein ere aaztuko. Gaurko egun au ere aiekin dituzuten lokarriak estuago egiteko izango al da!

Nere itzaldiaren gaia zeuok jarria da, euskeraren batasunari buruzkoa. Gizaldiz gizaldi nolako pausuak eman diran batasunaren billa, nola azaldu dan kezka au, nola ikusi zuten gorabeera au antziñako gure klasikoek, eta oraintsuagoko aldie-tan auzi au nola erabaki nai izan dan, ori guzti ori jakin eta ikusi nai dezute. Nere alegintxoia egíngo det zuoi ontan atsegin ematen. Aurretik (ala eskatzen dizuet), nere utsengatik izango al det zuen barkamena.

Itzaldi onek bi zati izango ditu, bi zati nagusi: euskeraren batasuna antziñako euskal-idazleetan, leenbiziko zatia; eta batasun ori, oraiñagoko ekinaldietan, bigarren zatia. Azkenengo zati ontan, bi batasun aztertuko ditugu, alegia, euskal-ortografiaren batasuna, eta euskera idatziarena.

Euskeraren batasuna euskal-klasiko diralakoetan

Gai ontan sartzean, berai aipatuaz batera, galdera bat edo beste etorriko zaio askori burura: Baiñan euskera batuaren auzi eta kezka au ez al da, bada, orain-

tsukoa gure egunotakoa? Ez ote zerien, aiei, txoriari bere txinta bezela, beren euskera jatorrizkoa tokian tokikoa? Galdera auei ezezko erantzuna eman bearrean gaude.

Euskaldunak berandu asi ziran euskera idatzia erabiltzen, eta artara jarri zira-neko beren kezka eta ardurak izan zituzten nola idatziko. Bertatik oartu ziran ez zala Euskalerrri osoan euskera berdiña egiten, ez urbiltzekorik ere; ba-zala aldea euskalerrrialde batetik bestera. Au ikustek gogoetaka jartzen zituen zein bide artuko, nolako euskera erabiliko, euskaldunik geiagok ulertzeko eran nola idatziko.

Au ikusteko, gure literatura zaarrari gain-begiratu bat ematea aski degu.

Asi gaitezen gure idazle zaarrenetako bategandik. Leizarraga gandik. Beskoitzeko seme au, Testamentu Berriaren euskeratzaile au, amaseigarren mendekoa dela. Datorren urtean izango dira laureun urte Testamentu Berri ori eta beste lan bat argitaratu zituela. Apaiza izan zan eta gero protestante egiña. Protestanteen aginduz ekin zion bere lanari, beste euskaldun batzuek lagundurik.

Nola idatzi, nolako euskera erabili? Orra asieratik izan zuen kezka. Gogoz ekin zion lanari, baiña bere borondate ona gorabeera, bein baiño geiagotan da or bertan beera uzteko zorian, eta beldur da ez ote duen asitako lana bukatuko. Batetik antzu eta landu gabea ikusten du euskera. "Oraino, traslationetan behintzat, batetik gabea". Orrez gainera, gure izkuntza ainbat zatitan puskatua dago. "Bat; bederak daki Eskuel-Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentia eta diversitate den".

Au ikusirik, zein bide artzen du Leizarragak? "Ahalik gehiena guziei adierazten iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lengoaje bereziri".

Itz auetan naiko argi ikusten degu nola ezagutzen zuen Leizarragak euskararen egoera eta nola jo duen banatasun artatik nolabaiteko batasunera. Leizarraga onen euskera ez da izango ez angoa ez emengoa, iñongo leku jakiñekoa; alik eta geien ulertzekoa erabiltzera saiaturiko da.

Lapurbara zan bera, baiña aalik eta geienentzat idaztearren, gogoan izango du Zuberoa ere, eta Zuberotarren euskera. Eta auentzat iztegi labur bat ere jarri zan azkenean, Lapurdiko itz batzuei Zuberoko ordaiñak aurrean jarrita.

Urrengo gizaldian, beste idazle batek ez du jokabide berdiña artuko, ain zuzen *Materra* euskaldun berria da, gaur esango genukenez. Kanpotik etorria da Euskalerrriara, Sara aldera, eta Sarako euskera ikasi du, ez besterik. Ba-daki onek ere ez dala Euskalerrri guztian berdin mintzatzeko, baiña ez berari dakiena besterik eskatu. Ala aitortzen du berak: "Badakit Euskal-Herrian anhitz moldez mintzatzeko direla, eta nori bere herriko euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogoak emaiten deraut ene eskribatzeko molde haur etzaiela guztiegi ongi iduritu-ko. Baina nahi dut iakin dezaten halakoek nik hizkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala eta hango euskara ongi erabiltzen badut, ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuizatzeko, zeren ezpaitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako euskara denz Euskal-Herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni harran sartzen; bat bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako eskuara hunetzaz kontent eztenak ezkiriba beza bertze eskuara hobeago batez eta hobekiago; ez naiz ni hartatik bekaiztuko eta ez inbidioz izanen".

Asistarraren seme zintzoa Aita Materre au, eta ala pakezalea auzi ontan ere. Baiña or degu idazle aitortpena gure euskeraren banatasunari buruz.

Gizaldi berean, eta Saran bertan dugu gure klasikoetan klasikoaren ospea duen idazlea: Axular aundia. Gure banatasunaren lekuko au ere, eta batasunaren nolabaiteko eragille. Banatasun orrek kezka jartzen du. Ezin dezake idatzi euskaldun guztiek ulertzeko eran. Ala aitortzen du berak: "Badakit... ezin heda naitekeiala euskarazko mintzate molde guzietara. Zeren anhitz moldez eta differentki mintzatzeko baitira Nafarroa Garaian, Zuberoan, Lappurdin, Bizkaian, Ipuzkoan, Alaba-herrian eta bertze anhitz lekutan... Batek erraiten du *behatzeta*, bertzeak, so

egitea; batek *aserretzea*, bertzeak *samurtzea*; batek *ilkhitzea*, bertzeak *jalgitea*; bateak *athea*, bertzeak *bortha*; batek *erraita*, bertzeak *esatea*; batek *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*; batek *hauzoa*, bertzeak *barridea*; batek *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean, bat bederak bere gisara, antzera eta moldera; ez dituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez eskuarazko mintzatzeak ere, zeren erresumak baitituzte different".

Nondik norako bidea artuko du Axularrek olako banakuntza ori nolabait berdintzeko eta aalik eta geieni atsegin emateko? Bat, Lafitte jaunak aipatu eta argitan jarri duena: itz eta esaera berdintsu asko, sinonimo asko erabiltzea, era batera eta elkarren gainka. Orixe egin ornen zuten antxiñako frantzes-idazle askok ere, esaterako, Rabelais ospetsuak. Iñoiz, euskerak bi itz dituenean elkarren antzekoak edo bi eratarera erabiltzen diranak, biak jartzen ditu Axularrek; eta batera liburuaren barruan, eta beste erara bazter batean, aldamenean, "bat-bederak kontentamendu duen amoreakgatik".

Beraz, Axularren euskera geien batez Saran erabiltzen zana izan arren, badu beste euskalkietako kutsu bat baiño geiago, nola edo alako batasunaren billa saiatuz.

Mende bera, XVI'garrenekoa, bukatu baiño leenago, or degu beste idazle bat kezka eta joera berdintsuarekin, Tartas, *Onsa hiltzeko Bidia* idatzi zuena. Leizarra eta Axular, biak euskeraren aldetik, Lapurditarrek ditugu. Tartas Zuberotarra da. Zuberon bizi zan gaiñera, Aruen; baiña ez du Zuberoko euskera oso-osoa jotzen. Zergatik? Batasunaren kezkaz, irakurle geiagoren billa. Irakurle geiago izatearren, Zuberokoa baiño euskera zabalago batez idatzi nai du. Eta orren jakitun jarri nai izan du irakurlea.

Onela diño: "Ene euskara eta lengoajia eztaikit aprobata izanen denez, bai ala ez. Badu orotarik zerbait; Zuberokoa, Baxenaberrek eta Lapurdik eman drauko zerbait baina ez oro. Aruen egin dut neure pieza pobria; hanko lengoajia ezpada aski eder, hanko euskarak du ogena, eta ez euskaldunak". Benetan aitopen apala auxe. Geienok, nik uste, bakoitzak geure erriko euskara jotzen degu onenetakotzat.

Bidasoaz andiko idazleekin jarraituz, urrengo mendean, amazortzigarrenekoa, beste idazle aundi bat degu: Joanes Etxeberri. Bestaldekoa izan arren, emendikoen artean eman zuen bizirik erdia: Beran, Ondarribian, Azkoitin. Axularren goresle porrokatua degu bera. Urdazubitarra ornen degu euskal-idazleetan maixurik aundiena, eta euskerarik ederrena, Sarakoa. Baiña beste euskera-molderik baztertu gabe. Gure euskera molde eta era askotakoa bada ere, gure artean ez da ontan gertatzen beste izkuntza askorekin gertatzen ez danik. Euskera-mota asko ornen degu, baiña euskera bat bakarra ornen da.

Etxeberri besta aurrekoek baiño sakonago eta luzeago jorratzen du gai au. Entzun zer dion: "Diferentzia molde hau kausitzen da zernahi bertze hizkuntzetan ere, bereziki italiano, erdera eta frantzesean". Izkuntza auek "bere ethorkia dutelarik latinetik, guziarekin ere diferentziatzen dira elkarren artean; batak latinetik hartu tu hitz batzuek, eta bertzeak bertze batzuek; batak signifikantza batetan, bertzeak bertzean...; batzuek letrak kenduz, bertzeak berretuz; bertze batzuek letrak aldatuz, edo kanbiatuz eta trukatur; batek labur zena egin du luze, eta bertzeak kontrara luze zena laburtu du... Eta halatan, guztietan ageri da apur bat gora behera batean gehiago, bertzean gutiago, nondik duten bere ethorkia; eta oraino hautan ere kausiten da, izan arren hizkuntza eta eresuma berekoak, diferentzia badela herritik herrira hitzetan eta mintzatzeko maneretan. Batzuek delikatu, bertzeak moldegaizki; batzuek mintzoari emaiten diote bertzetarik mintzaira diferenta; ordea, hargatik hekien hizkuntza mueta bat da, hala nola eskuararik bat baizi ez baita". (Euskararen Hatsapenak, 54).

Onela itz egin zigun bere liburu batean, Eskuaren hatsapenetan. Eta Lapur-

diri zuzendutako Gomendiozko Karta edo Gutunean dioena are argiago eta gogorragoa da:

"Eskualherritik ilkhitzen garen bezain laster, hizkuntza arrotzen premian jartzen gabela. Eta oraino, bertzalde, geure herritik ilkhi gabe Eskualherrian berean barena, geure artean dugu pena eta nekhe ondikozko hau: zeren geure hizkuntza propiala baitarabilagu hain nahasia eta trukatua, non eskualdunok gerok pena eta nekhe baitugu elkarren aditzeko.

"Ezperen bat bedi Nafarroa Beherearra edo Zuberotarra Bizkaitarrarekin, edo Alabesarekin, eta Otxagabiarra edo Erronkalesa Baztandarrekin eta Lapurtarrarekin, edo zein-nahi Eskual-herriko aldebatekoa bertze alderdikoarekin, eta ikhuziko duzu elkar ezin adi dezaketela; aitzitik, elkharrri irudituko zaizkio Eskualdunak direlarik, ez tirela hizkuntza berekoak" (318).

Au irudipen utsa dala esan digu leentxeago. Euskerarik, izan, bat bakarra baizik ez degula. Baiña nondik dator gure arteko ezbear au, ezin aditu au? Jakingarri dala uste det Etxebarrik ortaz dioena: "Hau heldu da, Eskualdunek bere hizkuntza propiala ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki guztiek bere hizkuntzan izkiribatzen duten bezala, Euskaraz izkiribatu faltaz. Baldin bertze hizkuntzetan bezala, izan balira lehenagotik liburuak eskuaraz izkiribatuak, hetan begiratuak eta altxatuak egonen ziren gauzen izenak, eta mintzatzeko hitz eta manera eskuarazkoak; eta gisa hunetan baliatu ginakeen hetaz mintzatzeko. Baina nola izan baitira hain apurak eta gutiak ezkuaraz argitarat ilkhi diren liburuak; hargatik aldebatekoak ezin jakin zetzaken bertze alderdiko hitz guztiak eta gauzen izenak. Eta hala denborarekin edozein lekhan joan izan dira hitzak eta gauzen izenak apur bana emeki emeki, bertze gauza guztiak bezala, trukatu, eroriz eta ahantziz" (319).

Emen eman digun iritzia ez al da gogotan artzekoa? Gure artean euskeraz idazteko oitura zabalduagoa izan bagenu, batzuen eta besteen euskera ezagutzeko aukera ohea izango genuen. Orrela, bazter bateko itzak bestera zabalduko ziran, eta ez ziran besteentzat ain arrotz eta bitxi izango. Orrela euskaldun guztiok elkar aberastuko genuen, eta aberatsago eta ugariago egingo geure euskera.

Baiña beste ezbearrik ere izan degu euskaldunak eta ez du Etxeberrik salatu gabe uzten: "Lehenago Espaiña guztian eta Frantziako anhitz herritan Eskuaraz bertze mintzorik etzelarikan, egun dakusagu zein herri gutitan mintzo garen eskuaraz; eta oraino mintzo garenoi ere eskas zaizkigu hainintz hitz eta izen lehenagokoetatik. Zeren hekien lekhan hartu baititugu bertze batzuek hizkuntza arrotzetarik; eta hek ere ez gisa berekoak guztiak; zeren batek hartu baitu hizkuntza batetik, eta bertzeak bertzetk".

Ez ote dago argi asko? Gure izkuntzak ainbat adar ezberdin izateak baditu bi iturri, Etxeberriren iritziz: batetik, gure literatura urna eta elkarrekin artu-eman gutxikoa izateaz, antxiñako euskeraren ondasun asko galdu egin ditugu eta lekuren batean bizirik iraun duten itzak ere ez dira beste lekuetara zabaldu. Bestetik, galera ori naiko ez dala, inguruko erderetara jo degu itz berri eske, galduen utsunea betetzeko. Eta inguruko erderak bitik gora diran ezker, ezberdintasuna geitu eta aunditu besterik ez degu egin, eta gura arteko zuloa, aditu eziña, aundiago biurtu.

Orra, euskeraren zorigaitza, egoera negargarria. Orra zergatik idazleak ainbeste kontua erabili bear duen, aztamuka, zoritxar ori irakurlearen onetan nola garaituko.

Mendiburu eta Kardaberaz

Kontu eta ardura ori ez zan izan Bidasoaz andiko idazleena bakarrik. Emendikoena ere izango da, emendikoak literaturarako beranduago esnatu bagiñan ere.

Amazortzigarren mendean asi giñan aspaldietako lozorroa astintzen. Larramendi aundiaren iritzi eta bultzadarekin batera. Ba-ditugu orduko bi idazle ugari eta bikain: Mendiburu eta Kardaberaz jesuitak. Bigarrena, zuen erritarra, Ernaniko semea.

Biok ikusi zuten euskera puskatan zatiturik. Biak jakिñean daude zatiketa orrek nolako kalte eta okerrak ekartzen dituen euskal-idazlearentzat.

Mendiburu mugaz andiko Etxeberriren iritzi berdintsukoa da. Euskerazko libururik gabez, euskeraz anitz itz galdu ditu, eta nonbaiten bizirik gelditutako asko euskaldun guztien ez dituzte aditzen. "Badira Nafarroan, euskarazkoak izanagatik, Probintzian geienak aditzen ez dituzten izketak edo itz egiteak, baita Probintzian ere Nafartarrentzat berriak diruditenak; eta Probintziako bazter batzuetan aditzen dira beste askotan aditzen ez diran zenbait itz egite".

Beraz, Mendiburuk zer egingo du? "Non-nai aditu ditezkeanak billatu ditut, alegiñean artzen ditudala orretarako, euskerazkoak utzirik, beste zenbait itz". (Jesusen Bihotzaren Debozioa).

Orrela esaten dio Jesusen Bihotzaren Debozioa-liburuaren sarreran irakurleari. Liburu oni Larramendik jarri zion beste itzaurre bat. Edo, zeatzago esateko, liburu orrek itzaurre bezela, Larramendik Mendibururi egindako karta dakar, orduko euskaldun gaizki-esale berritsuentzat batere leguntasunik gabeko karta, benetan. Gogor erasoten die Larramendik or euskera gutxi esten duten euskaldun eroei. "Gogaikarriena da, txarlari oiek ikustea ta aditzea nola dauden ixekaz ta muxinka euskera ederki dakitenean jolasari, bein Nafarroako *mintzoa* dala, gero Bizkaiko *berbetea dongea*, batean *ausaz ere* Goierriko izketa dezula: bestean, *noaskiro*, Beterrikoa; atxurlarien eta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, eta milla onelako astakeria. Ez dute izen oberik merezi".

Mendibururi, berriz, esaten dio ongi egin duela bateko eta besteko euskera naastean erabiliz. "Ongi egin dezu Nafarroa'ko hitzen batzuek ekartzea, egokiak diranean, eta besterik ezteanean. Zeren lenbizian eta bat-batean aditzen ezpadira, aurki adituko dira eta geienak dagoaneko aditzen ere badira; eta ala euskera bide batez edertzen eta ugaritzen da. Etzaitzabela tontotzarren erausiak ozpindu eta ikaratu... Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik ez tala onelako hitza emengoa, edo ez tuela aditzen? Nafarroan *irri*, Bizkaian *barre*, Probintzian *fara* egiten zaiela onelako ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ez-pagendu. Gizon zuhur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, ez tiegu jendalla oriei jaramon bear, ez eta aien esamesanaz ajolarik artu".

Urrengo liburuetan ere bide berdiñetik joko zuen Mendiburu zentzuzkoak. "Liburua bazter guzietarako egiña da, ta itz guztiak ez dituzte era batean bukatzen euskaldun guztiak... Liburu onetako euskera len egin nuenarena baño errezagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen bezala... Eta bein edo berriz zerbait galduagatik, laster oituko dira aditzen dituzten itzetara; eta beste bear ez diranak utzirik, artuko dituzte beren hizkuntzatarako itz euskaldun garbi leunak". (Otoitzgaiak, I, irakurleari).

Zer esan nai du onek? Euskaldunok bata bestearen bearrean gaudela, noski, elkarrengatik ikasi bearra degula, euskera osoago eta batago egiteko. Ez gaitzekela bakoitza bere euskalkian sartuta gelditu, euskalkien gaiñeko euskera batera jo bear degula. Ortarako, gutxi ba zan ere, egin zuen zerbait Mendiburuk. Zuur jokatu nai izan zuen, bear bada zuurregi. Itzik zabalen eta adituenak erabiltzearen, orrela, gure ondasun asko lurpean utzi zituen, erraztasunari begiratu. Euskalerrri osoan ezagutzen ez ziran itzen batzuk erabili bazituen ere, ez asko. Bataunaren billa dabillenenak maiz egin dezake oker au.

Delako oker au Kardaberaz'ek ezagutu zuen, eta nolabait osatzen saiatu zan. Mendiburu Nafarroan bezela, Kardaberaz batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan zear ibilli da Jaunaren itza zabaltzen. Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko euskera egiten bada-

ki eta bietan idatzi du. Eta beti euskerarik jakiñenean, au da, batasunera jotzen duela. Gipuzkoako euskera utsa egitea ere ez zitzaion Bizkairako eragozpen; geienek atsegiñez entzuten zuten an gipuzkera. Baiña an ere ez ornen zuten urrutiagokorik ongi aditzen. Eta bertakoa gogozago entzuten zieten, noski. Orre-gatik, Kardaberaz'ek nai luke, Mendiburuk Nafarroarako egin duena beste nor-baitzuk Gipuzkoara'ko eta Bizkairako egitea: kristau-erakutsizko liburuak bietan atera. Gipuzkoak eta Bizkaiak ez dute Nafarroak baiño gutxiago merezi, eta premia andiagoa dute.

Ala zion berak: "Alta Mendibururen zelo andiak Nafarroako erara liburu eder probetxuzko asko atera dituen bezala, Jainkoaren ontasunari eskatzen diot, Bizkaiko biotz nobleren bati ango era ta dialektoan zeruko dotriña ta ejenploen liburuak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz bete bat eman diozala... Arimen onerako Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako iru dialektuetan eskribitza gutziz premiazkoa eta gauza bearra da. Gure izkera bien erdikoa bezala, Nafarroan eta baita Bizkaian ere aditzen da. Baiña ez Nafarrak Bizkaikoa, ta ez bizkaitarrak nafarrak aditzen dute; ta bata besteagandik urruti eta bakoitza bere bidetik dabil. Jainkoak zuzendu ditzala bre gloriarako". (Euskararen Berri Onak, 63).

Kardaberaz ez dago, orraitio, lan ortarako beste iñoren zai, eta berak ekingo dio lanari. Baiña nola idatzi? "Emen usatzen dan izkerarik jakiñenean", Bizkaiko ta Gipuzkoako jakintsu askorekin itz eginda gero. Bizkaieraz ere bai. Eta Bizkaitarrentzako liburu batean, lege zentzuzko eta egokiak ematen ditu, Bizkaiko euskeraz jatorrago eta garbiago idazteko.

Mogel

Sail au bukatzeko, Bizkaitik datorkigun iritzi bat jaso dezagun. Mogel zaarrenaren liburu bikaiñean, *Peru Abarkan*, arkitzen degu, bostgarren jardunean. Peruk eta Maisu Joanek elkarrekin darabilkiten jardun ortan, azken batean, beste bi sartzen dira izketa-lagun, bata giputza, eta bestea Bidasoaz andiko euskalduna, "prantzesak". Peruren adiskideak dira biak, eta bakoitzak bere euskeraz diardu. Ez dute irurak elkar aditu eziñik, bakoitzak bere euskera erabilliarren. Maixu Joanek ez dio ain ondo ulertzen prantzesari. Arriturik dago, entzuten duen izketa euskarazkoa danik siñestu ezinik. Ortik sortzen da onoko eztabaida au:

"Peruk: Ez dakit onen euskeria aituko dozun.

M. Joanek: Zer, euskeria izan ta nik aitu ez?

Peruk: Ni eginda nago onei entzutera, ta zuri baizen ondo aituten deutset".

Peruk prantzesarekin jardunalditxo bat eginda gero, ea ulertu dien galdetzen dio Maixu Joani, eta onek erantzun:

"Berba banaka bat bai, ezer ez geiago. Orren arin esatea, jijjaka berbak aitatu-tia ez da neretzat". Eta ez du siñestu nai euskera danik ere entzun duena, bai adarra jotzearen asmatutako izketaren bat. Eta Peruri berriz galdetzen dio:

"Peru, ta zuk aituten dituzula berba-saltsa ta gatx orrek?"

Peruk: "Bai nire emazte ta umiak bere".

M. Joanek: "Zelan ori, itoaren itoz eta arin esan biarrez ta arnasa-ots batzuten artean badiño guztia?"

Peruk: "Alan uste dozu zuk; baiña egingo baziña soinu onetara ta aitu berbak, etzenduke orrelangorik esango. Neuk bere lenengoz etorri zanian, ez neutsan zeuk baiño geiago entzuten; baiña orain txit ederto derizt".

Prantzesak berak aitorten berdintsua, antzerakoa, egiten du:

"Meri ere Bizkaira ethorri nintzen lenbiziko egunetan, zuri bezela gosta zitzaitan emengo euskera aditzen. Orain berriz nerea bezela aditzen dut".

Peru Abarkan ikusten degun prantzes au ez da, noski, Mogelek asmatua. Prantziako matxinada inguruan, mugaz andiko euskaldun eta erdaldun bat baiño geiago, askotxo, etorri zan onuntz, eta Markiñan ere gelditu zan bat edo beste.

Arrezkeroko abizenik ere bada gaur Markiñan, bat Duralde beiñik bein. Eta olako orri gertatuak argi berria ematen digula esan genezake, gure euskeraren banatasuna eta batasuna ikusteko. Euskera, zatitan banandua egon arren, bat dala adierazten digu. Etxeberri Sarakoak zioena. Eta elkarrekin jarduteak, artu-emanak izateak asko laguntzen duela esaten digu besteen euskerara belarria oitzeko, eta batasunera bidean jartzeko.

Emen bukatzen det itzaldi onen leenengo saila. Iru edo lau irakaspen atera ditzakegula uste det esan degunetik. Gure klasikoek erakutsi digute, leenbizi, gure izkuntza banandurik, zatiturik, dagoela, euskera ez dala euskaldun guztien gan berdiña.

Gero, idazle batzuek erakutsi nai izan digute zerk egiten duen, nondik datorren euskera ain banandua eta zatitua egote ori. Elkarrekin artu-eman gutxi izatek ornen dator geien batez, elkar gutxi ezagutzetik, literatura urria eta ezberdiña izan eta bera ere ez irakurtzetik. Gero, idazleak geienetan beldurrez bezela ibilli dira, irakurleek ulertuko ez ote dituzten. Orrela euskera murriztera egin dute; leku bateko euskera bestekoarekin aberastu bearrean, uzkur ibilli dira, beldur izan dira bakoitzak bere aberastasunak besteei eskaintzen. Eta ez da or gelditu gure okerra. Txarrena izan da erderara jo degula, guk uzkurtasunez eta beldurrez galtzen utzitako itzen utsuneak betetzera. Ortik ere banakuntza-iturri berri bat sortu zaigu, bakoitzak urbillen izan duen erderara jo duelako, emengoak Gaztelakora, eta angoak Prantzia eta Biarnokora.

Euskera zatitu ori ikustean, zer egin dute gure idazleek geienetan? Ahalik eta euskera batuena, jakiñena eta zabalduena egiten saiatu. Neurri urrian baizik ez dute egin Laramendik Mendibururi esaten ziona: noizik bein beste euskalkien bateko edo beste erriren bateko itzak erabiltzea. Mendiburuk egin zuen, bai, noiz edo bein, eta ori euskerarentzat aberasgarri izan da. Geienak beldur ziran, erreztasunera, ulerterrazago izatera jotzearren. Mogekek esan digunetik atera genezake ez zutela orrenbesteko beldurrik izan bear. Badirudi Mogel ez datorrela guztiz bat Kardaberazek eta Etxeberri esan zutenarekin: alegia, Bizkaiko euskaldunak ez duela Naparren euskerarik aditzen. Artara oitzea, ori da guztia, or dago kakoa. Peruk eta Prantzesak leenbizikotan ez zuten elkar aditzen; gero, berriz, edeki. Elkar entzutera oitzeak dakar aldaketa ori.

Gaurko egunetan ere, orixe litzake askoren iritzian, batasunerako biderik garbiena.

II

Bañña oraingo joerak beste bide batetik dabilta, noski. Leenagoko idazleek, klasikotzat dauzkagunek, nolabaiteko batasuna egin-naia ba-zuten, bai, bakoitzak bere euskalkian bederen. Orain gorago jo nai da: euskalkien arteko edo gaiñetiko batasuna lortu nai da, euskera idatzian beintzat. Beste izkuntza landuetan bezela, euskaldun guztientzat euskera bat jarri nai da eredu nagusi, eta ori goitik bera ezarrita.

Joan dan mendean, emeretzigarrenean, asita gabilta asmo auetan. Eta leen leenik, ortografiatzko batasuna egiterako joera izan genuen.

Nortzuk izan ziran aurrelari? Nortzuk eman zituzten leenengoko urratsak, pausoak, emen, ortografiaren sail ontan? Saia gaitezen erantzuten, ea askoren iritzi okerrak zuzentzeko aiña argi egiten degun.

Askok uste izan dute, eta uste dute oraindik, ortografiatzko auziak gure artean Bidasoaz onuntzeko euskaldunok sortuak ditugula. Eta ez asmorik garbienaz sortuak, gaiñera, erdaldunenganik bereiztearren, edo gere buruak nabarmentzearren edo olako arrazoiren bategatik. Ez da ola, ez ala. Oso bestela baizik.

Gai ontan bide berririk urratzen ez giñan emen asi, Bidasoaz andiko aldean baizik. Nondik asi bear zuen? Literatura asi zutenen aldetik asi bear. Berezkoa

da. Esaterako, Leizarraga bera asi zan K erabiltzen: bekatu, ukan, ekarri eta ola, geroagoko beste batzuen kh-ren ordezkua. Toki berean Etxeparek beccatu jarzen zuen, h-rik gabe, bi letrekin, baten orde. Jakiniak dira, edo jakintzat ematen ditugu Oihenarte-ren alegiñak, H letratzat ez on artzeko. Au ere neurri batean Leizarragaren eskolakoa zan: baiña ura baiña aurrerago zijoan: beka, adiskide, uken, bekaiz, eki, eta ola idazten zuen, eta beste tarteko H-ren ordezkua kakotxo bat erabiltzen zuen: *bet'e*, ez *bethe*.

Baiña antziñakoen ezbai eta joerak utzita, goazen oraintsuagoko batzuetara, XIX'garren mendeko saio berrietara.

Aipatzekoak dira bi bide-urratzaile: 1838-n, *Andre Dena Mariaren Ilhabethea* argitaratu zuena, eta Luis Luziano Bonaparte. Nor zan leenengo ori? Badirudi gero ere idazten jarraitu zuen apaiz bat zala: Jauretche apaiza.

Nola nai ere, 1838'ko liburuaren egilleak bide berri bat urratu nai izan zuela ukatzerik ez dago. Argi eta garbi esango zuen euskerak bere idatz-legeak, bere ortografia izan bear zituela; eta berak ortarako arau batzuk ematen zituen.

Onen urrengo, Bonaparte Printze jauna izan zan bide ortan pausu berriak emango zituen. Ez zan bera euskalduna. Ala ere, Euskalerriko euskera berezi guztiak, aztertzeko ari baitzen, beste iñork baiña argiago ikusi zuen ortografia berri baten bearra, eta euskerarentzat egokiena zeritzana asmatu zuen.

Bi auen ondoren, eta beraien bidetik datoz gero Bidasoaz onuzko saioak. Bonaparteri jarraituko zion Manterolak gure artean, eta Jauretche eta Bonaparteren ildotik ekin zion Aizkibekek bere Iztegi aundian. Geroago sartu ziran Azkue eta Arana Goiri, bide berriei azken eskualdia edo ikutua ematen.

Baiña goazen poliki eta astiro, eta ikusi dezagun nondik nora zebillen *Mariaren Ilhabethearen* egilea 1838-n.

Aurrenik, gure ortografiaren anarkia erakusten zigun, gure arteko legerik eza, araurik eza.

Euskal-idazleek erdal-ortografiari jarraitu ornen diote geien batez. Baiña argi ornen dago euskerak bere soiñu eta otsak ba-dituela eta ortaz bere ortografia bear duela. Ez bedi aipatu oraiñarteko usakio edo oiturarik. "Ez bedi ekhar, dio berak, oraiartinoko usaia; usaia klarki gehienentzat kaltekor denean, utzi behar da gehienentzat ona denaren hartzeko". Onekin ez du besterik eskatzen euskerak beretzat on dituen letrak artu bear dituela baizik, eta on ez dituenak utzi. Idazle onek ez du nai bere burua ortografi berri baten asmatzaille azaldu. Gai ontan jakintsu diranen irakatsietatik euskeraz idazteko legeak atera, besterik ez du egin nai.

Iru dira Jauretche dalako onentzat legeak: leenbizikoa, izkuntza bakoitzerako ez degu artu bear izkuntz ortan ez dan soiñu edo boza dakarken letrarik: bigarrena, soiñu edo boz bakoitzarentzat ez da bear letra bat bera besterik; irugarren legea, oraino gutxiago erabilli bear da letra bat bere soiñu bi edo geiagorekin.

Iru arauok gogoan dituela, idazle onek letra batzuk kendu egingo ditu euskal-alfabetotik: q, *ŷ* eta y; g-k beti soiñu berdiña izango du; berdina nai du c letrarentzat, edo kendu eta aren orden *k* erabilli; z biguñaren ordezkua danean, beti *zeta* idatzeko ez du ezer berririk asmatu eta leenean utzi ditu, bata frantsez erdalduen *ch* utsa, eta bestea, berriz, *ch* ori bera, *t* aurretik duela.

Jauretchek eman gabeko pausuak geroxeago Bonapartek emango zituen. Eta or daukagu, azken batez, Aizkibekek eta Manterolak Gipuzkoan eta Luis Iza Agirrek 1881-garren urtean Bizkaian sartu zuten ortografia.

Orduan asi ziran Bidasoaz emendik xeetasun geiago eskatzen eta laster agertzen dira Azkuek eta Arana Goirik zabaldu zituzten legeak.

Bi auen inguruan sortu ziran eztabaidarik gogorrenak, beti elkarrekin aditu eziñik, batzuek eta besteak elkarri amor emateko gogo gutxi erakusten zutela.

Eztabaida auek mugaz emendiko aldean gertatzen dira. Baiña, azkenez, ango

eta emengo, guztiek elkar artu eta ulertu naia erakutsi zuten. Orretarako batzorde bat jarri ere bai, Adema Zaldubi idazlea buru. Utsean gelditu zan dana. Batzordeak porrot egin zuen. Eskola guztietakoak ziran tartean, Arana Goiritarren aldekoak ere bai. Batzarrak uts egin zuen. Noren erruz? Bototara erabaki bear ziran eztabaidak, eta Aranatarrak beste guztiak baiño batzarkide geiago ziran batzarrean beren artean gai artan iritzia emateko eskolarik naiko ez zutenak ere bai, besteek ziotenez, eta orrela besteok ez zuten jarraitu nai izan. Orrela aurrera egiterik ez zegoela-ta, etorri zan bidetik itzuli zan bakoitza etxera, ezer erabaki gabe. Ez dago beste istillurik emen. Eta ortografiari buruzkoa zan auzi guzia, ez euskera batuarena. Ez da ere egia (oker dabilta bestela diotenak) ango eta emengoan artean orduan alkar aditu eziña sortu zala. Ain zuzen orduan edo ordutik aurrera artu zuen indarra ango eta emengoan arteko elkarte batek, *Euskalzaleen Bitzarrak*.

Urrengo alegiñak ortografi-batasunerako, Euskaltzaindia sortu zaneakoak dira. Ia ogei urte geroago. Euskaltzaindiaren eskuetan jarri zan auzia, eta onek eman zuen bere erabakia 1920-ko urtarrillaren 8-n, Aranatarren arau batzuk ontzat eman ez eta on artuz: *erre* gogorra ere, gaiñean puntu batekin, ontzat eman zuten, eta *d*, *t* eta *l* bustiak ere bai, gaiñean marratxo batekin, eta *x* eta *tx*, bata prantzesen *ch* eta bestea gaztelarrena idazteko. Azkenengo letra auetan zeukaten alde Azkue'k eta Aranak, ain zuzen, eta Euskaltzaindiak Aranaren aldera erabaki zuen.

Urte batzuk geroago, 1939-n bukatutako gerratearen ondoren, Euskaltzaindiak erdi ixilpean ziarduela, letra marradun edo txapeldun aien orde, letra bikoitzak erabilli zitezkeala erabaki zuten: *erre* bikoitza, alegia, eta *d* eta *l* bikoitzak. Ortan dago gaur ortografi-batasuna. Batasun nolako erantzuna izan zuen euskal idazleentzatean? Bidasoaz emendik, geien batez, aintzat artu zutela esan bearrean gaude. Bidasoaz andik ez zuen erantzun ain biribillik artu. Eta gaur ere orlan gaude.

Auzi ontan, norbaitek esan dezake ez degula H-ren aipamen aundirik egin. Gauzak gaurko begiz ikusita, emen utsune bat dagoela esan lezake norbaitek. Ez da olakorik. Zergatik egin bear genuen letra orren aipamenik, ortaz ez baitzan izan eztabaidarik ez auzirik, ez aurka ez alde. Bai; gaurko giroan sartuta dauden batek bear bada ezetz uste arren, ala da. Leenago ez zan izan oraingo borrokari: H bai, ala H ez. Emengoek ez ziran leiatu angoei H kentzen, eta angoek ere ez zioten emengoei letra ori sartzekorik eskatu. Ortografi-utsezko eztabaidak ziran ordukoak, zein soiñuri edo zein otsi zein letra egokiago zitzaion erabakitze-koak. Ori zan guztia. Eta H orri buruz, ain zuzen auzia erabakitza eman zitezkean: letra ori erabilli bear zan, letra orrek berea zuen arnas-otsa adierazteko. Oihenarte andiaren iritzia edo joera, H ori letratzat ez onartzekoa, euslerik gabe gelditu zan eta aazturik zegoen. Eta H-a or gelditu zan bizirik bere soiñua erabiltzen duten euskalkientzat, baiña andik kanpora iñork ez zuen ezer jokatu letra orren alde. Ez orren, ez Zuberotarren ü-ren alde.

Oraingo joera urte gutxiz onuzkoa da. Batez ere, Baionako batzarretik onuzkoa. Emengoan artean iñork leenago erabilli badu, ez da izan letra orri gure euskalkietan leku eman eta sartzearren, batasunerako euskeratzat Lapurtarren euskera edo antzekoa artzearren baizik.

Gai ontaz ez det luzarago jardun nai. Esana aski bedi.

(Jarraitzeko)
Lino Akesolo

ABANDO'KO NEOLOGO AUNDIA

ARANA GOIRI TAR SABIN, EUSKAL ITZ-BERRI ASMATZAILLE APARTA IZAN ZAN

Resurreccion Maria Azkue'k aspaldi batean izen au ezarri zion Arana Goiri'tar Sabin'i: "Abando'ko neologo aundia". Ta izan ere euskal alorrean ez da sekula izan, ez len eta ez orain, berak ainbat euskal itz berri asmatutakorik eta ezta ainbeste zabalduetakorik ere.

Larousse iztegiak au dio: "Elerti itz-berri asmatzea, nor-berak bere gain eta arrixku guztiekin jaurtitzen duan lan berezia da. Itz berri onek askotan iraupen motxa izaten ba du ere, garaipen aundia izan dezake ta izan oi du, ta berealaxe izkuntza barruan murgilduta gelditzen da".

Larousse'k neolojismo itzari esan-nai au eman zionean etzuan noski Arana Goiri bere gogoan eduki, baiña onen lana ezagutu ondoren emandakoa dirudi, berak sortutakoak oso arrera ona izan bai zuten eta berealaxe ziran erri osoaren aoan.

Bere idaz-lan guztien mikro-filma egiterakoan, ark idatzitako dana irakurri bearean arkitu nitzan eta lendik nekiana egiztatu zan: egindako lanaren erdia Euskera gaietaz idatzia zuala: batzuk euskeraz eta besteak erderaz; 500 orrialdeko iru liburu aundi osotzen dituzte. ¿Zenbatak irakurri ote dituzte aren idaz-lan guztiak? Ezbairik gabe oso gutxi, noski, ta ala ere, ezagutu gabe, gaizki esaka jardun.

Baiña gaur itz-berri oietaz bakarrik idatziko degu. "Deun Ixendegi Euzkotarra" Arana Goiri'k egiña da: izendegi onek izandako garaipena danok ao batez aitortzen dute. Euskalerrria'k ontzat emana du ta millaka euskal-izen alderik-alde zabaldua arkitzen dira.

Idaz-lan oiek irakurtzen ari nintzala, Sabino'k sortutako itz-berri guztiak jaso ditut eta bakarren batzuk galduko ba'nituan ere, 197'raño aurkitu ditut.

Batzuk ez dira oso ezagunak, baiña geienak ontzat emanak dira ta berrogeitamurte urte auetan euskaldunok egunero erabiltzen ditugunak.

Danontzat jakingarri izango diralakoan, ara emen zerrenda osoa:

A	
Abenda, raza.	Aintzaldu, glorificar.
Aberri, patria.	Antzoki, teatro.
Abe kide, compatriota.	Ali, alimento.
Abeftzale, patriota.	Alnastu, promiscuar.
Abes, voz musical.	Aldeztu, defender.
Abesau, cantar determinado canto.	Alderdi, partido político.
Abes-egin, cantar en abstracto.	Argitaldu, publicar.
Abesti, canto.	Artezkari, director.
Abeslari, cantor.	Arraingi, comida de pescado.
Abestu, entonar.	Auti, Verbo, Hijo de Dios.
Abetaldu, acoger.	Autarki, voto.
Abixen, apellido.	Auteskunde, elección.
Abots, voz.	Atzegun, vispera.
Agaka, abecedario.	Azkatasun, independencia.
Aintza, gloria.	Azaki, gramo.
	Aztakin, balanza.

B

Bakaldun, rey.
Bakaldunzale, monárquico.
Bakaulki, trono.
Bakalerrri, reino.
Bar, planta vegetal.
Barukaldi, témpora.
Batzar, junta.
Batzarkide, juntero.
Batzoki, sociedad, círculo.
Beldu, apóstol.
Besostun, pulsera.
Berrezarri, restablecer.
Berrogeikaro, cuaresma.
Bidekatu, descaminar.
Bizmen, vitalidad.
Biztandu, habitar.
Biztanle, habitante.
Bultzi, tren.
Burestun, corona.

D

Deun, santo.
Deundu, santificar.
Deunge, impío, malvado.
Deunoro, Todos los Santos.
Deuntasun, santidad.
Doibatz, Iglesia santa.
Doibazkatu, excomulgar.
Doipuru, Papa.
Donetsi, santificar.
Donoki, cielo de los bien
aventurados.

E

Edes, narración en general.
Edesau, historiar.
Edesakari, historiador.
Edes-egin, historiografiar.
Edeski, anécdota.
Edeslari, relator, narrador.
Edesti, historia.
Edestu, relatar algo.
Egutegi, calendario.
Egaki, pluma de ave.
Eles, descripción en abstracto.
Eles-egin, describir en abstracto.
Elesti, descripción, grafía.
Elestu, describir algo.
Erestun, anillo, sortija.
Efki, región.
Espetxe, cárcel.
Estuntza, cadena.
Euzkadi, nombre de la Patria de los vascos.

Euzkelgi, dialecto del Euzkera.
Euzko, vasco.
Euzkotaf, natural de Euzkadi.
Euskozale, vascófilo.
Ezkon, esposo (porque senar es
marido).

G

Gaizkatu, salvar.
Gaiztoki, infierno.
Garagardo, cerveza.
Gaudi, universo.
Gedin, vocal (letra)
Geldu, admirar.
Gezna, mensaje.
Geznari, mensajero.
Gogo, espíritu.
Gokaxo, ánima del purgatorio.
Gongotzon, Arcángel.
Goteun, Espíritu Santo.
Gotutz, espíritu puro, angel.
Gotzain, Obispo.
Gotzon, Angel bueno.
Goxarin, desayuno.

Idatzi, escribir.
Idazkai, artículo.
Idazkera, ortografía.
Idazki, carta.
Idazkola, oficina.
Idazkortza, pluma de escribir.
Idazkun, anuncio.
Idustun, collar.
Igeskaldi, fuga de vocales.
Ikaslari, discípulo, Seguidor.
Ikastola, escuela.
Iku , signo.
Ikurratz, sello.
Iku di, escudo.
Ikurri, significar.
Ikurrin, bandera.
Ikurritz, lema.
Igidin, letra consonante.
Ijeki, ejemplar de libro o periódico.
Ingi, papel.
Ingurratz, pliego de papel.
Ingurrazt, cuaderno.
Ingurri, hoja de papel.
Ingurti, folleto.
Ingurttiño, folletín.
Irasi, fundar.
Irakaskintza, enseñanza, doctrina.

Irakaslari, maestro (profesión).
Irakasle, maestro (afición).
Irazan, crear.
Itxorkun, dialecto.
Izkeltzale, aficionado a idiomas.
Izki, letra.
Izkora, marea alta.
Izpera, marea baja.
Izpanaldi, charada.
Izpar, noticia.
Ispel, ostra.
Izpijakera, fonética.

J

Jaupa, misa.
Jaupari, sacerdote.
Josulagun, jesuita.

K

Kedats, incienso.
Kistar, cristiano.
Kulatz, punto (ortográfico).

L

Latari, escriba, abogado.
Laterri, Estado.
Laurleko, peseta.
Lekaide, fraile.
Lekaiame, monja.
Lekaretxe, convento.
Lokarin, sueño ligero.
Ludi, Mundo, Tierra.

M

Minge, mudo.

N

Narreztu, arrastrar.
Nekaldi, Pasión.
Nekaldu, castigar.
Neskutz, Virgen.
Neurkin, metro.
Notin, persona.

O

Oben, pecado.
Oben-egin, pecar.
Obendi, pecador.
Opaldu, ofrecer.
Orlegi, verde.
Orkarte, paso.
Oztin, azul celeste.

S

Semekar, Unigénito.
Senaldi, generación.
Sendi, familia.
Sengi, de la familia.
Sendau, fecundar.
Sendu, engendrar.
Sen-egin, procrear.
Sentza, generación.
Sorkalde, Oriente.

TX

Txadon, iglesia.
Txaide, calle.
Txauno, capilla.
Txingi, joya.

U

Ugaztun, mamífero.
Ugutuz, bautismo.
Ugutzari, bautista.
Usano, usatórtola.

Z

Zaindari, Patrono.
Zenkaki, número.
Zendin, adjetivo.
Ziltza, tentación.
Ziñaldu, testificar.
Ziñesmena, fe.
Ziñopa, mártir.
Zorun, felicidad, bienaventuranza.
Zorundun, beato, afortunado.
Zugazno, arbusto.

Arana-Goiri'tar Sabin'ek asmatutako euskal itz-berri guztiak edo geienak beintzat zerrenda batean jartze-lan au lenengo aldiz egiten dana da nere ustez: onekin, gure Maixu aundiaren nortasuna ta euskaltzaletasuna danon eredu ipiñi nai izan det.

Euskaldunok edo euskaldun berriak lantxo ontan zerbait jakingarri aurkituko ba'lute, orixe litzake nere pozik aundiarena.

Jemein'dar Keperin'en lanetik Otarri'k euskeratua

EGINBIDE NAGUSIA

Gizonaren bizia, bere eginbide ta eskubideen oreka bat dala esan genezake. Atsegiñak, oñazeak, nekeak, yoranak, jokerak, oiturak,... eragiten diote gizonaren biziari, baña guzti oyek beste zerbait dira ta lenengo bietatik at dagozela begira ditzakegu, ta talde bien artean ezberdintasun aundia dagoela oaf dezakegu; ezberdintasun ori ontan ikusteko edo: Lenengo bietan naimena da beti ari-izateko, naiz eginbideak betetzeko naiz eskubideak gozatzeko ezinbestekoa baitirudi naimena erabiltzea. Biga en taldean ere naimena age diteke, baña ezta iñola ere baitezpadakoa ez eta noraezakoa be, guzti oyek naimenik gabe so ditezkelako. Ofengatik albora ditzekagu gaurkotz, lenengo biai buruz ari-izateko soilki.

Alakotz, gizonaren eginbide ta eskubideak geratzen zaizkigu zeatzago begira ta aztertzeke, biek eraginda gizon guztien bizia eratu dala oa dezakegulako. Noski, gaurko ontan, eta beti ere, askoz geyago aipatzen dira eskubideak eginbideak baño, ta bidezkoa dala deritzaigu o elaxe jazotzea, gizona, berez, geyago ala gutxiago, berekoya dalako; bai, e ezago makurtzen gera gozatzeko dugun danarekiko, lana ematen digunerako baño.

Ori dala-ta, bereizi ditzakegu alkafetik bi asmo oyek, eta eskubideetaz nun-nai, sa i ta goraki mintzatzen dan ezker, gaur eginbideak aztertzean zeda itu deza-kegu gure azterketa; bai, askoz gutxiago aipatzen dira eginbideak gizonen artean eta, geron iduriko, oso egokia izango litzake guzientzat oyetaz anitz geyago aipatzea, begiratzea ta sakontzea be, apika oso bide ona izango litzake ori gizonen artean gentza sendoago jartzeko.

Goazen, beraz, geron aldetik, gaur arazo ori emen erabiltzera, ta eginbideak ere asko diralako, zeda itu dezakegu oindiño geyago ebazkizuna, ta begira dezagun zeatzez, euzkaldunok geran ber, gizon euzkaldunak bere E i'arengana-ko, bere abe iarenganako dituen eginbideak zeintzuk diran eta oyen artean nagusiena ere zein dan, guziok onartu beaf duguna nolakoa zaigun.

Bai, euzkal-gizonak bere Efi'arekiko, Euzkadi'renganako duen eginbidea, eginbide nagusizat artu beaf dana, euzkaldun guziori dagokiguna ta guziok bete bea duguna. Ofi buruz yardutea ezinbestekoa dala deritzaigu ta iritzi ofek narama gaur le otxo auek betetzera. Alik eta ongienik aurkeztu nai-izango nuke, anayak ditudan beste euzkaldun guziek neuk bezela ikus dezaketen antsiz bete-rik.

Gure gizadi au gizonak betetzen dute, jakiña; baña bai ta gizonak betetzen dituzten beste taldeak ere; ende iak deitzen ditugun talde bereziak eta bizian barna sortu ta eratuak izan diranak. Gure aldetik iru mail auek oartzen ditugu Ludi'aren bizian: Gizona, Endefia ta Gizadia; ta irurak ditugu berez sortu diranak; o engatik guzien aldetik ontzat artu beaf diranak. Ba-dagoz Late iak ere, ga antzi aundiko beste taldeak; baña auek ez dira bizian berez sortu, geyenetan gizonen ifitsak eta indarkeriak izan dira beren sortzafek; o engatik ezin esandako beste taldeak bezin aintzakotzat artu, ta ez tiegu gure xedeetan tokirin emango, bidega-bekerien semeak diralako... geyenetan.

Goazen, arean, lenengo iruai buruz azpegi batzuk aipatzera. Lenengoz, naiz gizonak naiz endefiak eta gizadiak, bakoitzak bere mail eta neufian, beren esku-bide ta eginbideak dituztela onartu bea da. Alegia, naiz bati naiz besteari buruz askoz geyago mintzatzen da eskubideetaz eginbideetaz baño; gizonen eskubi-deak amaika aldiz eta era guzietan aipatzen dira eten gabe ta deadarka ere; ta ona izango litzake bere eginbideak ere goraki gogoratzea, baña ortaz ixiltasuna da alde guztietan oartzen dana, zoritzafez.

Geuk emen oyetek gogoratu nai ditugu, bai ta ende ien eskubide ta eginbi-deak ere; batzuk eta besteak bea ezkoak diran eraetan ikusten, alka i buruz dagozenak eta izan beat diran bezela.

Ende iak, gizonak bezela, Ludi'aren bizian barna berez sortutako izakiak dira; orixe ukatu ezin diteken egipena, ta egipen ortatik sortzen da lenengoentzat eta biga enentzat eskubidea bera: BIZIARENA; nork uka dezake eskubide ori? Eta bakoitzaren bizia, egitan, egipen sendoa izan dedin, beste guzien aldetik ontzat artu beaf da; ezin iñork bizi o i oztopo txikiena ja i. O a, beraz, gizonarentzat eta ende iarentzat lenengo eskubide aundia, biziarena.

Eskubide o ek, ondorioz, eginbide au soferazten du: Bizi ofi eusteko eginbidea, norberak eta besteen aldetik bete bea dana, zalantzik ez ortaz. Edestian barna maiz ikusten da, ori egin orde, eskubide ori askoren aldetik zapalduta izan dala, eztabaidak, lipiztak eta bu ukak so erazi arte; gaurko ontan be amaika ofelakoak Ludi'an barna.

Gu, euzkaldunok ere, gizonak gera ta talde berezi bat osotzen dugu, gure endefia, alegia; ta naiz gizonak bezela naiz endefia geran aldetik ba-ditugu gure eskubideak beste ludita guziak bezela. Alakotz, bai euzkal-gizona bai euzkal-ende ia bizi-izateko eskubide osoa dute, beste gizaki guztiek ontzat artu bea - izango luketena, naitaezkoa dan begirune aundienaz gañera.

Baña geron aldetik eta gure ende iari buruz, ez eskubide baka ik, eginbide ertsia ere ba-dugu, gure ende iaren bizian eusteko bere bea dugun eginbidea. Azpegi orokafean ori, eiki, baña ba-dago beste azpegi berezia, emen bereziki aipatu nai duguna.


Ende ien egipena ortxe dago ukaeziña; eta ortan ere beste azpegi au ikusi bea da zeazki: Ende iaren bizia gogo-bizi bezela begiratu beaf dugu, ta gogo-bizi ori da berezienik begiratu beaf duguna. Onelaxe: Geyenetan ende i bakoitzak bere izkuntza du ta izkuntza ori da ende iaren gogo-biziari eutsi dizayokena; ta, ots, gogo-bizi ofi eutsi al-izateko eztago besterik izkuntza baño. Auxe da a eta aundienaz begiratu beaf dugun arazoa, ongienik atemateko ta, ondorioz, egin bea duguna betetzeko; orixe guzientzako lege aundia lez onartu bea dana.

Gure ende ia Euzkadi da; gure izkuntza euzkera da; ta euzkera dugu Euzkadi'ren gogo-biziari eusteko bide bakafa. Ortarako, enurarik ez, euzkera geron baitan eta geronengan bizi beaf da, bere eginkizun eta elburua bete ditzaken. Ondorioz, euzkaldun guzientzako eginbide bera ta aundia sortzen zaigu: euzkera ongienik ikasi, gure ezpañetan eten gabe erabili, orobat gure lumaetan, gai guzietarako bidetzat artu ta gure E i'aren bazte guzietaraño elerazi.

O a euzkaldun guzientzat onartu ta betetzekoa dugun eginbide nagusia, orok naimen aundienaz norberarentzat artu bea duena. Ezinbestekoa da euzkera Euzkadi bizi dedin, auxe da buru guztietan sartu bea dan egi aundia, iñork ukatu ezin dezakena. Beraz, E ia benetan maite duenak argi, oso argi, ikusi bea du zer egin eta bete bea duen. Ezin diteke ori ez betetzeko sa i entzuten diran aitzakiak ontzat artu; aitzaki ta oztopo guzien gañetik gure eginbidea da begiratu bea dana, guzien aldetik beteta izan dedin, bakoitzaren inda ak eta almenak eldu ditezken mafaraño; inda eta almen oyek ez dira, noski, guzientzat berdiñak eta ofengatik eziña izango da guziak mail berberaraño eldu; baña iñor ezin gera diteke elburu ortarako bidean sartu gabe geratu. Eginbidea ororena dugu ta guzientzako berbera izan beaT.

Ofela dakusgu geuk gure artean ororena dan eginbide nagusia, ta ezinbestekoa bezela guzion aldetik onartu beaf da. Orixo, gañera, Euzkadi'ren alde egin diteken lan egokiena, sendoena, ga antzidunena. Gure endefia, gure abe ia egitan maite badugu ezin ortaz ezpairik izan.

U estarazu'ta Andoni



IDAZTE ARAUAK

Goi-kakotx bikoitza: alemaneraz asierakoak beean eta bukaerakoak goyen jartzen ditude eta „Gánsefusschen" esaten diode. Obe **kakotx-bikoteak** esatea.

Egin dezagun gaztelaniz onako errezkada esaten dala: "Han comido sopa, cocido, merluza, chuletas, arroz con leche, y para remate, manzanas y peras". Orko bee-kakotxak eludeke berdiñak izan bearr: azkenekoan doñua goratu egin bear baita; Altube'k doñu-goratze ori adierazteko' kakotxa goyen jartzea obe zala zion, eta arrazoizkoa iduritzen zait: "... arroz con leche, y para remate' manzanas y peras". Askoz egokiago da: kakotxa beean' doñua beera; kakotxa goyan' doñua beera.

Zenbatgarrena adieraztekoan: Zenbakarrena adierazteko: 100'gna, 9'gna. 1980'go: **larogeigo** ezta esaten; larogeigarreneko esan oi da; agian 1980'gko. **urtarrillak 26 ditu gaur:** gaur urtarrillaren 26'gna da. **Urtarrillak 26** eta orrelakoen ondorioa ikusia degu: **Biar, astelenak 7** eta orrelako astakeriak.

Galde-ikurra. Batzutan galde-ikurraz asi eta asperen-ikurraz bukatu bearra gertatzen da: **¿Ze esaten ari aiz, txatxu ori!** Alderantziz ere gerta liteke. Gaiñe-rra' galdera non asten dan ezagutaraztea askotan komeni da.

Elkar-ikurra: altzartze-ikurra obe. a), c) eta d) onelatsu bateratu ditezke: Lokarria esateke uzten danean' marratxo baten bidez adierazten degu palta dan lokarri ori.

Aditzari atzizki antzera lotzen zaion -TA ori **eta, ta** berbera da, joskera aldatzen danean; orrelakoetan BAITA edo EZPAITA erabiltzea obe:

Eztaki, eta ezta erantzun; trenak iges egin dio, ta berandu etorri da; Au nere Gorputza da, ta artu ta jan zazu; Eztu erantzun, ezpaitaki; berandu etorri da, trenak iges egin baitio; trenak iges egin dio, berandu etorri baita; artzazu (te) jan, au nere Gorputza baita. Azkeneko onen ordeaz **da-ta** esatea Bereziartua'tar Lorentzo gotzai jaunaren erabakia izan zan.

Nekatutako mutilla: mutil **nekatua** obe; **gosetutako** gaztea: gazte **gosea** obe. Nere aita zana euskaltzain batzuekin Lapurdi'ko erriren batean: mutil koskor bat ogi aundi batzuekin; norbaitek galde: **-,Ogi guzti ori yan behar duka?** Eta mutikoak erantzun: **-Enaiz gose.** Orduan Aita Olabide'k: **iBai ederki esana!** Guk "goserik eztaukat" edo orrelakoren bat esango genuke: "No tengo hambre". Izan ere' **zaartu da** esatea ta **orain zaarra da** esatea gauza bera da; **gosetu naiz** esatea eta **gose naiz** esatea ere gauza bera dira.

7'gna. Ederki. Baña onek 10'garrenean ere berdin jokatzea eskatzen du: b) eraz: euskaldun guztiek, beren aurrekoeri ikasitako euskera baño ohea asmatu dudela uste duden sasi-jakitunen batzu ez izanik' EZTA, EZTU, eztakit, enaiz, enintzan, ezpaitaki, enuke, etzukean eta abarr esaten ditude. Eta idazkera ona' irakurtzean kezkarik gabe itzak ongi ebakirazten duana. Esate baterako: izan ditekenez txarrena' ingelesena da: gogoratu Bernard Shaw'k (?) asmatutako itzare-

na: GHOT itza nola eraki; gh ENOUGH itzean bezela (enaf), o WOLMEN itzean bezela (uimen), eta t NATION itzean bezela (neishen) ebaki ezkerero' GHOT itza FISH itza bezela ebaki bear da.

Gure asaberi ikasitako euskera baiño obea egiñ ustez' **Aitzgorri, ez bait daki** eta oyen antzeko "etimologi" oyek eguzur gertatzen dira. Artu Landucci'ren iztegia, ospe txarrekoa baiña gauza egokiak ere dituana, e.b.: enladrillar el suelo = angelua ladrilladu; enladrillado suelo = angelu ladrilladua. Orain Euskaltzaindi'ko "jakintsuek" **angelu** latinez "angulito" dala, ta **triangelu** eta orrelako astakeriak irakasten ari dira. Eta lbarrangelua "el angulito de la vega" dala sinistuko duanik ba al-da, Euskaltzaindia'n ere? Orra bada: Landucci'k onako au dio: "yema de huevo = arraunca corrincoa" "mollejas de aues = corrinco pistiana": Beraz **gorri** leenagoko korri itzetik datorr eta **Aizkorri** esatez eta jatorriz ere **Aitzgorri** baiño egokiagoa da. Eutsi beraz gure asabek esaten zuenari, eta etimologo-lanak nai duanak egin ditzala, baiña euskerari pakean utzi bere ortan bizi dedifñ.

BAIT'ekiñ ere orrelako zerbait gertatzen da. "Bait" en ondoren g ordez k eta z ordez tz agertzen dala, eta ori t dualako gertatzen dala. ¿Eta letra bakarkoi aurrean zer? "Atsedan adi, goyegi nekatu BAIT AIZ dakidanez bein bakarrik idatzi da, Etxepare'k bere Linguae vasconum primitiae liburuan; "hapax" est.

Ona BAIT orri buruz Lafitte'k zer dion: (Grammaire basque, n.º 769. NOTA.— A l'origine le préfixe **bait-** n'était san doute que l'adverbe affirmatif **bai**. Le t de **balta** et de **baitziren** s'explique par le renforcement de **d** et de **z** après diphongue. Cf. **dautzu** pour **dauzu**, dauku pour daugu il vous a, il nous a. Nous avons gardé **bait-en** souvenir des vieux auteurs qui écrivaient parfois bait-gare, parce que nous sommes. Arrazoi polita: leen batzuk gaizki idatzi zudenaren oroi-menez' guk ere gaizki idatzi. Manexen **jin zaiku** eta bizkaitarren etorri **jaku** gogoratzea aski degu leen **ku** esaten zala, eta itzaren asierako **k** denboraz **g** biurtu dala sinistu aal eduteko. Gogoratu **kerexa** eta **gerezia**, eta orrelako beste asko. Bukaeretan alderantziz gertatzen da: Erronkari'n **ikusten dud** (eta ikusten dur) esaten ziran, beste guztiok **dut** dot, det esatera jo degu, baiña itz-barruan leengo **d** orri eutsi egiten diogu: **ikusi dudan gizona**. Kaletar batzu asi dira- **ikusi deten gizona** esaten, baiña manex euskeraz ori egiñ ezkerero naspilla sortzen da: **nik ikusi duten gizona, gure auzokoek ikusi duten gizona**. Ongi esatekotan' **ikusi dudan gizona** eta **Ikusi du(d)en gizona** esan bear dira. Emen ere t naasgarri bat sartu da: **Orrek ikusi duana** esan bearrean **ikusi duena** esaten dan tokietan **heiek ikusi duten gizona** esatera jo bearr edun duede. DUTE ori'DUAN ordez DUEN esaten dan euskalkietan bakarrik esaten da, manez-euskeraz bai, baiña ziberutarrez DV (=dü)'tik DVE zear DIE esatera jo duede. Gogoratu bizkaiera zaarreko esaera: "Aberatsok jaya daude, txiro gaxook beti neke; auzook bere igui daude beti dabilena eske". (Refranes y Sentencias, 3) Orain **daude, daue, dabe** egin da bizkaieraz, gipuzkeraz **due**.

Ekarri **baitzuan**, ekarri **baikenuan** bezelatsu argitzen da Ekarrri deutzu (deutsu) bizkaieraz, **ekarri ditutzu** manex-euskeraz aski dira leen TZU esaten zala sinisteko, eta itz-asieretan ZU biurtu dala; gogoratu TZINTZARRI = ZINTZARRI.

Beraz BAITZENUAN eta BAIKENUAN nola sortu diran aditzeko eztegu BAI-ordez BAIT-dala esan bearrrik, askoz gutxiago idatzi bearrrik. Gure asabaen euskerari errespetu aundiago zor diogu, eta idazle zaarr eta berriekin kontuz ibilli.

A. Zatarain



NAIKO ALA NAI IZANGO

Aditz-mordoa dau euskerak izen edo izenondo bati IZAN aditza ezarririk sortzen dana. Idazle batzuk kezka izaten dabe olako aditz bikotxen geroaldia zelan osatu bear dan, naiko dau ala nai izango dau esan edo erabili bear dan. Bada azkenengo era au jator bakartzat daukanik, eta bestea idazle narrasen laburduratzat, gramatika legeen arabera ez dalakotzat. Olakoak izkuntza gramatikatik sortzen dalakotzat ete dau esan leiteke. Uste okerra dalakoan nago. Izkuntzak erakutsi egiten deusku bere gramatikak, ez gramatikak izkuntza sortzen.

Naiko ala **nai izango**, **egin naiko** ala **egin nai izango** onein adibidea ez dau euskerak bakarra. **Izan** aditzak beste aditz bikotx askotxo sortzen ditu, beste izen edo aditz-ondo batzuei erantsita: al, aal edo ahal, ari, asko, aski, balio, bear, damu, ezin, gura, maite, merezi, obe, on, opa, nai opa eta besteren bat. **Izan** aditzarekin alkartuta, itz orreik eurak eroaten dabe geroaldiko **-ko edo -go** atzizkia: aalko, ariko, askoko, askiko, bearako, ezingo, gurako, maiteko, mereziko, nai-ko, obeko, ongo, opako eta olan, **-ko edo -go** atzizkia erabilten da aldi guztietan.

Geiago ere atera leitekez, baiña emen doaz adibide batzuk gure literaturatik jasota.

Al, ahal

- 1) Arratsaldean pilota partida ikusten ahalko du.
- 2) Zer galde eginen ahalko dautazu?

Adibideok, iparraldeko literaturatik artuak, ez dot jaso nondik artuak ditudan. *J. Etxepareren Buruxko liburukoak dirala uste dot.*

Ari izan

- 3) Egunero bekatu egiten hari zirela eta aitzinerat ere hala hariko zirela. Axular, 123.
- 4) Lan horretan etzera zu bakarrik ariko. Mendiburu. Argitara gabeak, 1, 321.

Aski izan

- 5) Bear bada gero esango det, askiko degu oraingo. Uztaipe, Saioa, 22.
- 6) Askiko zuen behatzea; askiko zuen amar bat ardit. Harriet, Ms.
- 7) Askiko da nere aurra sendaturik usteko. Mendiburu, I, 186.

Asko izan

8) Oraindik gauza asko legoke zeri eragin, baiña zubentzat askoko da iraitzean legez ukututea. J.J. Mogel, Baserritar, 195.

9) Izaten bazerate elkarren etsai, zuek garaitzeko askoko da nornai. Iturriaga ipuiñak.

10) Jaungoikoak bedeinkaturik zurekin neretzat askoko da. Arrue, Jenobeba.

Balio izan

- 11) Zahartzean anhitz balioko duenak gaztetatik beharko du ezagun. Axular, 175.
- 12) Orduan kokoteari atz eiteak ez dau balioko. Eguskitza, Gizarte auzia, 34.
- 13) Zer balioko deusku mundu guztia guretzat irabazteak? J.J. Mogel. Baserritar, 114.
- 14) Ataketan agitiagaitik, utsa balioko deutse artzeko gauza onik. Plateros de Durango, 68.

Bear izan

15) Aste erdian duaz diruaren billa, jan biarko badabe nai daben guztia. Plate-ros de Durango, 117.

16) Lenengo, eskua biarko dau sartu. Id. Id.

17) Karatula bat biarko dot arpegian. Id. Id. (99).

18) Iru letratxo biarko ditu nire obiak ganean, neure maitiak irakurteko Madril-dik datorrenean. Kanta zaarra.

19) Bearko, bearoko egin, esaera asko erabillia da eguneroko alkar-izketan. Bilboko erdaldun bati askotan entzunda daukat, Zer modu? itaunari erantzuteko: Ondo esan bearoko.

Damu izan

20) Egin dituzun dilijentziak berari zaizko damuko. Erri-kanta.

21) Dírautzubet, bada, biotz biotzetik... bizi izateko, eternidadian damuko ez dozun moduan. J.J. Mogel. Maiatza, 285.

22) Zuk ere, kristaua, onen abisoak artzen badituzu, damuko etzaizu, Kardabe-raz, Ejerzizioak, II, 76.

Gura izan

23) Edozeiñek aitu daikez egija orreik, baiña askok artu gurako ez ditu. J.J. Mogel, Baserritar, (81).

Maite izan

24) Ostian bizi zara gau ta egun nigatik, maiteko zaitut beti. Eliz kanta.

25) NI maite nauena maiteko du nire Aitak, eta nik ere maiteko dut ura. (Itun Berria, Liturgi-batzordea 300).

Maite nauna Aitak maiteko du ta nik maiteko det. Itun Berria, Orixe-Zugastik itzulia. 236.

"Maiteko" diñoe beste itzultzaile batzuk bere.

26) Iñork maite banau nere itzei eutsiko die, ta nere Aitak maiteko du.

Emen agertu da bizkaitarren kezkatxoa. Liturgi-itzultzaileak **maiteko** itzuli eben, eta alan dator. Naparroarako argitaraldian Bizkaiko **maite izango-ra** aldatu dabe. Oarra: Iparraldeko itzultzaileak emen ez dabe **maite izan**, **maitatu** eta **on eritzi** baiño.

Merezki izan

27) Zer mereziko duzu eta zer gaztigu izanen da arrazoin eman dakizun. Axular, 263.

Ez du barkamenik mereziko olako gaiztagiñak.

Ezin izan

28) I ezkeroko ezingo det (egin penitanziarik). Kardaberaz, IV, 14.

Nai izan

29) Orduan penetan daudenak hil nahiko dute. Axular, 593.

30) Geldirik egon naiko dezu. Mendiburu Otoitzgaiak, II, 144.

31) Nere etxean naiko lukete ilda banengo. Erri-kanta. Azkue.

32) Medikua, aldiz, itsasoan nahiko du sartu. J. Etxepare, Buruxkak, 112.

Obe izan

33) Beti orrela ibilli baiño ezkondu obeko dezu. Bertsolari batena, Azkuek bere kantutegian sartua.

34) Hobeko zuen ukan balu zamariar xumearen bihotza. **H.** Urruty, Artzain-so-las, 24.

On izan

35) Ongoko dot oera apaltzaga joatea, jagiterren zor бага. XVIgarren mendeko Refranes y Sentencias liburuko 430 esaeran.

Opa izan

Nai izan eta **gura izan-en** erabillera dau onek.

36) Ez deutzazu besteri opako zueretzat gura ez dozunik.

Uste izan

37) Zugandik bada, zer usteko ez det? Kardaberaz, Ejerzizioak, II, 44.

Ez dozu usteko guzurra diñotzudanik, ezta?

Nire ustez, edo nik dakidala, **Bear izango, nai izango, balio izango** eta olakorik ez da gure literaturan aurkitzen lengo idazle zarretan. Gure mende onetan asi izan da len aitatu dan gramatika-kezka, gaizki ez ete egozalakoa. Azkue andiaganik datorrela esango neuke. Bizkaiko ta Gipuzkoakotzat emon zituen bere iztegian **Izan** aditzaren sarreran eta "locuciones imperfectas" ziraiakotzat olako esaerak. Emen aitatu diran adibideetatik agirian dago euskera guztikoak eta euskalki guztietakoak dirala. Eta an bertan aitatu ditu Azkuek emen ixildu doguzan beste bi, **Zor izan** eta **Gauza izan** ("Gauzako ete da, Be, "zorko dozu?" Mogel zarrarena). Baiña nor gara gu erriak eta idazle zarrenak beti erabili izan daberen izketari akatsak billatu eta ezarteko?

Naiko dau orrek oker ulertuen bat sortu daikela, geiago ez dauala bear ulertuta? Baiña geiago ez dauala bear esateko, **Naikoa dau** ei da jatorrena, ez **naiko dau**. Batera nai bestera esan, testo-inguruak esango dau zelan ulertu. Edozein izkuntzatan aurkitu daitekez ola era bitara ulertzeko esaldiak, oker ulertuen bat sortzekoak, baiña ez gramatika-legez jatorrak ez diralak; eta ez dau iñork olakoak gaizkiola esantzat salatzen eskubiderik, geiagoko barik. Gure **naiko** (nahiko), **bearko** (beharko), **balioko, usteko** eta abar jatorrenak izan leitekez.

Lino Akesolo

AMETSETAN ALA ZORATUTA ETE GABILTZ?

Batzuk ezin dute euskerarik ikasi. Baiña or dabiltz "ikasten ari naiz-ka".

Guk euskera jatorrari eutsi nai ta or gabiltz "ze ikusten ari gara-ka".

Izan ere au euskera ba da...

"Erabilpen eziñezko terminala".

"Habitazioa individuala alquilazten dut de 8 a 1 goizetik. 465023".

"Gazteria sozialisten kongresoa".

"Bilboko Udala Kultura Turismo eta Sailla".

Eta zenbat orrelako?



AITA GOIRIA

KARMELDARRA GIZONA

Oraindik orain aldendu jakun urteak euskal idazle itzali dauskuz; ona iru: Aita Etxeberría, josulaguna, euskal idazle ta olerkari, Txina'n mixiolari ebillelarik ango inguruak itxi ta Euskalerrira etorririk, Aita Olabide'k itzulia eukan "Itun Zar eta Berria" (Bilbo, 1958) argitaratu ebana; Sabin Muniategi, Artiarra, olerkari oparo fiña, oraintsu illa; eta Aita Txanton Goiria, joan dan abenduaren 16'an, Gasteiz'en erioi urtua.

Zornotza'ko Boroa ta Galdakao'ko Erletxe bitarteko Gomuzio auzune jorian jaio zan Aita Goiria 1908-10-25'an, eta Gasteiz'en il zan karmeldarren gaixotegian, 1990-12-16'an. Gizaseme langille-langillea.

Azkar etorren eta ikasi guraz. Bere etxetik ez urrun eukan orduko gazte askok sarrituriko ikastetxea, Zornotza'ko Larrea muiñotxoan; enparau ikasle askok lez emen osotu zituan bere len-eskolak. Emen, gaur be entzute zabaleko dan eleiza ta karmeldar gazteen aztetxea eukan aurrez-aurre, eta etxeko ta emengo eleiz eta karmel giroa zala-ta, antza danez, berak be karmeldar izan naiez, ortarako bear ziran ikasketak egiten asi zan.

Larrako komentuan sarturik, bertan jantzi eban 1924'an karmeldar abitua, urrengo urtean garagarillaren zortzian profesia egiñik. Ondoren, oitura zanez, Markiña'n emon eban urte bete Letrak eta izkuntzak ikasten. Gasteiz'en ikasi eban iru urtez Jakintza, Filosofo ta eleiz-karrerak eskatzen dituen beste gaiak.

Begoña'n bigarren urteko Teologia ikasten egozala, 1931'an, or Republika garaiko istillu ta biurrikeriak. Nagusiak, beraz, ikasle mordo batzuk Txile'ra ta Kolonbia'ra bialtzeko asmoa artu eban, ikasketak an bakez amaitu ta lanean asi eitezan. Goiria ikasle gaztea, ba, beste lagun askorekin Kolonbia'ra joanik, an Leiva'n ikasi ebazan falta jakozan Teologi-urteak. Medelli'nen laugarrena amaitu ondoren, bertan mezakotu zan 1933-1-29'n.

Eleiz-lanetan sartua, Aita Goiria ez jakun egundo be txakur zuri ta baldankeri-pean egona izan, bai lanari lotua, irakastegian naiz autortegian, edo-ta idazten. *Alter Christus* da eta Eleiz-barruan Aren lanetan jardun bear. Ardura ori barruan ondo sarturik eroian Kortederra'ko prailleak. Frontino, Sonson, Palmira, Bogota izan ziran bere arima-zaintza tokiak. Aitaturiko arlo biez kanpo, beste bat be baban oso begikoa, trebe ta eritxi onekoa zan komentu ta eleizako kofradi ta ola-koak ondo atondu ta eroateko.

Erri-miñak eraginda, Euskalerrira biurtu zan, emen be lanari ekiteko. Ez eban gitxi egin, eta la beti euskal zelaian. Larrea'n egin ebazan urte bi, Begoña'n zazpi "Gaztedia" eritxon gazte taldea eratu ta indartzen eta azkenez Eibar'en ogeitamaika ta erdi. Emen egoala il zan eta emen egin jakozan illetak, eleiz-gizonezez eta erritarrez Karmengo eleizea ondo beterik aurkitzen zala.

Euskal idazle

Zeregin askotan, bai Amerikan bai emen, sartuta ibili arren, idazkortza euki eban atzamar artean. Markiña'n ikasle zala asi zan idazten. Guk ortarako irakasle on-ona euki genduan, Lemoa'ko Aita Urbano Manzisidor, geroago be arlo orretan jarraiturik, Txile'n il zana. Markiña'tik lenengo Donosti'ko "Euskal Esnalea"-n, Gasteiz'tik gero Bilbao'ko "Euzkadi"-n eta ondoren Begoña'tik Zornotza'ko "Karmen'go Argi"-n idazle izan zan. Begoña'ko ikasleak ixillean ateraten eben "Gautxori"-n ainbat lan datoz bereak.

Erbestetik ebillela, bardin, langille agertzen jakun eten barik, Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale", "Ekin", "Argia", "Euzkadi", "Goiz-Argi", "Anaitasuna", "Agur", "Zer" eta antzekoetan idatziz.

Sei-zazpi liburu ditu argitara emonak: 1) *Berio-Otxoa'ren Bizitza* (Bilbo, 1952); 2) *Karmen'go Eskapulaioa* (Bilbao, 1953); *Fatima'ko Ama Birjiña* (Bilbao, 1953); 4) *Goi-Bidez* (Bilbao, 1969), 423 orrialde, Gogo-jardunak; 5) *Kristoren Eliza* (Bilbao, 1971); 6) Gernika'ko Arbola (Bilbao, 1983). Orrez gaiñera, lan asko daukaz gertu, argitaratu bakoak, *Sinismena ta Agerpena* adibidez.

Urte batzuetan Arrate'ko "Irrati"-tik berba egin eban, astero. Atsegin jakon euskal erria eskolatzea, gai askotaz eskolatu be, tresna bikaiña ortarako irratia, aspaldiko urteetan euskeraz bakarrik diarduan Arrate'koa batez be. Aita Txanton'ek txorta ederretan euskuzan orduko itzaldiak be.

Olerkari?

Modu bitan azaldu oi doguz geure pentsamentuak, prosaz eta itz lauz. Baita Goiria'k be. Nik ba-dot emen, neure paper artean, karmeldar eder-zale onen ingurrazti bat, itz-neurtu kuadernua noski. Mordoak ditu, leen eta oraingo aldizkarietan be. Ba-eban poesi-garra. Urtero, emen ospatzen dogun Olerti egunean be, urterik geienetan, emen genduan Txanton mezatan eta ondorengo sari-banaketan eta poesiari buruko eztabaidan; pozez gaiñezka biurtzen zan Eibar'era.

Etzan arrano-egada berea, baiña eban zer-esana. Gai lau soillak, jakitez beteak. Gizarte-gaiak atsegin jakozan, lau ta labur azalduak. Poesia, izan be, nobere barrua, edo urkoarena, poz-erazteko da geienik. Orduan olerkariak berak daki zelako gai, neurri ta ritmotan jokatu. Ortik dator ondoren askotasun berezia.


Esana danez, geiago ta gitxiago edertasunean be dagoanik, ezin ukatu. Eta artista batek, edo artista antzekoak, sortu dauan guztia ez da ain ederra, ez dau irakurlea dardarazten beti. Baiña au ez da askotan olerkariaren errua, eta bai entzule edo irakurlearena: onek ez bai dau bear leukean aiña eder-kultura. Gauza askotan, egilleari sakaturik be errua, ezta errua berea, bestera baiño.

Larrako komentuak larrain bi daukaz barruan. Bata, ate nagusitik ur-urrean bestea urrintxuago, ezker aldetik. Lenengoa, dotore-dotorea dozu, arkupe bikaiñez batez be; emen ba-dira koskak eta uts-uneak, ormak apaindura labur-luzez eder. Ikusleen artean iñoiz entzun dot koska oneik ez datozala egoki. Nok ete dauka errua etxe-egilleak ala ikusleak? Ikusleak, nik uste, barrube ori, olako askoz betea, benetan ederra da-ta.

Argi dago. Bardin esan daikegu itzaldi, musika naiz beste edozein arte-lani buruz be. Beraz, eritxi-emoilleak kontuz ibilli bear dau berak uste dauana azaltzean. Ez ibilli iñoiz be papagai-txorria bezela iñok erakutsia esan eta esaten, kantu-aspergarritz.

Au ezta Aita Goiriarentzat, beste askorentzat baiño.

Aita Onaindia



I. SABIN MUNIATEGI: BIZITZA ETA OLERKIAK

1. BIZITZA*

Sabin Muniategi Astorkia Gautegez-Arteagan (Bizkaian) jaio zan 1912.eko Gabonillaren 11n, Felix eta Luzia gurasoakandik, Pantxikone baserrian eta Portu auzunean.

Aita berezko itzala eukan gizona zan, zaldun itxurakoa; marinoa zanez, mundo asko ikusia, irratia entzun eta irakurtea atsegin ebana. Sabin'en izakerea, zati baten beintzat, aitaren jasekoa izan ei zan.

Lenengo ikasketak erriko eskolan egin ebazan Sabin mutikoak. "Euskaldun uts-utsa nintzan eskolara asi nintzanean ta orregaitik makiña bat zigorkada artu nebazan neure bizkarrean Celestino Martínez Alesanco erdal maixu astaputzaren eskuetatik. Egun negargarri itunak" (idazlearen eskutitzan). Maixu aldeketan izan eben ikasleak, eta bigarren onek, Fermin Garzia Ezpeleta nafarrak, oso estimadu eukan Muniategi, ikasle samurra zalako.

Bizitzarako obeto gertatzeko, Gernikako Agustindarren ikastetxean ikasi eban urte bi zear.

Etxeko atarri arkupetik kanpora urtekeran, an aurrean ikusten eban Gaztelua, ezkerrean San Migel ermitea Ereñozar mendi zorrotzaren tontorrean, eta urrago Atxarre mendia, eskumaldean Muruetamendi, eta atzean, urriñean, Sollube.

Sei nebarreba ziran; iru mutillak, aitaren lanbideari jarraituz, itxas-gizonak izan ziran. Sabin amairu urteko zala, artu eben etxean anairik zaarrena Inglaterran geixoz il zanaren berria.

Ume eta gaztetzutako irudi ta biotz-mundua tinto gelditu jakon betiko Sabin'i, argi eta askatasunaren aberria balitzan: lagunak, ibar eta zugaztiak, ibaiko bustialdiak, baserriko izenak, eta lanak, jolasak eta ameskizunak:

O, Arteaga, errietan erri! Zure luze zabalean,
betikoz zaitut bai ementxe biotz-arimaz barrutu.

*Ainbat jakingarri Miren Edurne Muniategi, Sabin-en arrebeari, eta Maria Pilar Bereziartua, alargunari, zor dautseguz. Eskerrak euren oroimen eta borondate onari.

Araxe zortzi, amar, amalau bat urteko egalez...
Urte lilluratsu, urte zindo, urterik baikorrenez;
araxe usoa baño usoago, aizeaz bat egiñez,
oinkada goikari, etorkizunik etorritsuenez.

(Arteaga, 324)

Baiña 1929.ean "bizi-bearrak" urriñera eroan eban ozta gaztearora eltzen joian Muniategi. Filipinas ugarteetako llo-llo'n amaren lengusuak bizi ziran, eta ara aldatu zan bizi-bidea billatzen. "Claudio López" ontzian, Itxas Gorri eta Indikoa zear, "begiak ase eziñik" "piramide ta pagodaz" "palmondo dirdariz" eta "Iotoz" (Bizialdi urrun bat gogoratuz, 860), eldu zan Manila'ra. Bere jomuga, baiña, Bisai ugarteaz zan: ango Bais izeneko errian eta Basak landetxean asi zan lanean azukera kaiñabera artean. Administradore izatea lortu eban laster Sabin gazteak. Lan eta gizarteko artuemonetarako bearrezko ikusi ebanez, malai jatorriko bisaiera ikasteari ekin eutson, "Ango izkuntza ta ango lur maitasunez" (bertan).

Urte bi ondoren Manapla'ra aldatu zan, Nerbion eritxon landetxera, emen be lan bardiña burutzen ebala. Eguneroko artuemonak bultzatuta gaztekeraz egiten oitu zan euskaldunen artean be. Ez jakon au atsegin izan Periko Telleria "osa-beari" (amaren lengusuari), eta "norbere izketa izten dauanak norbera ama izten dauala" bota ei eutson. Eztenkada onek eraginda aurki, eta Filipinas'en bere inguruan egoan euskal zaletasunak eraginda be bai bearbada, "emen asi nintzan lenengoz euskeraz idazten. Aldi onetako olerkiak, itzulpenak 22 eta beste 20 neureak bildumatu nebazan liburu antzera ezarririk *Biotzeko Lorak* izena ta emen diraue oraindik neugaz neure lenengo zirriborruak" (Eskutitzan). Etxe eta aberri-miñez idatziak dira geientsuenenak. Itzulitakoen artean Longfellow, Lamartine, Victor Hugo, Verlaine, Alarcón Meléndez, Maeterlinck, Lessing, Villaespesa eta Unamuno aurkitzen dira. Aldi berean, 1933-34, olerki bilduma bi osotu ebazan, bata euskal olerkariena, eta erdal olerkariena bestea. Lenengoak *Euzkad'n* artutakoak dira: Lizardi (ogei olerki), Udalaizpe, Urre, Tene, Mañariko, Arana-Goiri, Garate, Sota, Ametzaga, Agirre, Zubiaurre, Zugazaga, Erletxue, Jautarkol, Sokoia, Endaitz, K. Enbeita, Kimu, Basarri, Iruñatar, Ibaialde.

Erdal olerkiak Literatura Universal batetik artu ebazan, aldi eta naziño ezberdiñetako olerkiak bildurik: Schiller, Gabriel y Galán, S. Rueda, Unamuno, Rosalía de Castro, S. Pellico, Torcuato Tasso, Lope de Vega, Luis de León, Victor Hugo, Camoens, Baudelaire, Heine, Dante, Goethe, Chocano, Poe, Selgas, J.R. Jiménez, Prudhomme, Valle Inclán, Byron, Leopardi, Carducci, Rubén Darío, Jorge Manrique, Calderón, Metastasio, Turgenev, Santa Teresa, J.M. Heredia, E. Marquina, Trueba, Góngora, Becquer... Oargarrienak aipatu ditugu, bildumako jarraian.

Bost urte ostean etxerako bidea artu eban, "President Adams" ontzian. Kolonbotik urtekeran *Kolonbo'ko belak* olerkia ondu eban (185). Bidaldi onetan ugazaba gaztea, nafar jatorrikoa aitaren aldetik, izan jakon bidelagun. 1934.eko Gabon aurrean etxera etorririk, dudan ibilli zan Sabin bere errian geratu ala Filipinas'era itzuli oporrak ondoren, ugazabak beragaz eroan gura ebala. Barcelona'n be egotaldi bat egin eben zalatzan orretan ebillala. Uri onetan euskeratu eban Unamuro'ren *El otro* antzerki laburra. Azken baten Muniategik Euskalerrian gelditzea erabagi eban, zalantza-burruka amaituz. Ez eukan, alan be, Filipinas ugarteaz aaztuteko: "Rizal'en aberri laztana", "nire biotzean zagoz esker oneko biotzez / Pili-pinas eder!" (Bizialdi *urrun bat gogoratuz*, 862).

Pantxikone'n lan-gela bat egokituz eban beretzat, idaz-maia, liburu-arasa eta idaz-makiñaz (gero, gudaldian, irabazleak baitu eutsoena) ornidua. 1935.eko agorrillan asi zan *Euzkadin* idazten: olerkiak, itzulpenak eta itz-lauko lan batzuk be bai. 1936.ean atara eban *Goiz-aize* olerki bilduma (Bilbo'n). *Euskerea'n* be argitaratzen dau olerki bat. 1937.ean *Eguna'k* eta *Gudari'k* argitaratzen ditu bere lanak.

1936.ean guda sortu zanean, Muniategi "Muñatones" batalloiagaz Elorrio'n kokatu zan, intendentzian. Ogei egun geroago *Euzkadi'ra* bialdu eban idazki alaiak ("Elorrioko Guda etxetik") bizkor ispillatzen eban gudarien arteko giro alai-baiezkorra eta erriaren eskuartzea. Aldi onetako olerkirik geienek oizko gai ezbardiñak ditue, eta batzuk baiño ez guda-gaia. "Au gure gastedi alai, aberriaren zaindari!" (*Euzko gudariai*, 50). Une atako biotzondo biziaren oiartzuna be or da: "Oi napar anai, anai itsu" (*bertan*). Geroago, baikortasunak atzera egin dau: "Intxortarantz jarrita / ene begiok mendirik mendi / aberriaren samiña darakuste", "itaunak eta itaunak erantzunge" (*Arrats beran*, 178). *Bai dakit bai* olerkiak gudariak adoretu nai ditu: "01, ene gudari lagun / alaitu arpegi motel ori", eta Lauaxeta'ren bertsoz emoten dautso amaia: "Dana emon biar yako / maite dan aztasunari" (181). 1937.eko *Elantxobe* olerkian erriari begiratzen dautso: "Oi dardaraz akust erri gaxo / itxasoaren begi!... / dardaraz gudeak ekarritako / oñaze mingotsez" (199). Batez be *Negarra* (202) eta *Gure ikuripean* olerkietan, erri eta etxe "austuta", "birrinduta" (208) ikusi ondoren baikortasuna estaldu eta olerkariaren garrasia entzuten da.

1937.eko aprillaren 26an, Gernikaren bonbardaketaren lekuko izan zan. "Ogei-tabost urteko neure begi argiakaz / ikus nebazan Gernikako inpernuketak" (*Gernika'ko triskantza gogoratu*, 1010). Uneko sakabanatze eta noraezean, Sabin'ek Foru'rantz jo eban (*Gernika*, 456) Gernika ikustera joan eta atzera etorri zanean ¶da aurkitu eban zugaitz baten azpian itzitako gudaria. Arteagan bere errian, bonbardaketan eta gerran zear ildakoak edo gero afusillatuak, guztira amairu-amalau bat izan ei ziran, ia danak Sabin'en sasoikoak.

Berak anai-arreba gazteai ebakuaten lagundu eutsen, Bermeoraiño, lenengoz. Gero batalloiagaz Santander'erantz abiatu zan. Laredon izan ziran atrapatuak. ¶¶ebete bi inguru Santoñako baituran igarota, Muniategi'ri Canfranc'era joatea suertatu jakon, Iangille-batalloian lan egiteko. Urte bi bete zituan an. Euskal langi-¶¶e batzuk Euskalerriko neskatillen eskutitz adoregarriak artzen ebezan. Sabin'ek be izan eban zori ori, eta neskatilla maratz ezezaguna urteak geroago bere emaztea izango zan. Oindiño Begoñako Karmelon (espetxe biuratuan) izan - zan espetxeratua, Irabazleen epailleentzat naiko zio egoan, orretarako: gudari zan, euskal idazlea, abertzalea, erriko batzokiko lendakariaren semea. Elgezabal abogadu gernikarrak, sor Luiza frantziskotarra lbarrangeluako alabea be bitarte-ko zuurra izan zala, lortu eban, Sabin urtebete garrenean kartzelatik ataratea.

1940.eko urtea zan. Sabin'ek Firestone'n lan egiteko erea izan eban, baiña amaren borondate biziari jaramon eginda, marino lanbidea artu eban. Lenengo "Castillo de Ampudia" ontzian. Gero, 1941-56, Rezola'n, itxasoan, sartu zan, bere eginkizuna maiordomo zala. Ondoren, baltzu berean, legorrear, Donostiko kaian egin eban lan, ataraten zan zementoaren kontua eroanik (1956-75). Orrela, bere bizitzan, Asia, Ozeania, Europako ainbat naziño eta Ipar-Afrika ezagutzeko erea izan eban.

Maria Pilar Bereziartua donostiarragaz ezkondu zan 1949.ean. Iru alaba eta seme bat izan zituen. Donostiako Errera'n bizi izan ziran 1988.erarte; orduan, Sabin'en makaltasunagaitik, Errenteri'ra aldatu zirala. Bata bizkaitarra eta bestea gipuzkoarra izanik, alkar ezagutukeran erderaz asi ei ziran. Baiña laster erabagi eben zindo be zindo aurrerantzean euskeraz egingo ebela beti.

1937.tik 1962.era bitartean eten luzea aurkitzen dogu Muniategi'ren olerkigintzan. Gerra osteko giroa, itxasoko lana, argitaratzeko biderik eza izan bear zioak. Bitarte orretako olerki bi ezagutzen ditugu: *Libe*, 1940.ekoa (aldakera bi), eta *Itz argikorrezko* (Urkiza argitaratzaileak 1945 c. kokatzen dauana). Muniategi oso zeatza zan idazkiak zaintzeko; beraz, ez ebala idatzi tarte orretan atara bear dogu, arrigarria izan arren ain berebiziko dei-griñaz olerkigintzan asi zanaren utsune luzea.

1962.ean asi zan barriro, eskerrak S. Onaindiaren *Oleri'k* eskeiñi eutson erea-

ri. Aldizkari au eta Larreako urteroko Olerti-egunak izan jakozan euskal olerkariak alkartzeko tokia. Jarraian, eurrez artu eban parte euskal aldizkarietan, liburu onetako bibliografian ikusi daitekenez. SariKETetara be bialtzen ebazan bere lanak. *Olertik* sariztatua berein dira. *Oleriti* inguruan etxeko zan, eta euskal oler-tia eta Oleriti-eguna biztutearren beti artzen eban parte. 1978.ean Nafarroako Aurrezki Kutxaren "Xalbador" saria eskuratu eban, eta 1982.ean, Ondarroako "Euskal Lore Jokuak" saria. Istoriaren zatia danez, zati txikia, sari-arazo au be aipatu bear zan emen.

Kolonbiar Olerki-Txorta euskeraz lana argitaratu zan 1968.ean ("Ekin", Buenos Aires) S. Onaindia itzulpenaren arduradun izanik. Muniategi'k be esku izan eban. Ori dala ta, eta Patxi Abrisketa'ren bidez, artuemon miñetan sartu zan arrezkero amerikar olerkari talde bategaz, eskutitzak eta olerki-liburu opaltzeak erakusten dabenez. Euskeratuta daukazan amalau olerki liburuetatik amerikar olerkarienak dira amabi. Eta ganera, olerki sueltu asko ditu itzuliak amerikar olerkarienak. Itz lauzko itzulpen luze biak amerikarrenak ditugu: Gabriel García Márquez'en *Historia de una muerte anunciada* eta Gabriela Arciniegas'en *Una casita en el aire*. Lenengoa argitaratzeko eskatua zan, eta lan gogor neketsua egin ondoren ez eutsoen argitaratu. Samin andirako izan jakon au. Kultura-bide oneetan be idatzi eban: Colombia'ko "Esparavel", "El Colombiano", Venezuela'ko "Poesía de Venezuela", "Panorama". Filipinas'eko "La Opinión". Batez be 1971-1973 bitar-tean ainbat ameriketarren aurkezpen egin ebazan euskal aldizkarietan.

Itzulpen lanak trebetasuna eta olerkaritzaren ezagupena adierazten dau. Endre Ady hungariarra izan zan lenengo argitaratu ebana, 1935.ean. Altolaquirre eta García Lorca datoz 1936.ean. Ogei ta bost urtetako ixilpearen ostean, Unamuno 1964.ean, Altolaquirre eta García Lorca barriro, eta J.R. Jiménez (bein bakarrik) 1966.ean, eta ondoren León Felipe, Miguel Hernández, Alberti, Nicolás de Hierro, Juana de Ibarbourou, Blas de Otero, Pablo Neruda, Pedro Salinas eta abar (begitu *Bibliografía*).

Bere liburutegian gaztelerazko antologia eta olerkarietz ganera, naziño ezbar-di-ñetako olerkarien bildumak eukazan, eta Walt Whitman, Pessoa, O. Elytis, T. Hyghes, S. Espriu, P. Eluard, K. Kavafis, Jaroslav Seifert, Gimferrer, Rimma Kazakowa, Cardenal, Tagore, B. Brecht eta abar.

1970.ean argitaratu eban *Bidean gora*, ordurarteko olerkian antologia, S. Onaindiaren itzaurreaz (Bilbo'n). Olerkigintzan eta itzulpen lanean jarraitu eban geroko urteetan, batez be, 1975.ean, sar-zaritzeak asti geiago itzi eutsonean. Euskera be irakasten eban Errera'ko batzokian.

1988.ean izan eban lenengo ondoeza arduragarria. Naiko sendatua, lengo lanean jarraitu eban gogotsu, Errenteri'ra aldaturik, azkenerarte. Ezinduta egon barik iI zan 1990.eko bagillaren 17an. J. Urkiza bere lanak biltzen ebillala, "ez det nik ori ikusiko", esaten ei eutsen etxekoai, joranez eta maitez itxaroten eban bere olerki guztien bilduma onegatik.

Begirunezko gizona, besteai begiramena eutsena eta berari be errez autortzen izan jakona. Benetakoa. Erlegiño, etika eta giza-izateari buruz ideia eta sentipen barrenduek ebazana. Leuna itz egiteko eta artuemonetan. Fatxadatsu entzun eta erantzun eta iritziak emotean. Asarre-gaitza eta bakezalea. Sentibera zearo, jazokun mingarri zein pozgarriak jasateko, gertaera tristeak (eraillketak, zoritxarrak, miseriak), malkoak aterateraiño.

Jazoera samingarriak gorde eta ixilik eroaten ebazan. Barrukoia, gomutakizun, amets eta oldozpenezko bere mundua eukan. Beste mundu baten bizi zala emoten eban.

Abertzalea, erriaren zatiketak biziro mintzen eban. Alan be, bakearren, samin orreek be ixilik gorde oi zituan. Laguntasunerako gertu. Bizitza eta etorkizuna ezkor ikustera joten ebala, pesimista zala esaten eutsoenean, berak ezetz, errealista zala, gauzak diran eran ikusten ebazala erantzun oi eban.

Bere bizi-deia idazle izatea, zeatzago, olerkari izatea zan. Astirik ebanean, or biltzen zan, irakurten, itzultzen, olerkiak sortzen. Ori zan bera bizi zan "beste mundua"; mundu berbera, baiña olerkariaren gogoak artzen eta barrentzen Jau-na. Gaztetan aurkitu eban, bakarrik, eta arrezkero bere bizi-leku izan da. Ederra eta Onaren aberria, samiñetan araztu eta billatua.

Olerkaria
bakarrik bizi da,
bizia dalako
olerkia.

Olerkaria, 1036)

Nik atzo lez gaur be
abesten dot (...)

Betiko apaltasun
ta bakartadean (...)

Egun batez, ordea,
ez dozue entzungo
nire abotsik.

Baiña, erabereko
beste abots argidoi
batzuk, ederrik
dautsue abestuko
bizitza beraren
etorkun argiz.

(Nere abestia, 936-937)

Luis Arostegi

ITXASOA

Itxasoa, itxasoa, lurraren arbasoa.
Ibilli egin bear da bai, itxas-ur gaiñean:
ibilli ta dantzatu ugiñakin batean
zibu-zibuka kenduz begietako lausoa.

Ibilli egin bear da arraintzarako sarez,
ur kresalezko gatz bizia zer dan ikasiaz;
ibilli egin bear da bai gau ta egunez,
eguneroko ogi irabaztearen zoriz.

Urrundietara ere joan, mundu zabalez,
merkatal ontzietako gure itxastarrakin
bideak urratuz berein ortziren begipez.

Elkano berrien itxasbideetako ibiltez
lurralde bakoitzaren izaera ikusteakin,
begiak ñirñirtuz alako gogo ta biotzez.

S.M.

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

(VI)



ETOR

Santi Onaindia Aita'k ez dautso atsedetik opa bere lumari.

Euskal idazleen fitxetan, ia gure egunetarañokoak agertzen dauskuz. 1925 urtean jaio ziranen arte eldu da bere oraintsu argitaratu dan "Euskaf Literatura VI" alea.

Errukitsu da Santi bere irizpidetan. Ezker-eskuma onespének zabalitzen oitua. Flos sanctorum batzutan lez, ia seaskatik egiten gaitu santu. Azken baten, asko edo gitxi, euskeraz idatzi dogunon lorategia.

Edozetara be utsune sakona bete dabe oraiñarteko sei liburuok.

Kontuan euki danetara 765 fitxa zeaztuten dirala sei ale orreitan.

12 arabar idazle,

201 bizkaitar,

298 gipuzkoar,

179 iparraldeko eta

71 napar. Eta berak diñon lez, ondar-mondarren artean, Menendez Pidal gali-ziarra eta beste lau erbesteko.

A.Z.



10867

JUAN JOSÉ GARCÍA MUNGARAIN
Udriarte, 74-10.
48151 MIRAVALLÉS
Bizkaia

**DESCONOCIDO
EZAGUNA**

Auxe dozu 2

Kutxa. Bere

eta zure bear-

izanak
erabiltzen dauzan kutxa.

Etorkizunera zabalik dagoan

Erakundea, etenbako

gora-gogoagaz

bere erriko jenteari

laguntza-gai osoak

eskintzen dautsozana.

Beti dago zugandik ur


izkuntza bakar baten


alkar ulertu daikegun.

Noiz arte "Ikasten ari naiz" egoera dala-ta euskeraz edozer esan eta edozer irakurten jarraitu bear, batez ere erakunde ofizialetan eta euren aldetik?

Orra oraintsuko bat.

Barregarri? Lotsagarri bai!





IÑOIZ, IÑOR, IÑON, EZER

1'go GALDERETAN: Lau itz auek galde-gai edo galde-itx diralarik.

IÑOIZ: IÑOIZ joan al zera zerura?

IÑOR: IÑOR ikusi al duzu mendian?

IÑON: IÑON ikusi al duzu sorgiñik?

EZER: Ezer ekarri al du aitak?

2'gn: EZEZKO erantzunetan, bearrezkoa da EZ sartzea.

IÑOIZ ikusi al duzu sorgiñik? Ez, iñoiz (ere) ez dut ikusi.

IÑOR ikusi al duzu mendian? Ez, iñor (ere) ez dut ikusi.

IÑON ikusi al duzu sorgiñik? Ez, iñon (ere) ez dut ikusi.

EZER ekarri al du aitak? Ez, ezer (ere) ez du ekarri.

3'gn: BAIEZKO erantzunetan, IÑOIZ, IÑOR, IÑON eta EZER sartu gabe.

IÑOIZ ikusi al duzu Gotzaia? Bai, iñoiz ikusi izan dut.

Bai, iñoiz-iñoiz ikusten dut.

IÑOR etortzen al da elizara? Bai, iñor-iñor etortzen da.

Bai, iñor bai, askorik ez.

IÑON bai al dago urrerik? Bai, iñon bai, baiña askotan ez.

EZER ekarri al du amak? Bai, ezer-ezer bai, askorik ez.

4'gn: BAIEZKO erantzuna, IÑOIZ, IÑOR, IÑON eta ZER sartu gabe.

IÑOIZ etorri al da Gotzaia? —Batzuetan bai... Noizbait ere bai.

IÑOR etorri al da billerara? —Bai, norbait bai... Batzuk bai.

IÑON erori al zera? —Nonbait erori izan naiz.

EZER ekarri al du aitak? —Zerbait ekarri du.

5'gn: BALDINTZETAN: IÑOIZ, IÑOR, IÑON eta EZER erabil ditzakegu, baiña, BAIEZKO erantzunetakoa ere bai.

IÑOR etorriko ba'litz, eseri dadilla = NORBAIT etorriko ba'litz.

IÑOIZ agertuko ba'litz Patxi, orri au eman = NOIZBAIT agertuko...

Galdutakoa IÑON agertuko ba'litz = NONBAIT agertuko ba'litz.

EZER ekarriko ba'lu aitak, ongi gorde = ZERBAIT ekarriko ba'lu...

GOGOAN EUKITZEKOA: IÑOR eta EZER beintzat era guztietara joka ditzakegu: IÑORK, IÑORI, IÑOREKIN e.a. EZERK, EZERI, EZERENTZAT...

Eta IÑON ere bai bere neurrian: IÑONDIK, IÑORA, e.a.

Eta orduan ere berdin balio dute, joka-aldi guztietan balio ere, goian esandako arau edo diralakoeak.

GAZTAÑAGA'k

ESALDI JATORRAK

- 1.-Eudia GOGOTIK ARI DU!
- 2.-Aspaldi etorri al ziñan? - Oraintxe SARTZEA egin det. Ugarte kamioi-zaleak.
- 3.-DANA EROSITIK jan bearrak, oso garesti jotzen du.
- 4.-IÑUNDIK ERE orixe nai zuan.
- 5.-ALA-BEARREZ EDO OBE-BEARREZ egin zuan.
- 6.-Gure etxera etorri, e! - ETORRI GERO, E! - Zarautz'ko neskatx batek.
- 7.-Nik ÑAI-ORDURAKO etzerate etxeratuko!
- 8.-GORRIAK IKUSI DITU!
- 9.-Zazpi t'erdiak JO TA GERO argitzen du.
- 10.-Sendagai aiek artu ta EGUÑDOKO KONPONDUA ARTU ZUAN. Mendaro'ko batek.
- 11.-Itzalera goazen, bestela EGOSIKO GERA-ta! Arantxa'k.
- 12.-Kamamillo asko al dago? - ZALDIKADA bat jasotzeko LAIÑ bai! Orruga'ko artzaiak.
- 13.-Aurrak TXARRENEAN JOANAK DIRA beintzat eta... Bengoetxe'ko amonak.
- 14.-TAKIAN- POTIAN mozkor ederrak arrapatzen juaz. (Tarteka) Eibar'ko Bergaretxe'k.
- 15.-Zenbat liburu eramango ditut? BOSTEREN BAT.
- 16.-TOKIYAZ TOKI lau automobil sartuko lirake, baña bi poste daude ta ondo, iru bakarrik sartzen dira. Oyartzun'go Xixtiyo'k.
- 17.-Garai artan BURUZ-AURRERA genbiltzan. Txomin Jakakortexarena'k.
- 18.-Eudia ari aldu? - Ez det uste ARI DUANIK.
- 19.-ALA-ERE!
- 20.-Sendagai bat artu ta PIXA ZIRRIYO GAITZAK egin ditu.
- 21.-IÑOREN bearrak ez det; lan ontarako, bakarrik NAIKOA NAIZ.
- 22.-Nexka-mutillak, ZEIN BAIÑO ZEIN OBEAK dira.
- 23.-Yon eta Xabier, biak BERE GUZIZKOAK ditu.
- 24.-Ama beti, UME-MAITEA da.
- 25.-GAIZKI-ESAKA zijoazten...
- 26.-LO-ZORROAN ez egon! Esnatu!
- 27.-Oraintze zurekin ASPER-ASPER EGIN DA nago; 8.-ESAN DA ESAÑ ETA ALPERRIK!
- 28.-LUR-JOTA NAGO!
- 29.-Aren izen onaren aurka IÑUNGOAK ESAN zitun.
- 30.-ETXE-BETEKO zalaparta atera eben. (Augustin'ek).
- 31.-Euskera ikasi nai MUNDU GUZTITIK eta baserrira joan zan. (Basarri'k).
- 32.-Emante duanak ARTZEKO BIDE EGITEN du.
- 33.-Mutil biurri onek NERE OÑETIK (NERE ONETATIK) ATERATZEÑ NAU.
- 34.-Besteen ESANETARA JARTZEA oso zail egiten zait.
- 35.-Pello zintzotu da ta DANA LANARI EMANA dago.
- 36.-AZTU-BILDUR ba'zera, papertxo batean idatzi.
- 37.-EZIN-BESTEZ etorri da gurekin.
- 38.-ASARRE-BIZIAÑ erantzun zion.
- 39.-Pelix droga-barruan sarturik zegoen, baña ONEZ ATERA DA.

Oñatibia'tar Manu

AKATSAK ETA ERDERAKADAK

1.—"Logela BAKARRA ala DOBLEA bear duzu?" (Euskaltzaindia'ren biltzarkide txartela) "Euskal-gaiztoa" besterik ez da esaldia. Ain zuzen, izan bai-daiteke:

--BAKARRA ta BERA BIKOA (doblea)

—BAKARRA ta BAKARREKOA

—BI, BAKARREKOA ta BIKOA

Beraz, onela idatzi bear zuten: "Logela BAKARREKOA ala BIKOA"?

2.—"Euskaltzaindia"ren kontuan ezarriAZ eta txartel honekin batera igorriAZ".

Zuzen izateko, onela bear zuan: "EzarriZ eta igorriZ".

3.—"LozakueKIN geletan lo egiteko aukera izango da". (Euskaltzaindia'ren Biltzarkide txartela)

Lagun ederra, berareKIN lo egiteko! Onela bear zuan: "Lo-zakuETAN lo egiteko aukera izango da geletan".

4.—"Beste berriko jatetxe batzuetan ere mahai erreserbak egingo dira". (Euskaltzaindia'ren Biltzarkide txartela)

Euskera eredugarria danik, ezin esango du iñork.

Zer esan nai zuten? Erri berean ez, BESTE erri bateko jatetxean? Ez noski. Beste au esan nai zuten, oso oker idatzi ba'zuten ere: "Erriko BESTE JATETXE batzuetan ere... EGINGO DITUGU naiz DITUZTE", norbaitzuek egingo bai-zituzten; baiña ez, "egingo dira" etorriko dira ba'litz bezala.

Azkenik, ERRESERBAK itz ori, oianetarako erabiltzen dute EITB'ko itzultzaileek.

5.—Nonbaiteko Udal-idazki batetik artuak, iru adibide bitxi:

a) "Gutxi gorabera egun horretako egitaraua azaldu nabi nizuHeke" Zuzen izatekotan, onela bear: gorabeera eta nizueke.

b) "Zenbait ikuskizun berriko gazteak antolaturik eta beraHien partaidetzarekin". Onela legoke zuzen: GazteEk beraien... Eta "partaidetza" baiño obeki legoke "beraiek tarteko dirala, beraiek lagunduta...".

d) "Haurrez agurtzen zaituztet Udal Korporazioren izenean" Nolako agurra ote da ori, erriko umez inguratuta? Bestela, AUR itzari H jartzen ba'diote ere, AURRE itzak ez du sekulan H'rik. Eta Udal-Batza edo beste itz bat egokiago, "korporazio" ori baiño.

6.—Nonbaiteko Aurrezki-Kutxetako batek, arribitxi auek zabaldu zituan orri batean: "Bezero estimatua... Euskaraz eta Gaztelaniaz konfeksionatuko dira... Lortu nahi litzatekeena da... Bulegoetako edozeinetan entregatuko bazenu... Gorago seinalatutako data...".

Gaztelera z pensatuz egindako itzulpenaren akatsak dira.

Gaztañaga'tar Jesus'ek